



ivac
eei

Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional
Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



GORPUTZ ETA KIROL
EKINTZAK

Oinarrizko Curriculum Diseinua

GIZARTE- ETA KIROL-IRAKASKUNTZAKO ETA -ANIMAZIOKO
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA



AURKIBIDEA

1	1.- TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	Orr. 5
2	2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	or. 5
	2.1 Konpetentzia orokorra	
	2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
	2.3 Lanbide-ingurunea	
3	3.HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIAK	Orr. 7
	3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
	3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
	3.3. Lanbide moduluak	
	1. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	
	2. Talde-dinamizazioa	
	3. Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea	
	4. Gizarte- eta kirol-animazioa planifikatzea	
	5. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduera fisikoak	
	6. Banakako kirol-jarduera fisikoak	
	7. Taldeko kirol-jarduera fisikoak	
	8. Tresna bidezko kirol-jarduerak fisikoak	
	9. Gizarte-inklusioko kirol-jarduera fisikoak	
	10. Kirol-jarduera fisikoak irakasteko metodologia	
	11. Gizarte- eta kirol-irakaskuntzako eta -animazioko proiektua	
	12.- Ingeles Teknikoa	
	13. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
	14. Enpresa eta ekimen sortzailea	
	15. Lantokiko prestakuntza	
4	4. GUTXIENEO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	Orr. 166
	4.1 Espazioak	
	4.2 Ekipamenduak	
	5. IRAKASLEAK	Orr. 169
	5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6	6. LANBIDE-MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	Orr. 170
7	7. TITULUKO LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK	Orr. 172
	7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
	7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2000 ordu.
- Lanbide-arloa: Jarduera fisikokoak eta kirol-jarduerak.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-5b.
- Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

2. LANBIDE-PROFILA ETA LANBIDE-INGURUNEA

2.1 Konpetentzia orokorra

1.- Titulu honekin lotutako konpetentzia orokorra kirol- eta jolas-jarduera fisikoko animazio-proiektuak prestatzea, kudeatzea eta ebaluatzea da erabiltzaile mota guztientzat, irakaskuntzako, gizarte- eta kirol-inklusioko eta denbora libreko jarduerak programatuz eta gidatuz, inplikaturako profesionalen jarduna koordinatuz, segurtasuna bermatuz, ingurumena errespetatuz eta erabiltzaileen gogobetetasuna lortuz; hori guztia, aurreikusitako kostu-mugen barruan.

2.2 Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazio eta konpetentzia-atal hauek biltzen ditu tituluak:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a) Kirol-animazio fisikoa eta jolas-animazioa AFD509_3 (146/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena Kirol-jarduera fisikoen lanbide-arloko hamabi lanbide-prestakuntza ezartzearen bidez, eta otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretuan, irailaren 16ko 1087/2005 Errege Dekretuan, eta azaroaren 16ko 1521/2007 Errege Dekretuan ezarritako zenbait lanbide-kualifikazio eguneratzen dituen). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1658_3: Kirol- eta jolas-jarduera fisikoko animazio-proiektuak egitea, kudeatzea, sustatzea eta ebaluatzea.

UC1659_3: Kirol-jarduera fisikoen animazioko eta jolas-animazioko ekitaldiak, jarduerak eta jokoak antolatzea eta dinamizatzea erabiltzaile mota guztientzat.

UC1095_3: Animazio turistikorako eta jolas-animaziorako kultura-jarduerak antolatzea eta garatzea.

UC1096_3: Animazioa helburu duten gau-jaialdiak eta ikuskizunak antolatzea eta garatzea.

UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa laguntzea.

- b) Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa SSC565_3 (567/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena Gizarte eta Kultura Zerbitzuak lanbide-arloko lau lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1869_3: Hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.

UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.

UC1868_2: Aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.

UC1870_3: Monitore-taldeak sortzea, eta haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko hezkuntza-proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea.

Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

- a) Igeriketa-jarduerak AFD341_3 (1521/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena Jarduera Fisikoen eta Kirol Jardueren lanbide-arloko lau lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez):

UC1084_3: Igeriketa-jarduerekin loturiko irakaskuntzako eta oinarrizko egokitzapen fisikoko jarduerak programatzea.

UC1085_3: Igeriketa-jardueretan, ikaskuntza eta oinarrizko egokitzapen fisikoa zuzentzea.

- b) Musikaren laguntza bidezko taldeko egokitze fisikoa AFD162_3 (1087/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez bidez ezartzen baitira lanbide-kualifikazio berriak, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan sartzen direnak, eta haiei dagozkien prestakuntza-moduluak, Lanbide Heziketako Moduluen Katalogoan sartzen direnak, eta, orobat, otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretuak ezarritakoen arteko lanbide-kualifikazio jakin batzuk eguneratzen baitira –errege dekretu hori aldatzen du azaroaren 16ko 1521/2007 Errege Dekretuak, zeinak Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen baitu Jarduera Fisikoen eta Kirol Jardueren lanbide-arloko lau lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez–). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC0273_3: Erabiltzailearen egoera fisikoa, biologikoa eta motibazionala zehaztea.

- c) Animazio turistikoa HOT329_3 (1700/2007 Errege Dekretua, abenduaren 14koa, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala osatzen duena, Ostalaritza eta Turismoaren lanbide-arloko hamahiru lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez):

UC1093_3: Aisialdiko egoeretan, taldeak sortzea eta dinamizatzea.

UC1094_3: Animazio turistikoko jarduera ludikoak eta jolas-jarduera fisikoak antolatu eta garatzea.

2.3 Lanbide-ingurunea

Titulu hori lortzen duten pertsonak esparru publikoan (administrazio orokorra, autonomikoa edo tokikoa) egin dezakete beren jardun profesionala, edota kirol-irakaskuntzarako, egokitzapen fisikorako, gizarte- eta kirol-arloko inklusiorako eta jolas-arlorako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde pribatuetan zein enpresa handi, ertain eta txikietan.

Profesional horiek arlo hauetan gauzatzen dute beren jardura: gizarte-animazioa, testuinguru eta adin desberdinetarako kirol-irakaskuntza fisikoa, animazio turistikoa eta haur eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak. Jarduerak planifikatzeaz, antolatzeaz, dinamizatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko dira.

Halaber, era guztietako erabiltzaileentzako eta turismo aktiboko enpresentzako lehiaketa ez-ofizialen eta kirol-ekitaldi fisiko txikien antolakuntzaz arduratu daitezke.



Haien jarduera kirol-instalazio konbentzional eta ez-konbentzionaletan eta natura-ingurunean garatzen da, bai eta instalazio turistikoetan ere, hala nola hoteletan, bainuetxeetan, turismorako kanpamenduetan eta opor-herrietan.

Hauek dira laneratzeko ekoizpen-sektoreak: kirola, turismoa, eta haur eta gazteentzako hezkuntza-arloko aisialdia eta denbora librekoa.

Hauek dira zeregin eta lanpostu aipagarrienak:

- Kirol-jarduera fisikoen irakaslea (igeriketa, atletismoa, saskibaloia, boleibola, tenisa eta padela, besteak beste).
- Kirol-jarduera fisikoen eta jolas-jardueren animatzailea.
- Gizarte- eta kirol-arloko inklusio-jardueretako animatzailea.
- Turismo-instalazioetako gau-jaialdietako eta ikuskizunetako animatzailea.
- Turismo-instalazioetako aire zabaleko jolas-jardueren animatzailea.
- Kirol-animazioko jardueren koordinatzailea.
- Enpresa turistikoaren edo erakunde publiko eta pribatuaren kirol-instalazioetako kirol-jarduera fisikoen koordinatzailea.
- Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko koordinatzailea.
- Kanpalekuen, gazte-aterpeen, kolonia-etxeen, abeletxe-eskolen, gaztelekuetako gelen eta natura-eskolen koordinatzailea.
- Curriculumetik kanpoko jardueren koordinatzailea eskola-eremuan.
- Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko proiektuen arduraduna.
- Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko zuzendaria.
- Kanpalekuen, gazte-aterpeen, kolonia-etxeen, abeletxe-eskolen, gaztelekuetako gelen eta natura-eskolen zuzendaria.
- Curriculumetik kanpoko jardueren zuzendaria eskola-eremuan.
- Animazio turistikoko saileko burua.
- Kirol-lehiaketa ez ofizialeko kronometratzailea, epailea eta arbitroa.
- Oinarritzko mailako edo gizarte-arloko lehiaketetako eta oinarritzko kirol-ekitaldietako kirol-sustatzailea.
- Kanpamenduetako kirol- eta jolas-jarduera fisikoen monitorea.
- Denbora libreko monitorea.
- Uretako instalazioetako soroslea.

3. HEZIKETA-ZIKLOAREN IRAKASGAIAK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Gizarte- eta kirol-animazioko proiektu bateko elementu eta faktore guztiak koherentziaz erlazionatzea, datu sozioekonomikoak, fisiko-geografikoak, kulturalak eta kirol- eta jolas-arlokoak, besteak beste, baloratuta, gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak prestatzeko.
2. Gizarte- eta kirol-arloan jarduketak proposatzea, herritarren osasunean eta bizikaltatean ondorio onak izango dituztenak, kolektibo hartzaileen ezaugarriak adierazita eta gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak egiteko dauden aurrerapenak baliatuta.
3. Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak ebaluatzen tresnak eta aplikazio-sekuentzia zehaztea, aldagaien tratamenduan informazioaren teknologiak erabiliz, ebaluazio-plana garatzeko eta erregistratzeko.
4. Gizarte- eta kirol-animazioko proiektua abian jartzeko egin behar diren jarduketak sekuentziaz, behar diren baliabideak eta haiek lortzeko modua adierazita, gizarte- eta kirol-animazioko proiektua abian jartzeko prozesua kudeatzeko.

5. Eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak antolatzea, sustapen-, garapen- eta gainbegiratze-ekintzak aurreikusita, gizarte- eta kirol-animazioko proiektua abian jartzeko prozesua kudeatzeko.
6. Ebaluazio-teknikak eta -tresnak aplikatzea, haiek erlazionatuz lortu nahi diren datu motekin, gizarte- eta kirol-animazioko programetan parte hartzen duten pertsonen egoera fisikoa, gaitasun motorra eta motibazioak ebaluatzen.
7. Programazioaren elementuak, baliabideak, egokitzapenak eta estrategia didaktikoak ezartzea, parte-hartzaile izan daitezkeen ezaugarriekin erlazionatuta, banakako, taldeko, tresna bidezko eta kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza programatzeko.
8. Programazioaren elementuak, baliabideak eta esku hartzeko estrategia metodologikoak ezartzea, inplikatu daitezkeen kolektiboen ezaugarriekin erlazionatuta, gizarte- eta kirol-arloko inklusio-jarduerak programatzeko.
9. Programazioaren elementuak, baliabideak, egokitzapenak eta animazio-estrategiak ezartzea, parte-hartzaile izan daitezkeen ezaugarriekin erlazionatuta, jolas-arloko jarduerak kirol-jarduera fisikoen eta jolasen bidez programatzeko.
10. Jarduera fisikoen praktikarekin zerikusirik duten mekanismo guztiak baloratzea, intentsitate- eta zailtasun-mailak bereizita, kirol-jarduera fisikoak eta jolasak irakasteko saioen ariketak eta atazak diseinatzeko, egokitzeko eta sekuentziazteko.
11. Zenbait jarduera fisikoren osagaiak edo eskakizun fisiko, psikiko eta sozialak aztertzea, gizarte-inklusioren arloko helburuekin erlazionatuta, adinekoentzako eta bazterkeria-arriskuan dauden gizataldeentzako gizarte- eta kirol-inklusioko jardueretako ariketak eta atazak diseinatzeko eta sekuentziazteko.
12. Olgeta-arloko kirol-jarduera fisikoekin lotutako osagai fisiko, psikiko eta sozialak zein arriskuak baloratzea, elementuen ziurgabetasun-graduak ebaluatuta, olgeta-arloko saio edo jardueretako ariketa eta atazak diseinatu, egokitu eta sekuentziazteko, era guztietako parte-hartzaileentzat.
13. Teknika didaktikoak aplikatzea, baliabideen eta taldearen antolaketa, informazio-kanalak eta -tipologia, eta motibazio- eta errefortzu-tresnak, besteak beste, egokituta, kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzako ariketen exekuzioa gidatzeko eta dinamizatzeko.
14. Gizarte-arloko esku hartze teknikak aplikatzea, baliabideen eta taldearen antolaketa, informazio-kanalak eta -tipologia eta harremanetarako, inklusiorako eta parte-hartzerako sareak eraikitzen tresnak, besteak beste, egokituta, gizarte- eta kirol-arloko inklusio-jarduerak gidatzeko eta dinamizatzeko.
15. Animazio-teknikak aplikatzea, baliabideen eta taldearen antolaketa, informazio-kanalak eta -tipologia, eta jolas-arloko estrategiak, besteak beste, egokituta, jolas-jarduera fisikoak eta jolasak gidatzeko eta dinamizatzeko.
16. Jarduerak egiteko espazioak, ekipoak eta materialak antolatzea, eta haiek erabiltzean optimizazio-irizpideak aplikatzea, jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak daudela bermatzeko.
17. Istripua gertatuz gero, esku hartzeko eta lehen laguntzak emateko prozedurak aplikatzea, ezarritako protokoloak erabiliz, jarduerak gauzatzean istripuak dituzten parte-hartzaileei oinarritzko arreta emateko.
18. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-espirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
19. Sormena eta berrikuntza-espiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.



20. Erabakiak arrazoituta hartzea, eta, horretarako, tartean diren aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo kontingentziei aurre egiteko eta horiek ebazteko.
21. Gidaritza-, motibazio-, gainbegiratze- eta komunikazio-teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
22. Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea, eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokitzea, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
23. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, eta, horretarako, norberaren taldearen prebentziorako neurriak proposatzea eta aplikatzea, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
24. Irisgarritasun unibertsalari eta «guztiontzako diseinua»ri erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
25. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko gai izateko.
26. Ekintzailetzako, enpresako eta ekimen profesionaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.
27. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

LANBIDE-MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	140	2
1124. Talde-dinamizazioa	99	1
1136. Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea.	198	1
1137. Gizarte- eta kirol-animazioa planifikatzea	40	2
1138. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduera fisikoak	99	1
1139. Banakako kirol-jarduera fisikoak	231	1
1140. Taldeko kirol-jarduera fisikoak	165	1
1141. Tresna bidezko kirol-jarduerak fisikoak	160	2
1142. Gizarte-inklusioko kirol-jarduera fisikoak	160	2
1143. Kirol-jarduera fisikoak irakasteko metodologia	99	1
1144. Gizarte- eta kirol-irakaskuntzako eta -animazioko proiektua	50	2
E-200. Ingeles teknika	40	2
1145. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
1146. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2
1147. Lantokiko prestakuntza	360	2
Zikloa, guztira	2.000	

3.3 Lanbide moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak



1. LANBIDE-MODULUA

AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak
Kodea:	1123
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirolak
Iraupena:	140 ordu
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1868_2: Aisialdian animaziorako hezkuntza- teknika eta -baliabideak erabiltzea UC1869_3: Hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3 / 4 / 5 / 9 / 11 / 12 / 14 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak planifikatzen ditu, eta aisialdiko eta denbora libreko animazioaren printzipioak erabiltzaileen beharrekin eta ekipamenduen eta baliabideen ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aisialdiko eta denbora libreko jardun-testuinguruak baloratu ditu.
- Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren printzipioak ezaugarritu ditu.
- Aisialdiko hezkuntzaren oinarriak ezarri ditu.
- Aisialdiko eta denbora libreko proiektua pertsona erabiltzaileen beharretara egokitu du.
- Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatzeko estrategiak baloratu ditu.
- Aisialdiko eta denbora libreko proiektuetarako ekipamenduak eta baliabideak hautatu ditu.



- g) Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan animatzailearen funtzioak eta egitekoa identifikatu ditu.
- h) Aisialdiko eta denbora libreko hezkuntza-asmoaren garrantzia justifikatu du.

2. Hezkuntza-arloko aisialdiko eta denbora libreko jarduerak antolatzen ditu, eta, horretarako, espazioak eta baliabideak eta prebentzioaren eta segurtasunaren arloko araudia aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jokoaren pedagogiaren printzipioak identifikatu ditu.
- b) Jokoaren bilakaera motak eta jarraibideak identifikatu ditu.
- c) Jarduera ludikoak garatzeko espazioak, baliabideak eta materialak hautatu ditu.
- d) Espazioak eta materialak antolatzeko irizpideak ezarri ditu.
- e) Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan, baliabide ludikoak erabiltzeko estrategiak ezarri ditu.
- f) Hezkuntzaren arloko aisialdiko eta denbora libreko jarduerak egitean, segurtasun- eta prebentzio-neurriak hartu ditu kontuan.
- g) Jokoaren hezkuntza-balioa argudiatu du.

3. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak implementatzen ditu, animazioko hezkuntza-baliabideak eta -teknikak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ahozko adierazpena, gorputz-adierazpena, musika-adierazpena, adierazpen plastikoa eta ikus-entzunezkoa garatzeko teknikak erabili ditu.
- b) Gizarte, adimen eta mugimeneko trebetasunak garatzeko jokoak hautatu ditu.
- c) Baliabideak hautatu ditu, esku-hartzearen helburuak kontuan izanik.
- d) Ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabili ditu aisialdiko eta denbora libreko animazio-tresna gisa.
- e) Espazioak egokitu ditu, jardueren hezkuntza-ahalmenari erreparatuta.
- f) Animazio-baliabideak eta -teknikak pertsona erabiltzaileen beharretara egokitu ditu.
- g) Pertsona erabiltzaileen sormena garatzeko adierazpen-tekniken garrantzia argudiatu du.

4. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak ingurune naturalean egiten ditu, ingurumena kontserbatzeko printzipioak eta prebentzio- eta segurtasun-neurriak errespetatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aisialdiko eta denbora libreko jardueren bitartez, ingurumen-hezkuntzaren garrantzia baloratu du.
- b) Ingurune naturalaren ezaugarriak definitu ditu, aisialdiko eta denbora libreko espazio gisa.
- c) Ingurune naturaleko aisialdiko eta denbora libreko jarduera-proiektuaren helburuekin koherenteak diren teknikak eta tresnak aplikatu ditu.
- d) Ingurune naturalean hezkuntza-jarduerak garatzeko estrategiak eta jarraibideak hautatu ditu.
- e) Arriskuak minimizatuta ingurune naturalean ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratu du.

- f) Jarduerak ingurune naturalean garatzeko beharrezko baliabideak identifikatu ditu.
- g) Jardueraren garapena bermatzeko giza baliabideak antolatu ditu.
- h) Ingurune naturalean garatutako jardueretan gerta daitezkeen larrialdi-egoeretan laguntzeko protokoloak aplikatu ditu.

5.- Aisialdiko eta denbora libreko jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerak garatzen ditu, eta hobe daitezkeen alderdiak identifikatzeko estrategiak, teknikak eta baliabideak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak eta jarduerak ebaluatzean, jarraitu beharreko adierazleak hautatu ditu.
- b) Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan ebaluazioa egiteko teknikak eta tresnak definitu ditu.
- c) Aisialdiko eta denbora libreko proiektuen eta jardueren jarraipen-erregistroak landu eta bete ditu.
- d) Ebaluazio-txostenak eta -memoriak landu ditu.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- f) Inplikatura dauden pertsonen ebaluazioaren emaitzak transmititu ditu.
- g) Aisialdiko eta denbora libreko animazio-proiektua garatzean, kalitate- eta hobekuntza-prozesuak hartu ditu kontuan.
- h) Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren barruan, ebaluazioak hezkuntza-jardunaren prozesuan duen garrantzia justifikatu du.

c) Edukiak:

1. AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO PROIEKTUAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	- Ingurune hurbileko eta Euskal Autonomia Erkidegoko aisialdiko eta denbora libreko testuinguruak, baliabideak, ekipamenduak, zentroak eta klubak aztertzea. - Aisialdiko eta denbora libreko proiektu generalistak planifikatzea, bai eta kolektibo espezifikoetarako proiektuak ere (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak, etab.). - Aisialdiko eta denbora libreko proiektuaren egokitzapena, pertsona erabiltzaileen beharrak kontuan izanik. - Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatzeko estrategien eta metodologiaren analisia. - Aisialdiko eta denbora libreko ekipamenduak eta baliabideak esleitzea proiektua gauzatzeko. - Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan animatzailearen atazak, funtzioak eta dedikazioa identifikatu ditu. - Proiektuaren kuantifikazio ekonomikoa.
kontzeptuzkoak	- Aisia eta denbora librea. Aisialdian eta denbora librean esku hartzeko testuinguruak. - Aisialdiaren pedagogia. Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren printzipioak. - Oinarri pedagogikoak aisialdiko hezkuntzan. Denbora libreko hezkuntzaren oinarriak.



	- Aisialdi inklusiboa. Denbora librearen okupazioa desgaitasuna duten edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonengan. - Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren metodologia. Estrategiak eta teknikak. - Aisialdiko eta denbora libreko proiektua: helburuak, egutegia, atazak, esleitutako baliabideak. Aurrekontua. - Aisialdiko eta denbora libreko baliabideak (baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak), ekipamenduak eta zentroak: ludotekak; haur-parkeak; kanpamentuak; baserri-eskolak; denbora libreko klubak; elkartegintza; zahar-etxeak eta hirugarren adinerako edo eguneko zentroak. Kostu ekonomikoa. - Animatzailearen eginkizuna aisialdiko eta denbora libreko jardueretan. Atazak eta eginkizunak. Kostu ekonomikoa.
jarrerazkoak	- Aisialdiaren eta denbora librearen balorazioa balioen arloko heziketarako. - Inguruan aisialdirako eta denbora librerako zer baliabide dauden eta zer ezaugarri dituzten ikertzeko ekimena.

2. HEZKUNTZAREN ARLOKO AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	- Jarduera ludikoak eta aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatzeko espazioak hautatzea eta antolatzea. - Espazioak antolatzeko irizpideak ezartzea. - Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan, baliabide ludikoak erabiltzeko estrategiak ezartzea. - Jolasaren erabilera, aisialdiko eta denbora libreko animazioan. - Aisialdiko eta denbora libreko jardueretarako materialak antolatzea eta hautatzea. - Segurtasun- eta prebentzio-neurriak aplikatzea hezkuntzaren arloko aisialdiko eta denbora libreko jarduerak egitean.
kontzeptuzkoak	- Jolasaren pedagogiaren printzipioak. Jolasaren hezkuntza-balioa: erabiltzeko arrazoiak. - Jolasa. Jolasaren bilakaera motak eta jarraibideak. - Jolas-espazioak. Aisialdirako haur-parkeak eta ludotekak. Aterpeak eta kanpamentuak. Lege-esparrua. - Jarduera ludiko motak. - Baliabide ludikoak. Jostailua. Sailkapena. - Aisialdi-espazioak eta -materialak antolatzeko irizpideak. - Baliabide ludikoak erabiltzeko estrategiak. - Aisialdiko eta denbora libreko jardueretarako materialak. - Prebentzio- eta segurtasun-neurriak aisialdirako eta denbora librerako espazioetan.
jarrerazkoak	- Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea. - Zorroztasunez jokatzeko materialak, instalazioak eta ekipamenduak hautatzean eta antolatzean.

3. AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK INPLEMENTATZEA	
prozedurazkoak	- Ahozko adierazpena, gorputz-adierazpena eta adierazpen plastikoa, motorra, musikakoa eta ikus-entzunezkoa garatzeko teknikak erabiltzea. - Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak diseinatzea, adierazpen-baliabideak eta -teknikak abiapuntu izanik. - Trebetasun sozialak, intelektualak eta motorrak garatzeko jolasak hautatzea. - Baliabideak hautatzea, esku-hartzearen helburuak kontuan izanik. - Ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabiltzea aisialdiko eta denbora libreko animazio-tresna gisa. - Erabili beharreko espazioak egokitzea. - Animazio-baliabideak eta -teknikak erabiltzaileen beharretara egokitzea. - Minusbaliotasunak dituzten pertsonentzako aisialdiko eta denbora libreko jarduera normalizatuak diseinatzea.
kontzeptuzkoak	- Ahozko adierazpeneko, gorputz-adierazpeneko, musika-adierazpeneko, adierazpen plastikoko eta ikus-entzunezko adierazpeneko teknikak eta baliabideak. Animazioa. - Sormena, esanahia eta baliabideak. - Gizarte- eta adimen-trebetasunak garatzeko jolasak. - Pertsonaren garapen motorrerako jolasak. - Lantegiak aisialdiko hezkuntzan. - Aisialdiko eta denbora libreko animaziorako ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak: aplikazioak.
jarrerazkoak	- Adierazpen-teknikek erabiltzaileen sormena garatzeko duten garrantziaren justifikazioa.

4. AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK EGITEA NATURA-INGURUNEAN	
prozedurazkoak	- Natura-inguruneako jarduerak antolatzea eta garatzea. - Txangoetako baliabideak aztertzea eta aplikatzea: - Natura-ingurunean hezkuntza-jarduerak garatzeko estrategiak eta jarraibideak hautatzea. - Natura-ingurunean jarduerak garatzeko behar diren baliabideak identifikatzea. - Giza baliabideak koordinatzea, jardueraren garapena bermatzeko. - Natura-ingurunean garatutako jardueretan gertatzen diren larrialdi-egoeretan laguntzeko protokoloak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Ingurumen-hezkuntza. Natura-ingurunearen ezaugarriak, aisialdiko eta denbora libreko espazio gisa. Hiri-ekosistema. - Aire zabaleko jardueretako lege-esparrua. - Natura-ingurunean jarduerak egiteko instalazioak: Erabilera eta mantentze-lanak. - Natura-inguruneako baliabideak: • Txangoetarako baliabideak. • Natura-ingurunea hautemateko teknikak. • Natura-inguruneako orientazio-jarduerak.



	• Ibilbideak eta kanpalekuak: • Ingurumen-jolasak eta -jarduerak. • Beste baliabide-batzuk. - Jardueretarako esleitutako giza baliabideak: koordinazioa eta eginkizunak. - Prebentzioa eta segurtasuna ingurune naturaleko aisialdiko eta denbora libreko jardueretan. - Ingurune naturaleko larrialdiko egoeretan. Larrialdi-egoeretarako arreta-protokoloa.
jarrerazkoak	- Ingurumen-hezkuntzaren garrantzia baloratzea aisialdiko eta denbora libreko jardueren bitartez. - Jarduerak koherentzia izatea natura-inguruneke aisialdiko eta denbora libreko jardueretako proiektuaren helburuekin. - Arriskuak minimizatuta natura-ingurunean ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea.

5. AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIOKO JARDUERAK GARATZEA

prozedurazkoak	- Aisialdiko eta denbora libreko animazio-proiektuak ebaluatzea. - Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan ebaluazioa egiteko teknikak eta tresnak definitzea. - Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak eta jarduerak ebaluatzean, jarraitu beharreko adierazleak hautatzea. - Aisialdiko eta denbora libreko animazio-proiektua garatzean, kalitate-kudeaketako eta hobekuntzako prozesuak aplikatzea. - Aisialdiko eta denbora libreko proiektuen eta jardueren jarraipen-erregistroak landu eta betetzea. - Ebaluazio-txostenak eta -memoriak egitea. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. - Inplikaturata dauden pertsonen ebaluazioaren emaitzak transmititzea.
kontzeptuzkoak	- Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan ebaluazioa egiteko teknikak eta tresnak. - Ebaluazio-adierazleak. - Aisialdiko eta denbora libreko proiektuetako eta jardueretako kalitate-adierazleak. Proiektuko kalitate-adierazleen kontrola eta jarraipena egiteko prozedurak. Proiektuaren hobekuntzak. - Jarraipen-erregistroak: atazenak, adierazleenak, etab. - Proiektuaren atazei eta ebaluazioari buruzko memoriak eta txostenak.
jarrerazkoak	- Aisialdiko eta denbora libreko animazioan, hezkuntza-jardunaren prozesurako ebaluazio-teknikekiko interesa izatea. - Baloratzea nolako garrantzia duen informazioaren eta komunikazioaren transmisioak aisialdiko eta denbora libreko animazio-proiektuak garatzeko.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Ikasleak, modulu hau bukatutakoan, gai izan behar du aisialdiko eta denbora libreko proiektu bat edo antolakunde bat kudeatzeko, alderdi guztietan. Gai izan behar du, halaber, jarduera antolatu eta burutzeko, bai eta zerbitzuaren kalitatea ebaluatu, koordinatu eta kudeatzeko, administrazioa bere gain hartzeko eta lantalde bat gidatzeko ere.

Hasiera batean, gomendagarria da ikuspegi orokorra eta deskriptiboa izatea jakiteko nolako baliabideak eta erantzuna ematen dizkieten eragile publiko eta pribatuak aisialdi eta denbora libre aktiboa erabiltzeko premiari.

Ondoren, ingurunean aisialdirako eta denbora librerako dauden zenbait baliabide aukeratuko dira, nolako eragina edo interesa duten aintzat hartuta, eta aztertu, garatu eta biziko dira kudeaketaren ikuspuntu guztietatik.

Proiektuaren alderdi ukigarrienetatik hasi (jarduera, exekuzioa, ekipamendua, etab.), edo proiektuaren erabiltzaileak jasotzen duen zerbitzuaren ezaugarrietatik, eta, pausoz pauso, proiektu bakoitzaren atzean dauden alderdietan sakondu eta erabiltzailearentzat hain ukigarri ez diren alderdiak aztertu. Besteak beste, proiektuaren justifikazioa, denbora-planifikazioa, giza baliabideak, baliabide ekonomiko eta materialak, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Moduluaren helburuak lortzea ahalbidetuko duten irakaste- eta ikaste-prozesuko jardun-ildoek lehentasuna emango diote moduluaren prozedurazko ikuspegiari. Ikasgelan, eta ikasgelaz kanpo, simulazioak egingo dira eta metodologia aktiboa eta motibatzailea erabiliko da, ikasleen parte-hartzea sustatuko duena, irakaste- eta ikaste-prozesuaren eragile aktibo gisa.

Izan ere, ikasleek, egoera praktikoei aurre egiteko (simulazioak, proiektuak, etab.), eduki teorikoen nolabaiteko oinarria izan behar dute. Nolanahi ere, kuantitatiboki, eduki horiek ez dira izango moduluaren helburu nagusia.

Hortaz, klase teorikoak ariketa praktikoekin konbinatuko dira, hau da, honako hauekin: hezkuntza-arloko aisialdi eta denbora libreko proiektuak diseinatzea (kanpamentuak, txangoak, aste tematikoak, etab.), denbora libreko antolakundeak (denbora libreko klubak, ludotekak eta abarren) urteko planak edo jarduera-planak diseinatzea, eta antolamendu-, ebaluazio- eta egokitze-prozesua osorik garatzea.

Ariketa praktikoa bakoitzean, irakasleak jarraibide edo gidalerro batzuk emango ditu, eta ikasleek proiektua osorik garatu beharko dute, eszenaratu arte.

Azken finean, helburua da ahalik eta modurik errealenean egitea denbora libreko antolakunde baten denbora libreko proiektuak diseinatzeko eta garatzeko edo jarduera kudeatzeko jardun-sekuentzia osoa.

Irakasleak kasu praktikoa bakoitzaren etengabeko eta banakako jarraipena egingo du, eta ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak emango dizkio, banakako lanetan zein taldekoetan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Denbora librean aritzen diren antolakunde edo eragileak eta proiektuak hautatzea.



- ✓ Baliabideei bisitak egitea, eta haiei buruzko irakurgai eta argitalpenak.
- ✓ Txostenak egitea.
- ✓ Ingurune hurbilenaren edo zenbait biztanle-talderen premiak hautematea.
- ✓ Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak programatzea, antolatzea eta garatzea.
- ✓ Jarduerak kontrolatzea, jarraitzea eta ebaluatzea.
- ✓ Jarduerekin lotutako dokumentazioa prestatzea.
- ✓ Erabiltzaileei eta bestelakoei informatzea eta komunikatzea.
- ✓ Kanpainak eta proiektuak sustatzea.
- ✓ Publizitate-euskarriak lantzea.
- ✓ Zerbitzua baloratzea.
- ✓ Inbentarioa eta dokumentazioa kudeatzea.
- ✓ Egutegiak, ordutegiak eta lantaldeak prestatzea.
- ✓ Proiektuaren aurrekontua prestatzea eta azaltzea.
- ✓ Mantentze-lanak kudeatzea.
- ✓ Lizentziak, baimenak eta abar kudeatzea.
- ✓ Prebentzioaren kudeaketa.
- ✓ Denbora libreko jarduerak egitea, segurtasun-baldintzak bermatuta.

2. LANBIDE-MODULUA

TALDE-DINAMIZAZIOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Talde-dinamizazioa
Kodea:	1124
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirolak
Iraupena:	99 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza Gizarte esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurren eta gazteen jokabidea eta ezaugarri ebolutiboak aintzat hartuta UC1870_3: Monitore-taldeak sortzea, eta denbora libreko hezkuntza-proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea. UC1093_3: Aisialdiko egoeretan, taldeak sortzea eta dinamizatzea.
Helburu orokorrak:	7 / 8 / 9 / 13 / 14 / 15 / 21 / 22

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Talde-sorrerako estrategiak garatzen ditu, aisialdiko inguruneetako esku-hartzeak taldearen beharrekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Taldeekin esku-hartzearen printzipioak aplikatu ditu.
- Goi-mailako teknikariaren jardun-esparruaren ezaugarriak adierazi ditu.
- Taldearen jardun-beharrak baloratu ditu.
- Gizarte-kognizioko prozesuak talde-sorrerarekin lotu ditu.
- Talde batean parte-hartzearen gizarte-arrazoiak baloratu ditu.
- Parte-hartzaileak taldearen sorreran inplikatzaren garrantzia baloratu du.



- g) Talde baten barruko elkarreraginean, hurkoa errespetatzearen garrantzia justifikatu du.
- h) Taldeak abian jartzeko teknika parte-hartzaileak aplikatu ditu, taldeekin esku-hartzearen printzipioak aintzat hartuta.

2. Taldea dinamizatzen du, talde-dinamikako tekniken erabilera dagozkion faseetara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Talde baten egitura ezaugarritu du.
- b) Talde baten faseak identifikatu ditu.
- c) Talde-teknikak aplikatu ditu, taldea dagoen faseetako bakoitzerako.
- d) Aisialdi-egoeretan, elkarlan- eta gozamen-giroa bermatzeko neurriak proposatu ditu.
- e) Talde baten barruan parte-hartzea sustatzeko metodo aktiboak erabili ditu.
- f) Espazioak antolatzeko, taldearen ezaugarriak kontuan hartu ditu.
- g) Egin beharreko talde-tekniketara egokitu ditu denborak.
- h) Taldeko kide guztiekin elkarreraginean jarduteko, talde-dinamikak erabiltzeak duen garrantzia baloratu du.

3. Komunikazio-teknikak hautatzen ditu, prozesuan inplikaturik dauden pertsonen eta taldeen ezaugarriak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio-prozesuaren elementuak aztertu ditu.
- b) Talde-komunikazioko oztopoak gainditzeko estrategiak hautatu ditu.
- c) Komunikazio-teknikak testuinguruetara eta taldeetara egokitu ditu.
- d) Testuinguruaren arabera komunikazio-prozesua eraginkorrago egiten duten komunikazio-estiloak definitu ditu.
- e) Komunikazio-prozesua errazteko beharrezko komunikazio-trebetasunak deskribatu ditu.
- f) Aniztasun kulturalari eta funtzionalari erreparatuta, egoera jakin bakoitzerako – batez ere, desgaitasun-egoeretarako– egokiak diren komunikazio-teknikak zehaztu ditu.
- g) Komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ebaluatzen duten sistemak ezarri ditu.

4. Proiektuen arabeko lan-taldeak antolatzen ditu, eta elkarlanerako eta koordinaziorako teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldearen lan-egoeraren eta berau osatzen duten profesionalen profilen ezaugarriak adierazi ditu.
- b) Talde-lanaren helburuak formulatu ditu.
- c) Lan-taldea dinamizatzen duten teknika parte-hartzaileak erabili ditu.
- d) Taldeko kideen artean zereginak eta eginkizunak banatu ditu, kide bakoitzaren ahalmen eta gaitasunak kontuan izanik.
- e) Lantaldeko kideen zereginen sekuentzia koordinatu du.
- f) Lantaldeko kideen zereginak eta eginkizunak gainbegiratzeko eta ebaluatzen duten prozedurak zehaztu ditu.

- g) Lan-giro egokia sortzearen garrantzia eta lan-taldeetako kideen berdintasunaren sustapena baloratu du.
- h) Taldeko kideen prestakuntza-atazak zehaztu ditu, betiere jardueretan segurtasuna bermatzen duten teknikari eta protokoloari dagokienez.

5. Talde-gatazkak kudeatzeko eta arazoak ebazteko estrategiak aplikatzen ditu, jardunaren testuinguruaren arabera teknikak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeen funtzionamenduan, arazoen eta gatazken sorburu nagusiak finkatu ditu.
- b) Taldearen barruan gatazkak kudeatzeko teknikak garatu ditu.
- c) Taldearen barruan arazoak ebazteko gizarte-trebetasunak garatu ditu.
- d) Arazoak ebazteko estrategiak baloratu ditu.
- e) Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak jarraitu ditu.
- f) Gatazken kudeaketan eta arazoen ebazpenean komunikazio-estrategiak erabiltzeak duen garrantzia baloratu du.

6. Talde-prozesuak eta lanbide-funtzioak garatzeko hark duen gizarte-kompetentzia ebaluatzen ditu, hobetu daitezkeen alderdiak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatu ditu.
- c) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin du.
- d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatu ditu.
- e) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- f) Bildutako datuak baloratu ditu.
- g) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.
- h) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.

c) Edukiak:

1. TALDE BAT SORTZEKO ESTRATEGIAK	
prozedurazkoak	- Goi-teknikariaren esku-hartzearen esparrua aztertzea, gizarte- eta kirol-arloko animazio eta irakaskuntzako jarduerak kolektiboak eta taldeak sortzeko eta sendotzeko dagokionez. - Aztertzea zergatik parte hartzen duten pertsonak gizarte- eta kirol-arloko animazioko eta irakaskuntzako jarduerak kolektiboetan eta taldeetan. - Esku hartzeko printzipioak aplikatzea gizarte- eta kirol-animazioko eta irakaskuntzako taldeetan eta jarduerak kolektiboetan. - Kognizio sozialeko prozesuen analisia. Ingurunearen eragina. - Parte-hartzeko teknikak aplikatzea gizarte- eta kirol-animazioko eta irakaskuntzako taldeak eta jarduerak kolektiboak martxan jartzeko eta haiei eusteko. - Motibazio- eta fidelizazio-teknikak aplikatzea gizarte- eta kirol-animazioko eta irakaskuntzako taldeak eta jarduerak kolektiboak martxan jartzeko eta haiei eusteko. - Esku hartzeko beharrak baloratzea gizarte- eta kirol-animazioko eta



	-irakaskuntzako talde eta jardueretan.
kontzeptuzkoak	- Taldea: ezaugarriak, tipologia, funtzioak. Jarduera kolektiboak. - Goi-teknikariek esku hartzeko duten esparrua, gizarte- eta kirol-animazioko eta -irakaskuntzako taldeak eta jarduera kolektiboak garatzeari eta sendotzeari dagokienez. - Gizarte- eta kirol-animazioko eta -irakaskuntzako jarduera kolektiboetan eta taldeetan parte hartzeko arrazoiak. - Gizarte-kognizioa. Lotutako elementuak: gizarte-eskemak, gizarte-pertzepzioa. - Taldeei aplikatutako gizarte-psikologia. Ingurunearen eragina. - Taldeekin jarduteko printzipioak. - Jarduera kolektibora eta taldera fidelizatzeko teknikak. - Talde-partaidetzako metodo aktiboak eta teknikak animazio turistikoan eta gizarte- eta kirol-irakaskuntzako jarduera kolektiboetan. - Taldeen sorreran parte-hartzeak duen garrantzia. - Gizarte-motibazioa: motibazio-teknikak. - Bideratzaile-rola taldearen eta jarduera kolektiboaren sorreran.
jarrerazkoak	- Taldeak eta jarduera kolektiboak sortzearen garrantziaz ohartzea. - Errespetuzko tratua taldeko kideen artean, taldeetako eta jarduera kolektiboetako elkarreragin-printzipio gisa. - Parte-hartzaileak taldearen sorreran eta jarduera kolektiboan inplikatzaren garrantzia baloratzea.

2.- TALDE-DINAMIZAZIOA

prozedurazkoak	- Gizarte- eta kirol-animazioko eta -irakaskuntzako jarduera kolektiboan eta taldeen egitura eta prozesuak aztertzea. - Taldearen eta jarduera kolektiboaren egitura eta dinamika eraldatu dezaketen faktoreak identifikatzea. - Jardueraren eta taldearen faserako egokiak diren dinamika-teknikak eta -tresnak hautatzea eta aplikatzea. - Talde baten barruan parte-hartzea sustatzeko metodo aktiboak erabiltzea. - Aisialdi-egoeretan, lankidetzak eta gozamen-giroa bermatzeko neurriak aplikatzea. - Jardun-estrategiak aplikatzea, taldeko egituraren eta jardunean lidergo-funtzioa eta rol positiboak baliatzeko, eta rol negatiboak neutralizatu edo zuzentzeko. - Taldean eta jarduera kolektiboan konfiantza eta kohesioa sorrarazten dituzten dinamikak aplikatzea. - Espazioak jarduera kolektiboaren eta taldearen ezaugarrien arabera antolatzea.
kontzeptuzkoak	- Talde baten egitura eta dinamika: tipologia, ezaugarriak, garapena eta prozesuak. Talde baten egitura eta dinamika aldatzen dituzten faktoreak. - Talde baten garapen-faseak. Helburuak. Eboluzioa. Taldeari eragiten dizkieten fenomenoak. - Talde-teknikak, talde baten garapen-fase bakoitzerako. - Gizarte-kohesioa, lankidetzak eta lehia taldeetan. Konfiantza. - Gizarte-kohesioa sustatzen duten faktoreak: parte-hartze

	pertsonalaren gradua, bizikidetza-arauak, lidergo motak. - Kohesioa eta konfiantza sorrarazteko dinamikak. - Lankidetzaren sorrarazten duten dinamikak. - Lidergoa: lidergo-moduak. Botere-zentroak taldean. - Talde-dinamikarako teknikak, esku hartzeko metodologia gisa: eztabaida, elkarriketa, ideia-jasa, etab. Behar diren baliabideak eta espazioak. - Taldeko dinamizatzalearen rola, talde-prozesuen abiarazle eta dinamizatzale gisa.
jarrerazkoak	- Taldeko kide guztiekin elkarerraginean jarduteko, talde-dinamikak erabiltzearen garrantzia baloratzea. - Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea. - Taldearen une bakoitzerako jarrera egokia izatearen garrantzia baloratzea.

3. KOMUNIKAZIO-TEKNIKAK HAUTATZEA

prozedurazkoak	- Komunitate elebidunen berezko komunikazio-egoera desberdinak aztertzea. - Komunikazio-teknikak gizarte- eta kirol-animazioko eta -irakaskuntzako testuinguru eta taldeetara egokitzea. - Aniztasun kulturalari eta funtzionalari erreparatuta, egoera jakin bakoitzerako –batez ere desgaitasun-egoeretarako– egokiak diren komunikazio-teknikak zehaztea. - Dauden komunikazio-oztopoak gainditzeko estrategiak hautatzea. - Komunikazio-sistema alternatiboak erabiltzea. - Komunikaziorako teknologia berriak aplikatzea. - Adierazmena eta komunikazio-gaitasunen garapena sustatzeko jarduerak programatzea. - Komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemak ezartzea.
kontzeptuzkoak	- Komunikazio-prozesua. Etapak. Ezaugarriak eta funtzioak. Parte hartzen duten elementuak. - Goi-mailako teknikariaren lanbidea garatzean sortzen diren komunikazio-testuinguruak eta -beharrak. - Komunikazio-sistemak. Komunikazio motak. Hitzeko komunikazioa, hitzik gabekoa eta paralinguistikoa. Sistema alternatiboak eta handigarriak. Adierazmena. - Komunikaziorako oinarriko trebetasun sozialak eta haien antzeko kontzeptuak. - Komunikaziorako eta gizarte-trebetasunerako programak eta teknikak. - Komunikazio-sistemak baloratzeko estrategia motak. - Komunikazio-estiloak. Estilo erasokorra, estilo inhibitua/pasiboa, estilo asertiboa. Estiloen eraginkortasuna. Aplikazio-testuinguruak. - Komunikazioaren erraztaileak eta hesiak/oztopoak. - Komunikazio-egoeren analisia egiteko jarraibideak. - Adimen emozionala. Emozioak eta sentimenduak. - Elebitasuna.
jarrerazkoak	- Pertsonarteko harremanetan hitzeko komunikazioa, hitzik gabekoa eta paralinguistikoa egoki erabiltzearen garrantzia balioestea. - Lan-jardunean trebetasun sozialak garatzeko interesa izatea.



4. LANTALDEAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	- Taldeetan lan egitearen abantailak eta desabantailak identifikatzea. - Lantaldearen helburuak formulatzea. - Atazak, ataza-multzoak eta haiek denboran banatzeko modua zehaztea. - Atazak koordinatzea eta taldekideen artean banatzea. Baliabideen esleipena. - Lantaldea dinamizatzeko teknika parte-hartzaileak erabiltzea. - Atazak eta funtzioak gainbegiratzeko eta haien betetze-maila ebaluatzen prozedurak zehaztea. - Bilerak zuzentzea. Deialdiak eta aktak egitea. - Taldekideentzako prestakuntza-jarduerak zehaztea. - Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa lortzea.
kontzeptuzkoak	- Talde-lana. – Komunikazio horizontala eta bertikala lantaldean. - Taldeetan lana egitearen abantailak eta desabantailak. - Talde-rolak. Positiboak eta negatiboak. Rol positiboak indartzeko estrategiak. - Zereginak eta eginkizunak banatzeko estrategiak. - Antolakunde baten barruan lantaldeak koordinatzeko eta dinamizatzeko metodoak. - Lan-taldeko kideen funtzioak garatzeko motibazioko eta laguntzako teknikak. - Informazioa eta orientabideak emateko teknikak lantaldearen barruan. - Lan-giroa. - Bilerak kolektiboak eta sormen-teknikak. Bilerak zuzentzea. Etapak. Bilerak dinamizatzeko eta moderatzeko teknikak. Erabakiak hartzea. Akta.
jarrerazkoak	- Taldekideen lana baloratzea. - Lan-taldearen barruan komunikazioko eta koordinazioko prozesuek duten garrantzia baloratzea. - Ordena eta metodoa talde-lanean.

5. GATAZKAK EBAZTEKO ESTRATEGIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Taldeen funtzionamenduko arazo- eta gatazka-iturri nagusiak aztertzea. - Arazoak ebazteko estrategiak aztertzea. - Taldearen barruan, talde-gatazkak kudeatzeko teknikak aplikatzea. - Taldearen barruan arazoak ebazteko gizarte-trebetasunak garatzea. - Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak aplikatzea. - Erabakiak hartzeko prozesua planifikatzea.
kontzeptuzkoak	- Gatazka: kontzeptua, ezaugarriak eta motak. - Banakako eta taldeko arazoak eta gatazkak taldean. Gatazka-iturri nagusiak. - Banakakoen eta taldearen jarrerak gatazken aurrean. - Pertsonaren sozializazio-prozesuaren ezaugarriak eta gatazkak.

	- Lidergoa taldean. Botere-zentroak. - Arazoak eta gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko estrategiak eta teknikak. - Komunikazio-estrategiak talde-arazoen konponketan. Garrantzia. - Negoziazioa eta bitartekaritza. – Negoziazio- eta bitartekotza-teknikak. - Dibertsitatearekiko gizarte-garapena. - Erabakiak hartzeko prozesua. Faseak eta deskribapena. Prozesua planifikatzea eta ebaluatzea.
jarrerazkoak	- Gatazken kudeaketan eta arazoen ebazpenean komunikazio- eta behatze-estrategiak erabiltzeak duen garrantzia baloratzea. - Gatazken ebazpenean parte hartzen duten eragile eta profesionalekin lankidetzan aritzea. - Ebazpenak bilatzeko ekimena.

6. KONPETENTZIA SOZIALA ETA TALDE-PROZESUAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	- Taldeen egitura eta prozesuen ebaluazioa. - Taldeak eta haien osagaiak aztertzeak adierazleak eta tresnak hautatzea. - Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea. - Taldeekiko lanean gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatzea. - Datuak ezarritako euskarrietan erregistratzea. - Bildutako datuak interpretatzea. - Pertsonen gizarte-garapen optimoa sustatzen duten oinarritzko beharrak identifikatzea. - Konpetentzia soziala hobetzeko jarraibideak ezartzea. - Egoera pertsonal eta sozialaren autoebaluazioa egitea, hasieran, prozesuak iraun bitartean eta amaieran, hobetu daitezkeen alderdiak adierazita.
kontzeptuzkoak	- Konpetentzia soziala: ezaugarriak eta ebaluazio-metodoak. - Taldeen egitura eta prozesuak: ebaluazio-metodoak. - Taldeak aztertzeak estrategiak eta tresnak. - Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak: metodo zientifikoa, teknika kualitatiboak, kuantitatiboak, etab. - Oinarritzko soziometrikoa. Taldeak eta haien osagaiak aztertzeak adierazleak eta tresnak. - Informazioa biltzeko tresnak. Tresnak diseinatzeko metodologia. - Datu-bilketa. Teknikak. - Autoebaluazioa, konpetentzia soziala hobetzeko estrategia gisa.
jarrerazkoak	- Ebaluazioa eta autoebaluazioa balioestea, hobekuntza- eta garapen-estrategia gisa. - Konfidentzialtasuna datuen tratamenduan.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:



1) Sekuentziazioa

Lanbide-modulu honetan, beharrezko prestakuntza biltzen da, ikasleak talde-dinamizazioaren eta trebetasun sozialen kompetentziak beregana ditzan, hain zuzen ere lanbide bat garatzeko non etengabeko elkarreraginean jardun behar baita denbora libreaz gozatzen duten taldeekin eta hasiera batean ziurrenik haien artean ezezagun izango diren pertsonekin. Gainera, lan-harremanetan egokiro jardun behar du elkarreraginean beste pertsona batzuekin; beraz, pertsonen eta testuinguruaren ezaugarrietara egokitu beharko du jokabidea.

Gomendagarria da “talde bat sortzeko estrategiak” eta “komunikazio-teknikak hautatzea” blokeekin hastera; izan ere, haietan, zenbait kontzeptu eta prozedura zehaztu eta aztertuko dira arlo hauei dagokienez: “parte hartzeko motibazioak”, “jarduerarekiko fidelizazioa”, “komunikazioko oinarritzko trebetasun sozialak”, “komunikazio-oztopoak gainditzea”, “komunikazio eraginkorra”, etab.

Ostean, «taldea dinamizatzea» eta «lantaldeak antolatzea» blokeak landuko dira, zeinetan irakatsi eta ikasteko prozesuak aztertu eta abian jarriko baitira, honako hauen inguruan: komunikazio-teknikak, talde-dinamikak, taldeak dinamizatzeako estrategiak, bilera motak, etapak, bilera baten informazioa biltzeko eta emaitzak lortzeko teknikak eta abar.

Bloke horien ondoren, irakatsiko da gatazkak nola ebatzi eta kudeatu, gai hau ardatz hartuta: «Gatazkak ebazteko estrategiak aplikatzea». Hor, talde-arazoak eta -gatazkak, gatazken iturri nagusiak, arazoak ebazteko teknikak eta estrategiak eta abar aztertuko dira.

Alderdi horiek guztiak jorratutakoan, «Konpetentzia soziala eta talde-prozesuak ebaluatzea» blokea irakatsiko da. Horren barruan, soziometriaren oinarritzko teknikak, konpetentzia soziala ebaluatzeakoak, ikerketa-teknikak eta emaitzak aztertu eta interpretatzekoak landuko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Modulua prozedurazkoa eta jarrerazkoa da funtsean, eta jarduera praktikoak eta dinamikoak izango dira protagonista.

Behar-beharrezkoa da talde-dinamikei eta trebetasun sozialei buruzko kontzeptuzko alderdiak ezagutu, aztertu, ulertu eta horien inguruan hausnartzea, baina garrantzitsuena horiek guztiak barneratzea da. Talde-dinamikak praktikan ikasi eta barneratzen dira, haietan trebatuta, bai gelan, bai gelatik kanpo.

Horretarako, hainbat partaidetza-metodo jarriko dira praktikan, esaterako:

- Jarraibideetan oinarritutako eredua eta informazio kontzeptuala: hitzezko zein keinuzko jarraibideak eta taldeko solasaldia edota eztabaida, garatu beharreko trebetasunaren inguruan.
- Modelatzea eta imitazioa: behaketaren bidez ikastean datza. Hala, landu nahi den trebetasuna edo portaera behar bezala erakusten duten ereduak ikusiko dituzte ikasleek.
- Role-playing edo antzezpena (portaera-proba): taldeko dramatizazio-teknika horrek portaerak eta jarrerak aldatzen zein eskuratzen laguntzen du. Simulazioak.
- Askotariko talde-dinamikak (lankidetzak-jarduerak, gatazkak ebaztekoak, komunikazio-jarduerak, etab.): halakoetan, beharrezkoa da parte-hartzea eta ondoren taldean gogoeta egitea.

Jarduera gehienak taldekoak izango dira, eta talde-lana izango da nagusi (talde txikiak edo handiak). Nolanahi ere, bakarkako jarduerak ere egingo dira, hausnarketa-jarduerak eta konpetentzia sozialen autoebaluazioa egitekoak kasu.

Irakasleek, era berean, trebetasun sozialak eta pertsonen arteko harremanetakoak baloratu eta saritzen diren testuinguruak ere sustatuko ditu; era horretan, trebetasun horiek eskuratu eta praktikan jartzeko interesa piztuko du ikasleengan.

Irakasleek, halaber, ikasleen arteko lankidetzak eta moduluaren inguruko motibazioa bultzatu beharko dituzte, bai eta lan-arloan, lanbide-jardunean eta orokorrean gure bizitzan trebetasun-sozialek dituzten balioak eta garrantzia balioesteko jarrerak helarazi ere.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ikerketa txikiak, jardun-inguruneak eta erabiltzaileen ezaugarriak buruzkoak, betiere animazioaren lanbide-esparruaren barruan.
- ✓ Talde-dinamikak: taldearen aurkezpena-ezagutza.
- ✓ Horma-irudi edo collage bat egitea talde txikitan, trebetasun sozialen adibideen mapa kontzeptuala irudikatuz.
- ✓ Komunikazio-estiloak buruzko rol-jokoak, testuinguru desberdinetan.
- ✓ Komunikazioaren bideratzaileen eta blokeatzaileen rol-jokoa, modelatze-teknikaren bidez, esaterako.
- ✓ Lankidetzak lantzen duten talde-dinamikak.
- ✓ Talde-lanari eta talde-rolak buruzko talde-dinamikak (lidergo-teknikak).
- ✓ Gatazken ebazpenari eta talde-rolak buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Talde-dinamikak, kohesioari, talde-konfiantzari eta motibazio-teknikei buruzkoak.
- ✓ Talde txikitan, taldea dinamizatzeko hainbat teknika diseinatzea, ostean praktikan jartzeko.
- ✓ Talde-lanaren eta bakarkako lanaren abantailak eta desabantailak buruzko ideia-jasa.
- ✓ Lan-bilera bati buruzko rol-jokoa.
- ✓ Talde-laneko testuinguruetan, gainbegiratze- eta komunikazio-teknikak garatzea eta esperimentatzea, lan-taldearen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
- ✓ Gatazken ebazpenari buruzko dinamikak.
- ✓ Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak rol-jokoen bidez antzeztea.



3. LANBIDE-MODULUA

EGOERA FISIKOA BALORATZEA ETA ISTRIPUETAN ESKU-HARTZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea.
Kodea:	1136
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-mailakoa
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirolak
Iraupena:	198 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0273_3: Erabiltzailearen egoera fisikoa, biologikoa eta motibazionala zehaztea. UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa laguntzea.
Helburu orokorrak:	3 / 6 / 16 / 17 / 18 / 19 / 20 / 21 / 22 / 23 / 24 / 25 / 26 / 27

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ariketa fisikoaren intentsitate-mailak lotzen ditu bihotz-biriketako sistemaren eta erregulazio-sistemaren egokitzapenekin, sistema horien portaera aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Deskribatu du zer-nolako ondorioak dituen ariketa fisikoa sistematizatuta egiteak bihotz-biriketako sistemaren eta erregulazio-sistemaren egiturazko elementuetan eta elementu funtzionaletan.
- Argudiatu du zer-nolako inplikazioa duen-jarduera fisikoak egiteak bizikaltatearen hobekuntzan.
- Bizi-ohitura kaltegarriek osasun-mailan duten eragina zehaztu du.
- Bihotz-biriketako sistemaren eta erregulazio-sistemaren fisiologia identifikatu du, eta adierazi du zer-nolako elkarreaginak dauden sistema horiek osatzen dituzten egituren artean eta zer ondorio dituzten horiek errendimendu fisikoan.

- e) Bihotz-biriketako sistemak eta erregulazio-sistemak esfortzu fisikoarekiko egokitzapen funtzionala egiteko baliatzen dituzten mekanismoak deskribatu ditu.
- f) Bihotz-biriketako sistemako eta erregulazio-sistemako egitura anatomikoak deskribatu ditu, maila makroskopikoan.
- g) Neke fisikoko egoera eragiten duten mekanismo fisiologikoak adierazi ditu.

2. Oinarrizko egokitzapen fisikoko ariketen eta jardueren mekanika lotzen du sistema muskulu eskeletikoaren biomekanikarekin eta egokitzapen fisiologikoekin, haren funtzionamendua aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Palanka motak lotu ditu gizakiaren gorputzaren giltzadurekin eta muskuluek giltzaduren mugimenduetan duten parte-hartzearekin.
- b) Giza gorputzaren giltzadura-mugimendu nagusiak sailkatu ditu, espazio-planoak eta -ardatzak kontuan hartuta.
- c) Grabitatearen eragina eta kargaren kokapena lotu ditu ariketak egitean gertatzen den muskulu-uzkurdura motarekin.
- d) Ariketak egokitu ditu indarraren garapeneko eta mugimenduaren luzerako maila desberdinetara
- e) Ariketak egitean kontuan hartu behar diren alderdiak eta egon daitezkeen kontraindikazioak definitu ditu.
- f) Ereduzko ariketak eta mugimenduak interpretatzeko eta irudikatzeko sinbolo eta eskema grafikoak erabili ditu.

3. Oinarrizko egokitzapen fisikoko programak egiten ditu, oinarrizko ahalmen fisikoak hobetzeko sistemen oinarriak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kirol-entrenamenduko printzipioak lotu ditu organismoak esfortzu fisikorako egiten dituen egokitze-mekanismoekin, egoera fisikoa hobetzeko sistemetan.
- b) Gaitasun fisikoak eta pertzeptibo-motorrak garatzean lesioak edo gainkargak eragozteko kontuan hartu behar diren faktoreak identifikatu ditu.
- c) Garatu behar diren gaitasun fisikoak eta hori lortzeko metodo egokienak zehaztu ditu, balorazioko datuen arabera.
- d) Gaitasun fisikoak garatzeko ariketen sekuentzia ezarri du.
- e) Erakutsi du nola egin behar diren oinarrizko egokitzapen fisikoko ariketak eta gaitasun pertzeptibo-motorrak hobetzeko ariketak.
- f) Gaitasun fisikoak eta pertzeptibo-motorrak garatzeko ereduzko ariketetan egiten diren akats ohikoenak adierazi ditu.
- g) Egoera fisikoa eta motorra garatzeko ohiko ekipamendu eta materialak eta haiek izan ditzaketen erabilerak zehaztu ditu.

4.- Egoera fisikoa eta biologikoa zehazteko probak egiten ditu, ebaluatu behar diren parametroetarako egokiak direnak, eta haietako bakoitzean segurtasun-protokoloak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaitasun fisikoa eta biologikoa aztertzeko proba-sorta bat egin du, erabiltzailearen profilaren eta eskuragarri dauden bitartekoen arabera egokitua, kontuan hartuta zer baldintzatan dagoen kontraindikaturik proba bakoitza.



- b) Tresnak eta makinak hautatu ditu, neurtu behar diren parametro morfologikoen eta funtzionalen arabera.
- c) Erabiltzaile-profil desberdinei (pertsona sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...) behar duten laguntza eman die, autonomia pertsonal txikiagoa dutenei batik bat.
- d) Egoera fisikoa neurtzeko aparatuak/tresnak eta ekipoa erabiltzeko modu zuzena azaldu eta erakutsi du, bete behar diren segurtasun-neurriak adierazita (ahal dela, erabiltzaileen hizkuntza erabiliko da: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona).
- e) Arrisku-adierazleen zeinuak identifikatu ditu balorazio kardio-funtzionaleko probak egin aurretik eta egin bitartean.
- f) Pertsonen eta taldeen (pertsona sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...) banakako beharrak, behar sozialak eta bizi-kalitatearekin lotutako beharrak identifikatzeko, behatze-prozedurak eta galdetegiak aplikatzekoak baliatu ditu.

5. Egoera fisikoaren balorazio-proben emaitzak interpretatzen ditu, eta datuak kontrol-fitxetan erregistratu eta aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzaileen (pertsona sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...) balorazio-datuaren kontrolerako fitxak hautatu edo egokitu ditu.
- b) Balorazio antropometrikoa, biologiko-funtzionala eta gorputz-jarreraren balorazioa egiteko proben datuak kontrol-fitxetan erregistratu ditu.
- c) Datuak erreferentzia-baremoekin alderatu ditu, eta prebentzio-neurriak hartzea komeni dela adieraz dezaketen desbideratzeak nabarmendu ditu.
- d) Txostenak egin ditu, kontrol-fitxetan erregistratutako datuetatik abiatuta, baliabide informatiko espezifikoak erabiliz.
- e) Kausa-efektu erlazioak ezarri ditu erabiltzaile jakin batek egindako jarduera fisikoaren eta pertsona horren gaitasun fisikoa eta biologikoa aztertzeko ondoz ondo egindako probetako emaitzen artean.

6. Neurri osagarriak integratzen ditu egoera fisikoa hobetzeko programetan, eta osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko izan dezaketen eragina baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esfortzu fisikoaren ostean errekupeazioa errazten duten teknikak hautatu ditu.
- b) Mantenu gaien proportzioa ezarri du, esfortzu fisikoaren arabera.
- c) Ahorakinaren eta jarduera fisikoaren arteko balantze energetikoa kalkulatu du.
- d) Ohitura dietetiko osasungarrien zerrenda egin du.
- e) Neurri osagarri hidrotermalak aplikatzean kontuan hartu behar diren prozedura eta prebentzio-neurriak azaldu ditu, haiek dituzten erabateko kontraindikazioak edo kontraindikazio partzialak azalduta.
- f) Errekuperatzeko masajearen oinarritzko maniobrak egin ditu.

7. Larrialdi-egoera bati dagokion laguntzaren hasierako balorazioa egiten du, arriskuak, baliabide erabilgarriak eta eman behar den laguntza mota aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eremua segurtatzeko modua eta istripua izan duen pertsonarengana heltzeko egin behar diren maniobrak justifikatu ditu, heltzeko modu onena proposatuta eta egon daitezkeen arriskuak identifikatuta.
- b) Protokoloaren arabera jarraibideak bete ditu, istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa egiteko.
- c) Bizi-arriskuko egoerak identifikatu ditu, eta berekin dakartzaten jarduketak definitu ditu.
- d) Bereizi du zer kasutan edo egoeratan ez den esku hartu behar, eta lehen esku-hartzaileak zer teknika ez dituen erabili behar modu autonomoan.
- e) Istripua izan duten pertsonak manipulatzeko norbera babesteko erabili beharreko teknikak aplikatu ditu.
- f) Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien jarraibideak berrikusi ditu.
- g) Jardutako lehentasunak zehaztu ditu, lesioen larritasunaren eta tipologiaren arabera, bai eta aplikatu behar diren lehen laguntzetako teknikak zehaztu ere.
- h) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.

8. Bizi-euskarriko eta lehen laguntzetako teknikak aplikatzen ditu, ezarritako protokoloen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aire-bideen buxadura kentzeko teknikak aplikatu ditu.
- b) Bizi-euskarriko teknikak aplikatu ditu, ezarritako protokoloaren arabera.
- c) Bihotz-biriketako bizkortzerako oinarritzko teknikak eta teknika instrumentalak aplikatu ditu manikietan, oxigenoterapiako ekipoa eta desfibriladore automatikoa ere erabilia.
- d) Lesio, patologia edo traumatismo esanguratsuenen kausak, sintomak, jardun-jarraibideak eta prebentzio-alderdiak adierazi ditu, jardueraren ingurunea kontuan hartuta.
- e) Eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek eragindako larrialdiko patologia organikoen eta lesioen simulazioetan lehen laguntzak aplikatu ditu.
- f) Istripua izan duen pertsonarekin eta hari lagun egiten diotenekin komunikatzeko oinarritzko estrategiak aplikatu ditu, egoera emozional desberdinen arabera.
- g) Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko egoera kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.

9. Istripua izan duen pertsona ebakutzeko –hori beharrezkoa izanez gero– mobilizatzeko eta immobilizatzeko metodoak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jardun osoan autokontrola izateak eta istripua izan duenari konfiantza eta baikortasuna emateak duten garrantzia baloratu du.
- b) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- c) Istripua izan duen pertsona baten erreskatea egiteko oinarritzko metodoak identifikatu eta aplikatu ditu.
- d) Istripua izan duen pertsona lekualdatzea beharrezkoa denean aplika daitezkeen immobilizatzeko metodoak aplikatu ditu.



- e) Gaixorik dauden pertsonak edo istripua izan dutenak immobilizatzeko eta garraiatzeko ohatilak eta sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz halabeharrezko baliabideekin.

c) Edukiak:

1. ARIKETAREN INTENTSITATEAREN ETA BIHOTZ-BIRIKETAKO SISTEMAREN ETA ERREGULAZIO-SISTEMAREN ARTEKO ERLAZIOA.	
prozedurazkoak	- Ingurune hurbilean jarduera fisikorako dauden faktore erabakigarriak aztertzea. - Eredu anatomikoetan kokatzea jarduera fisikoen arloan garrantzia duten bihotz-biriketako sistemaren eta erregulazio-sistemaren organoak. - Bihotz-biriketako sistemaren eta erregulazio-sistemaren mekanika deskribatzea. - Bihotz-biriketako sistemak eta erregulazio-sistemak zenbait jarduera fisikotan eta kirol-jardueratan duten parte-hartzea deskribatzea, fitxa deskriptibo batean.
kontzeptuzkoak	- Osasunaren kontzeptu integrala. Osasunerako jarduera fisikoa. Jarduera fisikorako eta osasunerako planak, EA Eren esparrukoak eta/edo toki-esparrukoak. - Ohitura ez-osasungarriak eta osasunerako arrisku-portaerak: tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzea, sedentarismoa eta estresa. - Gaixotasun kronikoak eta endekapenezko gaixotasunak, bizi-estilo ez-osasungarrien ondorioz. - Jarduera fisikoaren faktore erabakigarriak: a) banakako faktoreak b) gizarte-faktoreak eta c) ingurune fisikoa. - Bizi-estilo aktiboa. Kontzeptua, motak eta ariketa fisikoarekiko lotura. Efektuak. Behar adina aktibo den pertsona Eguneroko bizitzako jarduera fisikoak. Portaera sedentarioa. Jarduerarik eza. Jarduera fisiko arina, neurritsua eta indartsua edo intentsitate handikoa. - Bihotz-biriketako sistemaren egitura anatomikoa maila makroskopikoan: • Bihotz-hodietako sistema. Kokapena, egitura eta funtzionamendua. • Arnas sistema. Kokapena, egitura eta funtzionamendua. • Sistema kardiobaskularraren eta arnas sistemaren arteko interrelazioa. - Erregulazio-sistemen egitura anatomikoa maila makroskopikoan: • Nerbio-sistemaren antolaketa: nerbio-sistema zentral eta periferikoa. • Sistema endokrinoaren antolaketa: organo endokrinoak eta guruinak (gizon eta emakumeen artean kontuan hartzeko aldeak). • Termorregulazio-sistemaren antolaketa. - Metabolismo energetikoa. Adenosina trifosfatoa (ATP). ATPa lortzeko sistema aerobikoa eta anaerobikoa. Sistemen erabilera eta ariketa fisikoaren intentsitatea. - Bihotz-biriketako sistemak ariketa fisikorako dituen egokitzapen akueto eta kronikoak: • Birika-edukiera. Oxigeno-kontsumoa (VO_2) eta oxigeno-kontsumo maximoa ($VO_2 \text{ max.}$). • Bihotz-gastua: bihotz-maiztasuna eta bolumen sistolikoa. • Presio arteriala.

	• Beste egokitzapen batzuk. - Erregulazio- eta kontrol-sistemek ariketa fisikorako dituzten egokitzapenak: • Nerbio-funtzioa eta funtzio hormonalak mota desberdinetako ariketa fisikoan, pertsonaren generoa kontuan hartuta. Hormonen madurazioa (emakumearen ziklo menstrualak kontuan hartuta) eta ariketaren intentsitatea. • Gorputz-tenperaturaren egokitzapena. Termorregulazioa uretako ingurunean. - Nekea: neke motak, nekea eragiten duten mekanismo fisiologikoak eta nekea hautemateko irizpideak. Nekearen zeinuak eta sintomak. Aipatutako zeinuen eta sintomen eguneroko eta aldian-aldiko monitorizazioa. Gaintrenamenduaren sindromea. Lana/atsedenaldia erlazioa egokitzapen fisiologikoetarako faktore gisa. - Erabateko kontraindikazioak edo kontraindikazio partzialak jardura fisikoa egiteko/egitean. Jardura fisikoa egiteko arrisku-faktoreak, erabiltzaileen arabera (pertsona sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, edadekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...).
jarrerazkoak	- Osasun-egoeran eragin positibo zuzena duten bizi-ohiturak balioestea. - Gorputzeko sistemen egitura eta funtzionamendua nolakoa den jakiteko interesa izatea, egokitzapen fisikorako lana garatzeko oinarria direla aitortuta.

2. ARIKETAREN MEKANIKAREN ETA SISTEMA MUSKULU-ESKELETIKOAREN ARTEKO ERLAZIOA.

prozedurazkoak	- Pertsonetan eta eredu anatomikoetan kokatzea eta identifikatzea egokitzapen fisikoko jardueretan garrantzia duten hezurak, giltzadurak eta haien mugimenduak. - Pertsonetan eta eredu anatomikoetan kokatzea eta identifikatzea egokitzapen fisikoko jardueretan garrantzia duten muskuluak eta/edo muskulu-multzoak eta mugimenduak. - Grabitate-zentroa kokatzea giza gorputzaren zenbait gorputz-jarreratan. - Grafikoki deskribatu diren zenbait ekintza motorren azterketa mekanikoa, muskuluen parte-hartzearen azterketa eta azterketa funtzionala egitea. - Indarra, malgutasuna eta mugimenduen luzera lantzeko ariketak diseinatzea, zenbait irizpide eta egokitzapen kontuan hartuta (mailak, pertsona kopurua, generoa, helburuak, etab.), eta kontuan hartu beharrekoak eta egon daitezkeen kontraindikazioak aintzat hartuta. - Indarra eta malgutasuna lantzeko ariketen fitxategia egitea, ariketak zenbait irizpide edo faktoreren arabera sailkatuta eta haiei buruzko deskriptoreak adierazita. - Behatutako ekintza motorren irudikapen grafikoa egitea eta ereduak mugimenduak eta ariketak irudikatzeko erabili diren sinbologia eta eskema grafikoak interpretatzea.
kontzeptuzkoak	- Jarrera anatomikoa. Mugimenduaren planoak eta ardatzak, eta noranzko espazialak. • Giltzadura-mugimendu nagusiak, espazio-planoen eta -ardatzen



	arabera. Flexioa, estentsioa, biraketa, abdukzioa, adukzioa eta zirkundukzioa. - Hezur- eta giltzadura-sistemaren anatomia deskribatzailea. • Eskeletoaren antolaketa eta haren elementu garrantzitsuenen deskribapena: burezurra, gorputz-enborra eta gorputz-adarrak. • Hezurak. Hezur-ehuna eta kartilagozko ehuna. • Giltzadura: definizioa, osagaiak eta motak. Giltzadura garrantzitsuenak. - Muskulu-sistemaren anatomia deskribatzailea. • Ariketa fisikoan garrantzia duten muskuluak. • Muskulu-multzo bakoitzaren kokapena eta ekintza espezifikoak: - o Goiko gorputz-adarrak: sorbalda, besoa eta besaurrea. - o Gorputz-enborra: atzealde eta aurrealde. - o Beheko gorputz-adarrak: aldaka, izterra eta hanka. • Muskulu-ehuna: tipologia. Ehun muskulu-eskeletikoaren antolaketa. Muskulu-zuntza. • Ehun konektiboa: lotailuak, fasziak eta tendoiak. Egitura. - Sistema muskulu-eskeletikoaren funtzioak, portaera eta egokitzapenak: • Muskulu-uzkurdura eta -elongazioa. Muskulu-uzkurdurak: motak. Gorputz-jarrerara eta mugimendura aplikatutako printzipio biomekanikoak. • Giza gorputzaren palanka-sistema: mugimendu-aukerak. Askatasun fisiologikoko graduak giltzaduren mugimenduetan. • Sistema muskulu-eskeletikoak ariketa fisiko mota desberdinetan izaten dituen egokitzapen akueto eta kronikoak. • Tonuarekin eta luzaketekin lotutako erreflexuak: erreflexu miostatikoa, inhibizio autogenokoa, elkarrekiko inhibizioa, eta inhibizio gurutzatukoa. - Mugimenduaren analisia: ariketen analisi mekanikoa, muskularra eta funtzionala. Mugimenduak irudikatzeko sistema. - Indar-ariketak. • Zenbait maila. • Faktoreak: a) gorputz-jarrera globala eta segmentarioa ariketaren faseetan; b) muskulu-ekintzak exekuzio-faseetan; c) uzkurdura mota; d) grabitatearen eragina uzkurdura motan; e) erritmoa eta abiadura; f) luzera; g) karga motak, eta h) arnasketa. • Binaka edo taldean egiteko ariketak. Laguntzak. • Arreta-neurriak eta egon daitezkeen kontraindikazioak. - Mugimenduaren luzera lantzeko ariketak. • Zenbait maila. • Faktoreak: a) giltzaduren luzera-tartea plano edo ardatz bakoitzean, b) ariketa motak; c) muskulu-ekintzak exekuzio-faseetan; d) gorputz-jarrei eusten zaien denbora eta e) erritmoa, abiadura, luzera eta arnasketa. • Arreta-neurriak, kokapena, heldulekuak, kanpo-ekintzak. • Sentsazio propiozeptiboak interpretatzeko kontsignak. • Binaka edo taldean egiteko ariketak. Arreta-neurriak eta egon daitezkeen kontraindikazioak.
jarrerazkoak	- Balioestea zer-nolako erabilgarritasuna duen mugimendua aztertzeak egokitzapen fisikoko lanerako ariketa egokiak hautatzeko. - Ekimena izatea indarra eta malgutasuna lantzeko ariketa berriak bilatzeko, egokitzapen fisikoko saioak diseinatzeko lana erraztu ahal izateko. - Mugimendua irudikatzeko sistemak eta sinbologia egokia erabiltzeko ahalegina egitea. Ahal dela, erabiltzailearen hizkuntza erabiliko da:

euskara, ingelesa edo gaztelania.

3. OINARRIZKO EGOKITZAPEN FISIKOKO PROGRAMAK PRESTATZEA

prozedurazkoak	- Taula batean jasotzea entrenamendu-kargekin lotutako alderdiak (bolumena, intentsitatea, atsedena, etab.), ezarritako entrenamendu-printzipioak betetzen direla bermatzeko. - Entrenamendu-kargaren kuantifikazioa, haren osagaiak kontuan hartuta (bolumena, intentsitatea, gehieneko ahalmena). - Erresistentzia, abiadura, espazialtasuna, denborazkotasuna, espazio-denboraren egituraketa, oreka eta koordinazioa lantzeko ariketen fitxategia egitea, ariketak zenbait irizpide edo faktoreen arabera sailkatuta eta haiei buruzko deskriptoreak adierazita. - Errendimendua lortzeko bideratutako egokitzapen fisikoa eta osasunera bideratutako egokitzapen fisikoa aplikatzeko esparruak bereiztea, adingabeekin batik bat. Abusuzko esplotazio ororen aurka babestea. - Oinarrizko egokitzapen fisikoko programa bat egitea zenbait kolektiborentzat (pertsonek sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...), honako atal hauek sartuta: • Garatu behar diren gaitasun fisikoak eta hori lortzeko metodo egokiak, balorazioko datuen arabera. • Egoera fisikoa eta motorra garatzeko ohiko ekipamendu eta materialak eta haiek izan ditzaketen erabilerak. • Oinarrizko egokitzapen fisikorako egin beharko diren saioen fitxa. Honako hauek izan beharko ditu fitxak: - o Helburuak eta gaitasun fisikoak garatzeko ariketen sekuentzia. - o Akats ohikoenak eta jarraibideak adieraztea. - Kargak egokitzea parte-hartzaileen mailetara (pertsonek sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...). - Oinarrizko egokitzapen fisikoko programa bateko saioak gidatzea, ariketak egiteko modu zuzena erakutsita, akatsak adierazita, eta dagokion informazioa emanda, saioa egin aurretik, bitartean eta ondoren.
kontzeptuzkoak	- Egoera fisikoa eta motorra: sailkatzeko irizpideak eta haiek zehazten dituzten faktoreak. Egoera fisikoaren, gaitasun fisikoaren eta gaitasun pertzeptibo-motorren garapeneraren printzipio orokorrak. - Osasunera bideratutako egoera fisikoa eta motorra. Osagaiak. Osasunera bideratutako entrenamenduaren printzipio nagusiak. Kirol-errendimendura bideratutako entrenamenduarekiko aldeak. - Ahalmen aerobikoa eta anaerobikoa: ahalmena zehazten duten faktoreak. Bihotz-jarduerako eremuak. Entrenamendu-sistemak: jarraituak eta zatikatuak. Entrenamendu-bitartekoak. Ahalmenaren garapenerako entrenamendu-printzipio espezifikoak. Egokitzapen kroniko espezifikoak. Ahalmen fisikorako eta osasunerako esfortzu-marjinak. Oinarrizko ariketa-programa. - Indarra: indar motak. Ahalmena zehazten duten faktoreak. Entrenamendu-sistemak: autokargak, binakako lana, eta zenbait material eta aparatu erabiliz egindakoa. Entrenamendu-bitartekoak. Ahalmenaren garapenerako entrenamendu-printzipio espezifikoak. Egokitzapen kroniko espezifikoak. Ahalmen fisikorako eta



	osasunerako esfortzu-marjinak. Oinarrizko ariketa-programa. - Mugimenduaren luzera: artikulazioen mugikortasuna, muskuluen elastikotasuna. Haiek zehazten dituzten faktoreak. Entrenamendu-sistemak: aktiboak eta pasiboak. Entrenamendu-bitartekoak. Ahalmenaren garapenerako entrenamendu-printzipio espezifikoak. Egokitzapen kroniko espezifikoak. Oinarrizko ariketa-programa. - Abiadura: motak. Ahalmena zehazten duten faktoreak. Entrenamendu-sistemak eta -bitartekoak. Ahalmenaren garapenerako entrenamendu-printzipio espezifikoak. Egokitzapen kroniko espezifikoak. Oinarrizko ariketa-programa. - Gaitasun pertzeptibo-motorrak: propiozepzioa, gorputz-eskema, espazialtasuna, denborazkotasuna, espazio-denboraren egituraketa. Oreka: oreka motak. Koordinazioa: koordinazio motak. Entrenamendu-sistemak eta -bitartekoak. Oinarrizko ariketa-programa. - Jarduera fisiko osasungarrirako esfortzu-marjinak. Gaitasun fisikoak eta pertzeptibo-motorrak garatzean lesioak edo gainkargak eragozteko kontuan hartu behar diren faktoreak. - Beroketa eta lasaitasunera itzultzea: oinarrizko printzipioak. - Entrenamendua, prozesu zientifiko eta pedagogiko gisa. <i>Fitness</i>aren eta <i>wellness</i>aren kontzeptua. • Kirol-errendimenduaren baldintzatzaileak. • Entrenamenduaren helburuak eta baliabideak: egokitzapen fisikoko jarduerak egiteko motibazioak. • Egokitzapena azaltzen duten teoriak: egokitzapenaren sindrome orokorra eta atalasearen legea. • Egokitzapen fisikorako aplikatu daitezkeen entrenamendu-printzipioak. • Esfortzuen dinamika egokitzapen fisikoko lanean. • Karga. Barne- eta kanpo-karga. Karga zehazten duten faktoreak: Bolumena, intentsitatea, dentsitatea. - Egokitzapen fisikoaren urteko plangintzarako oinarriak. Plangintzaren periodizazioa: Denboraldia, metatze-, eraldatze- eta gauzatze-mesozikloak (ATR). Mikrozikloak: tipologia. - Egokitzapen fisikorako jarduerak, autonomia pertsonaleko maila desberdinetara aplikatuta. Egokitzapen fisiko eta egokitzapenak, adinaren eta generoaren arabera: • Gaitasun fisikoek eta pertzeptibo-motorrek denboran duten bilakaera. • Taldeko egokitzapen fisiko musikaren laguntza erabiliz egiteko aukerak. - Esfortzura egokitzearen berezitasunak eta zer kontraindikazio dauden autonomia funtzional mugatuko egoeretan. - Merkatuan egokitzapen fisikoko jarduerak garatzeko dauden baliabideak eta aukerak: instalazio konbentzionalak eta ez-konbentzionalak, makinak, baliabide osagarriak. Haiek osatzen dituzten elementuak eta/edo materialak. Kostuak, tipologia, neurriak, kokapena eta ezaugarri teknikoak eta segurtasunekoak. - Euskal Autonomia Erkidegoko eta ingurune hurbileko natura-inguruneak egokitzapen fisikoko lana egiteko ematen dituen aukerak. Aire zabalean egiteko jarduera egokienak.
jarrerazkoak	- Egoera fisikoko eta motorreko maila desberdinak daudela ohartzea eta horren ardura hartzea, banakotasunaren printzipioa aplikatuz eta abusuzko esplotaziotik babestuz, adingabeak batik bat. - Erresistentzia, abiadura, oreka eta koordinazioa lantzeko ariketa-erregistro zabala izatearen beharra baloratzea, egokitzapen fisikorako

	saioak diseinatzeko lana errazteko. - Ingurune hurbilak egokitzapen fisikoko jarduerak egiteko eskaintzen dituen baliabideak ezagutzeko eta erabiltzeko interesa izatea.
--	---

4. EGOERA FISIKOAREN ETA BIOLOGIKOAREN EBALUAZIOA	
prozedurazkoak	- Ebaluazio antropometrikoa eta gaitasun fisikoa eta biologikoa ebaluatzeko proba sorta bat aplikatzea jarduera fisikoko zerbitzuen erabiltzaile eta bezeroei (pertsonek sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...). - Elkarriketa pertsonala egitea, egokitzapen fisikorako jarduerak egitearen inguruko motibazio-alderdi garrantzitsuen berri izateko (ahal dela, erabiltzaileen hizkuntza erabiliko da: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). - Tresnak eta/edo makinak hautatzea, neurtu behar diren parametro morfologikoen eta/edo funtzionalen arabera. - Erabiltzaile-profil desberdinei (pertsonek sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...) behar duten laguntza ematea, autonomia pertsonal txikiagoa dutenei batik bat. - Egoera fisikoa neurtzeko aparatuak/tresnak eta ekipoak erabiltzeko modu zuzena azaltzea eta erakustea. - Hobekuntza-proposamenak egitea, prozesu osoan eta ebaluazioan bildutako informazioa eta ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.
kontzeptuzkoak	- Gaitasun fisikoa eta osasuna ebaluatzeko esparruak. Testak, probak eta galdetegiak, adinaren eta generoaren arabera. Hasierako balorazioa, eta denbora-epe jakin batean izandako bilakaera. - Balorazio antropometrikoa egiteko metodoak eta biotipologia. - Gorputzaren osaeraren balorazioa egiteko prozedurak. Gorputzaren osaeraren erreferentziazko balioak zenbait erabiltzaile eta bezero motatan, adinaren eta sexuaren arabera. Gorputzaren osaeraren eta osasunaren arteko erlazioa. - Ahalmen pertzeptibo-motorrak neurtzeko probak. Test hauen protokoloak eta aplikazioa: pertzeptzio espaziala, denboraren pertzeptzioa, espazio-denboraren egituraketa, gorputz-eskema, koordinazioa, oreka. - Proba biologiko-funtzionalak egokitzapen fisikoren arloan. Probetarako protokoloak. Testak egitean gertatzen diren fenomeno fisiologikoak. Arrisku-adierazleak probak egin aurretik eta/edo egin bitartean. - Proba orokorren eta espezifikoen multzoa: • Ahalmen aerobikoa eta ahalmen anaerobikoa ebaluatzeko probak. Pultsometroa. Zeharkako probak eta landa-laneko testa. Orokorrak eta espezifikokoak. Atalaseak. Arrisku-adierazleak. • Abiadura ebaluatzeko probak. Abiadura mota bakoitzerako proba espezifikokoak. • Indar-adierazpenen ebaluazio-proba orokorrak eta espezifikokoak: indar maximoa, abiadura-indarra eta erresistentzia-indarra. • Mugimenduaren luzeraren ebaluaziorako proba orokorrak eta espezifikokoak: giltzaduren mugikortasuna eta muskuluen elastikotasuna. Eskakizunak, protokoloak, neurtzeko tresnak eta gailuak. - Aplikazio autonomia edo espezialisten lankidetzat izanda.



	- Jarrera: • Gorputz-jarreraren alterazio ohikoenak. • Gorputz-jarrera aztertzeako probak egokitzapen fisikoaren arloan. - Pertsonen eta taldeen (pertsona sedentarioak edo kirolariak: gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia dituzten pertsonak...) historia eta motibazioaren balorazioa egitea, bai eta banakako beharren, behar sozialen eta bizi-kalitatearekin lotutako beharren balorazioa egitea ere. • Elkarrizketa pertsonala egokitzapen fisikoaren arloan. • Behaketa, egokitzapen fisikoko jardueren ebaluazioa egiteko oinarritzeko teknika gisa. Gogobetetasun-mailaren jarraipena. - Historia medikoa eta jarduera fisikorako gaitasun-ziurtagiriak.
jarrerazkoak	- Jarrera kritikoa prozesuan hobetu daitezkeen alderdiekiko. - Jardueretan inplikaturik dauden beste pertsona batzuek egindako iradokizunak entzutea eta aintzat hartzea.

5. DATUAK AZTERTZEA ETA INTERPRETATZEA

prozedurazkoak	- Testak, eta balorazio antropometrikoko eta gorpuz-jarreraren baloraziorako probak aplikatzean lortutako emaitzak erregistratzea. - Galdetegiak, historiako eta beste espezialista batzuen aginduzko txostenetako informazioa aztertzea. - Lortutako informazioaren integrazioa eta tratamendua. - Lankidetzak aktiboa eskaintzea kirolariek dagozkien osasun-profesionalen bitartez egin beharreko kontrol medikoetarako. - Lankidetzak aktiboa izatea dopin-kontrolak egiten eta dopinaren aurkako legedian xedatutako betebeharrak betetzen. - Datuak erreferentzia-baremoekin alderatzea eta aldagaien arteko alderaketa egitea. - Txostenak egitea, erregistratutako eta aztertutako datu eta informazioetatik abiatuta. - Kausa-efektu erlazioak ezartzea egindako jarduera fisikoaren eta ondoz ondoko balorazio-proben emaitzen artean. - Lortutako informazioa eta helburuak erabiltzaileari edo bezeroari komunikatzea (pertsona sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...).
kontzeptuzkoak	- Testak, balorazio-probak eta galdetegiak egokitzapen fisikoaren arloan. - Informazioa tratatzeko dokumentuen, euskarrien eta fitxen ereduak. - Ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak aplikatzea egokitzapen fisikoaren esparruko testak, probak eta galdetegiak baloratzeko eta erregistratzeko: • Datuak behatzeko, transkribatzeko eta aztertzeako softwarea: kalkulu-orriak, estatistika-paketeak. • Testetan eta probetan lortutako datuak interpretatzeko estatistika: emaitzen guztizko maiztasuna, moda, mediana, batezbestekoa, batez besteko desbideratzea, desbideratze tipikoa eta bariantza. Emaitzen irudikapen grafikoa. Datuak gurutzatzea eta aldagaien arteko erlazioak. - Txosten espezifikoak eta datu-azterketaren aplikazioa. Beste espezialista batzuek agindutako ariketa fisikoak. Analisia diagnostikoaren oinarritzat erabiltzea, egoera fisikoak hobetzeko

	programak egiteko zenbait motatako erabiltzailerentzat (pertsonek sedentarioak edo kirolariak: adingabeak, gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...).
jarrerazkoak	- Erantzukizuna eta etika-sena informazioa kudeatzean eta ematean. - Datuen eta informazioen analisi-prozesua baloratzea, diagnostikorako oinarri gisa.

6. EGOERA FISIKOA HOBETZEKO NEURRI OSAGARRIAK INTEGRATZEA.

prozedurazkoak	- Esfortzu fisiko mota desberdinen ostean errekupeartzeko teknikak hautatzea. - Norberak eta beste pertsona batzuek ohiko egun batean egiten duten kaloria-gastua kalkulatzeko. - Norberak eta beste pertsona batzuek ohiko egun batean behar duen kaloria-ekarpena zein funtsezko mantenugaiaren ekarpena kalkulatzeko. - Kaloria-gastua eta kaloria-ekarpena erlazioztatzen dituzten taula espezifikoak erabiltzea. - Ohiko egun bateko kaloria-gastua, kaloria-ekarpena eta funtsezko mantenugaiaren ekarpena alderatzeko. - Egon daitezkeen desorekak eta desoreka horiek zuzentzeko neurriak identifikatzeko. - Errekuperatzeko masajerako oinarritzko maniobrak pertsona bati aplikatzeko. - Erlaxazio-teknikak erabiltzea, egoera fisikoa hobetzeko neurri osagarri gisa.
kontzeptuzkoak	- Errekuperazioaren oinarri biologikoak. Errekuperaziorako neurriak eta teknikak. Energia-substratuen errekupeazioa. - Errekuperazio-bitartekoak eta -metodoak, saio batean bertan eta saioen artean: • Masajea: onurak eguneroko bizitzan eta jardura fisikoan. Masaje motak: terapeutikoa, higienekoa eta kirol-masajea. - o Kirol-masajea: berotzekoa, tartekoa eta errekupeartzekoa. Errekuperatzeko masajearen onurak. Aplikazioaren unea, teknika eta iraupena. • Masajea: onurak eguneroko bizitzan eta jardura fisikoan. - o Erlaxazio-jolasak, luzaketak eta bibrazioak, arnasketaren kontrola, apurka-apurkako erlaxazioa, entrenamendu autogenoa. • Errekuperazio-metodo hidrotermalak. Saunak. Erabateko kontraindikazioak, kontraindikazio erlatiboak, eta abantailak. Saunak, lurrun-bainuak eta bainu termalak aplikatzean kontuan hartu beharreko prebentzio-neurriak. - Beste errekupeazio-bitarteko eta -metodo batzuk: • Bitarteko naturalak: kinesioterapia aktiboa eta pasiboa, loa eta bizi-estiloa. • Bitarteko pedagogikoak: entrenamenduaren egitura arrazionala, berotzea, lasaitasunera itzultzea, etab. • Bitarteko psikologikoak: teknika eragingarriak, kognitiboak, autokontrolak, sozialak eta biofeedbacka. Erlaxazioa. Kognizio-estrategiak, eta jomugak bisualizatzea eta ezartzea. • Bitarteko mediko-biologikoak: elikadura-neurriak eta neurri dietetikoak, neurri farmakologikoak, laguntza ergogenikoak,



	neurri fisioterapeutikoak (elektroestimulazioa eta ultrasoinuak eta hidroterapia), aeroterapia eta erreflexoterapia. - Elikadura eta nutrizioa: • Elikagai-multzoak: sailkapena. • Mantenugaiak. Elikagaien osaera. Funtz-gaiak. Bitaminak, mineralak eta ura. Ezaugarriak. Sailkapena. • Kaloria-beharrak, behar funtzionalak eta egiturazko beharrak. Metabolismo basala, kaloria-gastua. Energia-gastua zenbait jardura fisikotan: taulak, adinaren eta sexuaren arabera. Kaloria-gastu teorikoa kalkulatzekoak, egindako jardueraren arabera. • Dieta orekatua: ahoratutakoaren eta gastatutakoaren arteko balantze energetikoa. RDA gomendioak eta dieta mediterranea. Beste dieta mota batzuk. • Elikadura- eta hidratazio-beharrak, ariketa fisikoa egin bitartean eta egin ondoren, helburuen arabera. • Ohitura dietetiko osasungarriak. Elikadura ez-osasungarriaren ondorioak. Elikadura-nahasmenduak.
jarrerazkoak	- Masaje-teknikak eta antzekoak erabiltzeak errekupeziarako dituen ondorio positiboak baloratzea. - Jarrera kritikoa izatea egokitzapen fisikoko lan baten ostean atsedenean eta errekupeziarazko eragina izan dezaketen ohitura ez-osasungarrien aurrean. - Jarrera kritikoa izatea kirolariek osasunaren kalterako egiten dituzten jardunbideekiko, dopatzea barne hartuta. - Fidagarritasuna eta zehaztasuna ohiko egun batean kaloria-gastua eta -ekarpena kalkulatzeko.

7.-LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA

prozedurazkoak	- Egon daitezkeen arriskuen, esku-hartze motaren eta esku hartzeko behar diren baliabideen balorazioa. - Esku hartzeko eremuko segurtasuna bermatzeko teknikak aplikatzea. - Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea. - Informazioa transmititzeko teknika egokiak erabiltzea. - Larrialdi-zerbitzuek istripua izan duen pertsonarengana iristeko egin behar dituzten maniobrak zehaztea. - Istripua izan duten pertsonekin esku hartzeko lehentasunak zehaztea. - Istripua izan duen pertsona baten hasierako balorazioa egiteko protokoloa aplikatzea: konorte-mailaren balorazioa, aireztapena egiaztatzea, eta bizi-arriskuko sintomekiko jarduna. - Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera identifikatzea jardun-sekuentzia. - Lehen laguntzetako botikinaren oinarritzko materiala erabiltzea, berrikustea eta egoera onean gordetzea.
kontzeptuzkoak	- Istripuak eta larrialdiak: motak eta ondorioak. - Larrialdietarako jardun-protokoloaren faseak: gaixoaren hasierako ebaluazioa, jardunaren plangintza, kokapena eta iristeko moduak, egon daitezkeen arriskuak identifikatzea, eremua babestea eta istripua izan duenarengana iristea. - Lehen esku-hartzailearen jardunaren helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta laguntza-sistemak).

	- Eremuaren balorazioa egiteko eta eremua babesteko sistemak. Justifikazioa. - Jarduteko sistematika: konorte-mailaren balorazioa, aireztapena egiaztatzea, eta pertsonen bizi-arriskuko sintomekiko jarduna (helduak, haurrak eta edoskitzaileak). - Zauritu ugariko istripuetarako jardun-lehentasuna, lesioen larritasuna eta tipologia kontuan hartuta. Triaie sinpleko metodoak. OMEren triaje-proposamena. - Bizi-arriskuko egoerak: eragiten dituzten jarduketak. - Lehen laguntzak ematearen arloko lege-esparrua: erantzukizun zibila eta penala. Zuhurtziagabekeria. Sorospen-eginbearra ez betetzea. Lehen laguntzak uretako instalazioetan. - Jarrerarekin lotutako alderdiak: etika profesionala. Komunikazioa larrialdi-egoeretan Emozioak eta antsietatea kontrolatzea. - Larrialdi-zerbitzuak: erakunde orokorrak eta tokikoak. Larrialdi-zerbitzuekin komunikatzean kontuan hartu beharreko alderdiak. Informazio motak eta informazioaren ezaugarriak. - Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorraraz dezaketen faktoreak. - Nork bere burua babesteko neurriak eta segurtasun-neurriak, istripua izan duten pertsonekin esku hartzean eta haiek manipulatzeko. Neurriak eta ekipoak. - Lehen sorospenetako botikina: tresnak, sendabide-materiala, oinarrizko sendagaiak. Egoera onean gordetzeko eta ondo erabiltzeko arauak.
jarrerazkoak	- Lasaitasuna ez galtzea jardunean. - Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan eta erabakiak hartzean. - Esku-hartzearen mugez jabetzea, eta protokoloetan eta gomendioetan adierazitakoa betez egitea esku-hartzea.

8. BIZI-EUSKARRIKO ETA LEHEN LAGUNTZETAKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	- Istripua izan duen pertsonaren bizi-arriskuko egoerak eta bizi-konstanteak eteten ez direla egiaztatzea. - Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea. - Airebideen buxadura kentzeko eta haiek irekita egoteko teknikak aplikatzea konortea duten zein konorterik gabe dauden biktimetan. - Bihotz-biriketako bizkortzerako teknika instrumentalak nahiz bizi-euskarriko teknikak aplikatzea manikietan. - Oxigenoterapiako ekipoa eta desfibriladore automatikoa edo erdiautomatikoa erabiltzea. - Eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek eragindako larrialdiko patologia organikoen eta lesioen simulazioetan lehen laguntzak aplikatzea. - Identifikazio, balorazio eta jardun simulatua, egoera hauen aurrean: • Zauri eta hemorragiak: garbiketa, eta aposituak eta bendajeak jartzea. Immobilizatzeko bendajeak jartzea. • Traumatismoa, konorte-galerarekin eta konortea galdu gabe. • Krisi konbultsiboa.
kontzeptuzkoak	- Hasierako arreta larrialdi ohikoenetan. Esku-hartzerako jarraibideak lehen laguntzak aplikatzean: lehentasunak eta teknikak. Esku hartu



	behar ez denerako jarraibideak. - Istripua izan duen pertsonarekin eta hari lagun egiten diotenekin komunikatzeko oinarritzko estrategiak (ahal dela, pertsona horiek erabiltzen duten hizkuntza erabiliko da: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko egoerak kontrolatzeko jarraibideak. - Airebidea irekitzeko eta haren buxadura kentzeko teknikak konortea duten zein konorterik gabe dauden biktimetan. Protokoloa. - Bihotz-biriketako oinarritzko berpiztearen oinarriak (RCBP). Metodoak eta oinarritzko teknikak. Pertsona helduekin, emakume haurdunekin, bularreko haurrekin eta umeekin aplikatu beharreko protokoloak. Tresneria. Egoera desberdinak. - Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDA). • Aparatu motak, haien autonomiaren arabera. • Erabiltzeko argibideak. Teknikak. • Ekipoen funtzionamendua eta mantentzea. • Egoera bereziak. Informazio-prozedura. Legedia eta ziurtapen-sistemak. • Araudia eta legedia. - Aireztatze-laguntzako eta oxigenoterapiako osagarriak: Guedel-en hodiak, anbuia edo intsuflazio-baloia, oxigenoterapiako maletina, jariakin-xurgagailu elektrikoa. - Istripua izan duenaren lehen eta bigarren mailako balorazioa egiteko protokoloa. Lesioak, gaixotasunak eta traumatismoak detektatzea. Kausak, sintomak eta zeinuak: kontzientziaren alterazioak, sukarra, gonbitoak eta beherakoa, zorabialdiak, lipotimiak, sinkopeak, shocka, abdomeneko mina eta <i>ventre en tabla</i> delakoa, toraxeko mina. - Lesio motak. Sailkapena, arrazoiak, sintomak eta zeinuak. Oinarritzko tratamendua: hemorragiak, zauriak, erredurak, istripu elektrikoak, uretako istripuak, eta traumatismoak. - Beste larrialdi-egoera batzuk: zirkulazio-aparatuko nahasmenduak, intoxikazioak, krisi anafilaktikoak, epilepsia eta konbulsio-koadroak, deshidratazioa, gorputz arrotzak (azalean, begietan, belarrietan eta sudurrean), traumatismo txikiak, ama eta haurren larrialdiak, zirkulazio-istripuak, etxeko istripuak, beroak eta hotzak eragindako lesioak, ziztadak. Presio-aldaketek eragindako nahasmenduak. - Ur-inguruneke istripuetan, ospitale aurreko esku-hartze protokoloa: esku hartzea itotze-mailaren arabera, esku hartzea bizkarrezur-muineko lesioa dutenekin. - Bendajeak eta aposituak: erabiltzeko jarraibideak, tipologia eta aplikatzeko teknikak. Immobilizatzeko bendajeak zenbait giltzaduratan.
jarrerazkoak	- Jardun-protokoloak ordenaz eta zehaztasunez aplikatzearen garrantzia baloratzea. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Lasaitasuna ez galtzea jardunean. - Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan (ahal dela, istripua izan duen pertsonak erabiltzen duen hizkuntza erabiliko da: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona) eta erabakiak hartzean.

9. MOBILIZATZEKO ETA IMMOBILIZATZEKO METODOAK.	
prozedurazkoak	- Immobilizatzeko eta mobilizatzeko metodoak aplikatzea, istripua izan

	duen pertsona lekualdatu behar izanez gero. - Istripua izan duen pertsona lekualdatzeko oinarritzko metodoak aplikatzea. - Gaixorik dauden pertsonak eta/edo istripua izan dutenak immobilizatu eta garraiatzeko ohatilak eta sistemak egitea, material konbentzionalak, berariazkoak ez direnak edo halabeharrezko baliabideak erabiliz. - Komunikazio-baliabideak erabiltzea ustez istripua izan duen pertsona baten senide eta laguntzaileekin.
kontzeptuzkoak	- Larrialdi kolektiboak eta katastrofeak. Kontzeptuak. - Bat-batean gaixo jarri den edo istripua izan duen pertsona lekualdatzea erabakitze irizpideak. Ebaluazio-metodoa. - Immobilizatzeko metodo egokienak, patologiaren arabera. Segurtasun- eta itxarote-jarrerak. - Mobilizatzeko metodo egokienak, patologiaren arabera. Lekualdatzeko gorputz-jarrera seguruak. - Istripua izan duten pertsonak lekualdatzea. - Gaixorik dauden pertsonak eta/edo istripua izan dutenak immobilizatu eta garraiatzeko ohatilak eta sistemak, honako hauek erabiliz: material konbentzionalak, berariazkoak ez direnak edo halabeharrezko baliabideak. - Laguntza psikologikoko teknikak istripua izan duten pertsonentzat, haien senideentzat eta istripuan esku hartzen ari den pertsonarentzat: • Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. • Komunikazioa (ahal dela, istripua izan duen pertsonak erabiltzen duen hizkuntza erabiliko da: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona) eta trebetasun sozialak krisi-egoeretan. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak. • Babes psikologikoa eta autokontrola. Autokontrol-teknikak estres-egoeretarako: defentsa-mekanismoak. - Laguntza ematean huts egin izana psikologikoki gainditzeko teknikak.
jarrerazkoak	- Errespetua eta zuhurtzia istripua izandako pertsonari lagun egiten dioten pertsonetara tratuan. - Konfiantza eta segurtasuna jardunean, komunikazioetan (ahal dela, istripua izan duen pertsonak erabiltzen duen hizkuntza erabiliko da: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona) eta erabakiak hartzean. - Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamenak.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulua fase hauetan egituratzen da:

- Funtsean kontzeptualak diren edukiak, beste faseetarako zuzeneko transferentzia dutenak.
- Egokitzapen fisikoko programak garatzea.
- Istripua izan duen pertsonari lehen laguntzak eta oinarritzko bizi-euskarria ematea, eta hura mobilizatu eta immobilizatzea.



Jarraian, fase bakoitzerako zenbait orientabide ematen dira:

a) Funtsean kontzeptualak diren edukiak, beste faseetarako zuzeneko transferentzia dutenak:

Gomendagarria da modulua "egokitzapen fisikoaren" testuinguru orokorrean kokatzea, eta, abiapuntu gisa, ikaslearentzat gidari izan daitezkeen zenbait kontzeptu aztertzea, honako hauei buruz: egokitzapen fisikoko monitoreo, entrenatzailea eta animatzailea, eta haien funtzioak, eta egin beharreko jardueren izaera: osasuna, jarduera fisikoa, bizi-estiloa, dibertsioa, estetika, kontraindikazioak, osasunera bideratutako egoera fisikoa eta errendimendura bideratutakoa.

Ondoren, proposatzen da aparatu, sistema eta organo nagusien deskripzio anatomikoa egitea. Izan ere, abiapuntu logikoa da, jarraian haien funtzionamendua eta jarduera fisikoak eragindako egokitzapenak aztertzeko. Haiek guztiak 1. eta 2. eduki-blokeetan aipatzen dira.

Kontuan hartuta fase hau gehien bat deskriptiboa dela, komeni da honako erlazio hauek egitea, eta adierazten den azken elementuaren garapena bigarren faserako uztea:

- Bihotz-biriketako sistemak eta metabolismoak ahalmen aerobikoa lantzearekin duten erlazioa.
- Erregulazio-sistemak gaitasun pertzeptibo-motorrak lantzearekin duen erlazioa.
- Sistema osteo-artikularrak indarra eta mugimenduaren luzera lantzearekin duen erlazioa.
- Muskulu-sistemak indarra eta mugimenduaren luzera lantzearekin duen erlazioa.
- Sistema osteo artikularrak eta muskulu-sistemak muskuluek mugimenduan duten parte-hartzea eta parte-hartze funtzionala aztertzearekin duten erlazioa.
- Egokitzapen akutuak eta beroketa.
- Egokitzapen kronikoak, egokitzapena azaltzen duten legeak, entrenamenduaren printzipioak, esfortzu-dinamika eta egokitzapen fisikoa planifikatzea.

Aipatutako elementu deskribatzaile eta funtzionalak ezinbestekoak dira 8. eta 9. eduki-blokeen funtsezko alderdiak aztertzeko: lesio motak, buxadura kentzeko protokoloa, bihotz-biriketako oinarritzko berpiztea eta lehen eta bigarren mailako balorazioa...etab.. Erlazio horiek aipatu behar dira fase honetan.

b) Egokitzapen fisikoko programak garatzea.

Fase honetan, egoera fisikoarekin eta motorrarekin lotutako edukietan sakontzen da, eta eduki horien ebaluazioa garrantzi handikoa da. Sekuentziazioari dagokionez, 3, 4, 5, eta 6. eduki-blokeetan duten hurrenkerari jarraituko zaio.

c) Istripua izan duen pertsonari lehen laguntzak eta oinarritzko bizi-euskarria ematea, eta hura mobilizatu eta immobilizatzea.

Lehenengo fasean azaldutakoaz gainera, edukien hurrenkera hau gomendatzen da:

- Lehen laguntzak ematearekin lotutako lege-esparrua.
- Lehen laguntzen helburuak; larrialdi-zerbitzuen ardura duten organismo eta erakundeak.
- Eremuaren balorazioa eta babesa, eta bizi-arriskuko egoerak.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa eta bigarren mailakoa.
- Oinarritzko bizi-euskarria, bihotz-biriketako oinarritzko berpiztea, aire- bideak irekitzea eta desfibrilazioa aplikatzea.

- Nola jardun traumatismo, zauri, odoljario eta larrialdiko beste egoera batzuen aurrean.
- Istripua izan duen pertsona mobilizatzea, immobilizatzea eta garraiatzea.
- Lehenengo esku-hartzaileak laguntza psikologoa eta erantzun emozional egokia emateko teknikak, eta nola komunikatu larrialdi-egoeretan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulua egituratzen duten faseetako lehenengoan, irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerak erabiliko dira, nagusiki azalpenak emateko asmoz. Ahalik eta era erakargarrienean aurkeztu behar dira halako edukiak (powerpointeko irudiak, zientzia-dibulgazioko bideoak, arbel digitalean emandako azalpenak, eskemak prestatzea...). Ahalegina egingo da memoriari garrantzi handiegia ez ematen, eta, horretarako, ariketa praktikoak erabiliko dira, azaldutakoa berregitea eta irakatsitako kontzeptuen arteko erlazioa sustatzen dutenak.

Bigarren fasea ikasleen bizipenetan oinarrituko da. Ikasitako kontzeptuek dagokien prozedura-korrelatua izango dute.

Hasieran, irakasleak zuzenduko ditu jarduerak, baina, aurrerago, autonomia progresiboko egoerak sortuko ditu, non ikasleek ardura osoa izango baitute egokitzapen fisikoarekin lotutako alderdi guztietan, gero eta egoera konplexuagoetan eta kasu praktiko zehatzetatik abiatuta antolatutako egoeretan (erabiltzaile-kopurua eta mota, programaren helburua, saioa edo saio-zatia, nolako espazio eta materialak dauden erabilgarri, etab.). Horrenbestez, aginte zuzena eta atazak esleitzea alde batera utzi, eta mikroirakaskuntzan eta lantalde txikietan lan egiten hasiko gara; lantalde horietan, poliki-poliki ikasleen esku utziko da saioak antolatzeko eta zuzentzeko ardura-maila, haien gaitasunaren arabera.

Hirugarren fasean, ikasleek ahalegina egin beharko dute larrialdi-egoeretan ikasitako teknikak aplikatzen, eta, hortaz, garapen praktikoa ezinbestekoa izango da. Hala, egoera ohikoena izango da lehen laguntzetako teknikak modu praktikoan aplikatzea zenbait ezaugarri zehatz dituzten egoeretan. Egoera horietan, zenbait aldaera sartuko dira, adibidez: inplikaturako pertsona-kopurua, pertsonen adina edo ezaugarriak, istripuaren lekua, etab.

Profesionalen jardunak ere aztertuko dira, bideoan, bai eta beste ikaskide batzuenak ere.

Ezinezkoa da modu praktikoan garatzea nola eman lehen laguntzak egoera guztietan (agente fisiko, kimiko eta biologikoen efektuak, eta haien patologia organiko osoa). Hori dela eta, jardun-gaitasun oinarritzkoenak irakatsiko zaizkie ikasleei, hala nola sintomak ezagutzea, laguntza ematen hastea, larrialdiak koordinatzeko zentroarekin telefonoz harremanetan jartzea, informazioa jakinaraztea eta jarraibideak betetzea.

Komunikatzeko eta laguntza psikologikoa emateko teknikekin lotutako edukiak talde-dinamiken bidez garatuko dira, hala nola: rol-joko eta kasu-azterketak.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Ikasleak, gero eta autonomia handiagoa izatea helburu, bere egoera fisikoa, motorra, biologikoa eta motibazionala egoera desberdinetan ebaluatzeko prozesu osoa bizi behar du, irakasleak programaturako saioak eginez eta abiapuntutzat hartuz, geroago programazio propioak egiteko. Alde horretatik, hauek izango dira jarduera garrantzizkoenak:



- Ikaskide-talde bati aurkeztea eta aplikatzea egoera fisikoa, motorra, biologikoa eta motibazionala ebaluatzeko askotariko tresna-multzoa, eta txostenak egitea aipatutako alderdiak ebaluatuta lortutako datuetan oinarrituz, eta, betiere, erabiltzaileari jakinarazi beharreko alderdi garrantzizkoenak hautatuz.
- Egindako ariketen analisia, gorputz-jarreraren higiearen eta helburua lortzeko efikaziaren ikuspegitik. Erabilitako ariketak aztertzeko, muskuluen parte-hartzearen eta analisi mekanikoaren ikuspegia baliatuko da. Azken horiek gidari izango dira, ariketak hautatu eta behar bezala gauzatzeko. Sustatu beharra dago gogoeta egitea egokitzapen fisikoko saioak antolatzeke eta zuzentzeko eta bideoen bidez ebaluatzeko alderdi esanguratsuei buruz, eta aztertu behar da, halaber nola gauzatu dituzten ikaskideek ataza horiek.
- Pulsometroa erabiltzea erresistentzia orokorrarekin lotutako jardueretan. “Bihotz-jarduerako eremuak” finkatzea, eta haiek lotzea zenbait ariketa-erritmorekin, esaterako: lasterketa-, pedaleo- eta igeriketa-erritmorekin. Horretarako, zeharkako estimazio-metodoak erabil daitezke, karbonen metodoa, kasurako. Berebiziko garrantzia du zehazteak zein diren lan aerobikoa egiten duten eremuak, osasun-arloko etengabeko egokitzapenekin lotuta daudenak.
- Elikadura-desoreka posibleak aztertzeko eta neurri zuzentzaileak ezartzea sustatzen duten jarduerak.
- Sustapen-lana egingo da ikasleek informazioa bila dezaten zenbait iturri bibliografikotan edo aplikazio informatikotan, egokitzapen fisikoko programak osatzeko eta aberasteko.
- Istripu batean lehen laguntza ematea simulatzeko jarduerak, eremua babestea eta autobabesa garrantzizkoak direla azpimarratuta.
- Automatismoak ezartzea helburu duten jarduerak bai bihotz-biriketako oinarritzko berpiztearen protokoloa panpinekin gauzatzean, bai desfibriladore automatikoa eta erdiautomatikoa erabiltzean.

4. LANBIDE-MODULUA

GIZARTE- ETA KIROL-ANIMAZIOA PLANIFIKATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarte- eta kirol-animazioa planifikatzea
Kodea:	1137
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-mailakoa
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	40 ordu
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1658_3: Kirol- eta jolas-jarduera fisikoko animazio-proiektuak egitea, kudeatzea, sustatzea eta ebaluatzea.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3 / 4 / 5 / 18 / 19 / 20 / 23 / 25 / 26

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. 1.- Errealitatea aztertzeko metodo, teknika eta tresnak aplikatzen ditu, eta testuinguruan gizarte- eta kirol-animaziorako garrantzitsuak diren aldagaiak bereizten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Gizarte- eta kirol-animazioko proiektua planteatzeko, zehaztu ditu testuinguruko zer alderdi diren aztertzeko interesgarriak.
- Zehaztu du zer teknika erabili informazioa lortzeko esku hartzeko testuinguruan egindako animazio-proiektuei buruz.
- Errealitateko alderdi bakoitzerako eta analisi-une bakoitzerako teknika eta tresna proportzionatuak hautatu ditu.
- Proiektuaren oinarritzat erabiltzeko ondorioak atera ditu, datuen tratamendutik abiatuta.
- Errealitatea aztertzeko esku-hartzearen arrakastan duen garrantzia justifikatu du.
- Informazioa biltzearen eta tratatzearen alderdi etikoak baloratu ditu.



- g) *Komunikazio-teknologiak erabili ditu (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona), informazioa lortzeko tresnak prestatzean.*

2. Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak egiten ditu, testuinguruaren ezaugarriak eta errealitatearen azterketan hautemandako beharrak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Justifikatu du gizarte- eta kirol-animazioko proiektua egokia dela aztertutako testuinguruan.
- b) Animazio-proiektuak edo -programak egiteko ereduak eta teknikak alderatu ditu, eta kirol-jarduera fisikoen esparruan izan ditzaketen aplikazioak aztertu ditu.
- c) Proiektuaren zehaztasun-graduetara eta errealitatearen analisia egitean lortutako emaitzetara doitutako helburuak adierazi ditu.
- d) Estrategia metodologikoak proposatu ditu, helburuen eta testuinguruaren arabera.
- e) Egituratutako fitxategi batean hautatu eta bildu ditu gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan gehien eskatu eta erabiltzen diren kirol-jarduera eta -ekitaldi fisikoak.
- f) Proiektua garatzeko beharko diren etapak sekuentziatu ditu.
- g) Prebentzio- eta segurtasun-neurriak definitu ditu.
- h) Eskatzen den gizarte- eta kirol-animazioko proiektua egiteko behar diren aplikazio-jarraibideak eta alderdiak baloratu ditu.

3. Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak kudeatzen ditu, eta horretarako, instalazioen erabilera planifikatzen du, eta baliabide materialak eta giza baliabideak koordinatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Behar diren materialak zehaztu ditu.
- b) Proiektuaren garapenean inplikaturako pertsonen eta eginkizunen organigrama ezarri du.
- c) Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuaren garapenean esku hartuko duten teknikarien lanbide-profilak esleitu ditu, aintzat hartuta proiektuetan garatu behar diren jarduera-tipologia.
- d) Espazioak eta/edo instalazioak eta baliabide materialak eskuragarri izateko kudeaketa-formulak zehaztu ditu.
- e) Proiektuan inplikatura dauden beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa ezarri du.
- f) Diru-sarrerak, gastuak eta azken balantzea kalkulatu ditu.

4. Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan sartutako jarduerak sustatzeko eta hedatzeko planerako irizpideak prestatzen ditu, eta eskura dauden baliabideak eta lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuko jardueren indarguneak nabarmendu ditu.
- b) Sustapen- eta hedapen-kanpaina bateko oinarritzko elementuak identifikatu ditu.
- c) Jardueren sustapenerako epeak ezarri ditu.
- d) Jarduera bakoitzaren xede diren kolektiboen (pertsona sedentarioak edo kirolariak: gazteak, adinekoak, emakume haurdunak, patologia kronikoak dituzten pertsonak...) ezaugarriak adierazi ditu.

- e) Hedabideek (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona) animazio-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko duten garrantzia argudiatu du.
- f) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona), sustapen- eta hedapen-materialak prestatzeko.
- g) Adierazi du zenbateko aurrekontu-sail ekonomikoa dagoen sustapenerako.
- h) Animazioko proiektuen sustapen- eta hedapen-kanpainak diseinatu ditu, askotariko baliabideak erabilita.

5. Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak ebaluatzen ditu, exekuzio-fase guztietan datuak lortzeko aukera ematen duten adierazleak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Animazio-proiektuak ebaluatzeko teknikak, adierazleak, irizpideak eta tresnak zehaztu ditu.
- b) Ebaluazio-teknikak aplikatzeko uneak zehaztu ditu.
- c) Diseinatutako proiektuetan kalitatea kudeatzeko prozedura orokorrak ezarri ditu.
- d) Programen funtzionamendua optimizatzeko eta horien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitearen beharra argudiatu du.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona), ebaluazio-txostenak eta -memoriak egiteko eta aurkezteko.

c) Edukiak:

1. ERREALITATEA AZTERTZEA GIZARTE- ETA KIROL-ANIMAZIOAREN ARLOAN.	
prozedurazkoak	- Gizarte- eta kirol-animazioko proiektua garatzen den testuingurua aztertzea. - Datuak eta informazioa lortzeko teknikak hautatzea, animazio-proiektuaren diseinuan erabiltzeko. - Informazio-iturri nagusiak eta informazioa eta datuak erregistratzeko sistema nagusiak erabiltzea (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona): behaketa, elkarrizketa, galdeketa, inkesta, dokumentu-bilketa, etab. - Proiektuaren oinarri izateko ondorioak ateratzea, datuen tratamendutik abiatuta. - Komunikazio-teknologiak erabiltzea (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona): informazioa lortzeko tresnak prestatzean, informazioa erregistratzean eta ondorioen txostenean.
kontzeptuzkoak	- Animazioa. Alderdi historiko eta kontzeptualak: • Animazioaren kontzeptuak eta definizioa. • Animazioaren alderdi historikoak eta ebolutiboak. • Gizarte- eta kirol-animazioa, gizarte-animazioaren esparruan. • Olinpiar mugimendua, parte-hartze sozialeko mugimendu gisa. - Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuaren testuingurua: aztertu



	beharreko alderdi eta aldagai garrantzitsuak. Analisiaren arrazoiak. - Errealitatea aztertzeko metodoak, teknikak eta tresnak: • Informazioa eta datuak biltzeko metodoak eta teknikak. • Informazio-iturri nagusiak eta informazioa erregistratzeko sistema nagusiak: behaketa, elkarrizketa, galdetegia, inkesta, dokumentu-bilketa, etab. Informazioaren fidagarritasuna eta baliozkotasuna. • Analisia egiteko eta ondorioak ateratzeko metodoak. - Ondorioen txostena.
jarrerazkoak	- Informazio-bilketaren eta -tratamenduaren alderdi etikoak baloratzea. - Zorroztasuna proiektuan erabili behar diren datuak eta informazioak biltzean eta aztertzean. - Ordena eta txukuntasuna datuak biltzean eta aztertzean.

2. GIZARTE- ETA KIROL-ANIMAZIOKO PROIEKTUAK PROGRAMATZEA ETA DISEINATZEA

prozedurazkoak	- Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak diseinatzea, metodologia egokiari jarraituz. - Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuaren justifikazioa egitea aztertutako testuinguruan (egokitasuna eta mehatxuak). - Proiektuaren zehaztasun-graduetara eta errealitatearen analisia egitean lortutako emaitzetara doitutako helburuak adieraztea. - Proiektuaren egutegia egitea, diseinutik azken ebaluazio edo baloraziora arte. - Estrategia metodologikoak proposatzea, helburuen eta testuinguruaren arabera. - Egituratutako fitxategi batean hautatu eta biltzea gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan gehien eskatu eta erabiltzen diren kirol-jarduera eta -ekitaldi fisikoak. Haien deskribapena. - Proiektuaren fase guztietan egin behar diren ataza eta jarduera guztiak zehaztea eta deskribatzea. - Proiektua garatzeko atazak eta jarduerak sekuentziatzea. - Prebentzio- eta segurtasun-neurriak zehaztea, gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan.
kontzeptuzkoak	- Animazio-proiektuak edo -programak egiteko eredu teorikoak eta teknikak. Kirol-jarduera fisikoen esparruko eskakizunak. - Animazio-proiektuak egiteko eta kudeatzeko faseak. - Animazio-proiektuaren egitura, programak gehitzearen bidez; programak esparru/sektore espezifiko batzuetan txertatzea. - Programazio- eta diseinu-irizpideak: egutegia, proiektuaren onuradunak eta bete beharreko helburuak. Metodologia: atazak eta azpiatalak, jarduera egokienak, erabili beharreko azpiegitura, espazioak eta materialak, etab. - Prebentzio- eta segurtasun-neurriak, gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan.
jarrerazkoak	- Planifikazio- eta programazio-lanak egiterakoan antolatzeke eta kudeatzeko teknikak baloratzea. - Zorroztasuna egin beharreko atazen planifikazioan.

3. GIZARTE- ETA KIROL-ANIMAZIOKO PROIEKTUAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	- Proiektuko ataza edo jarduera bakoitzerako behar diren baliabideak zehaztea eta esleitzea. - Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuaren atazak egiteko baliatu behar diren giza baliabideen lanbide-profila ezartzea. - Espazioak eta/edo instalazioak, baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide ekonomiak eskuragarri izateko kudeaketa-formulak zehaztea. - Proiektuaren garapenean inplikaturako pertsonen eta eginkizunen organigrama egitea. - Proiektuan inplikatura dauden beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa ezartzea. - Proiektuaren aurrekontua egitea: diru-sarrerak, gastuak eta azken balantzea kalkulatzeko.
kontzeptuzkoak	- Proiekturako esleitutako baliabide motak: giza baliabideak, baliabide materialak, instalazioak eta baliabide ekonomikoak. - Giza baliabideak gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan: • Animazio-saila: konfigurazioa eta funtzionamendua. - Baliabide materialak eta espazioak gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan: • Jolas-jardueretako berezko espazioak eta instalazioak: jolas-jardueretako ohiko espazioak, espazio alternatiboak, jolas-jardueretako instalazio eta ekipamendu espezifikoak. • Desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako sarbideak eta zerbitzuak. • Jolas-jardueretarako baliabide materialak: material tradizionalak, material alternatiboak, material birziklatuak. • Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza teknikoak. - Baliabide ekonomikoak: proiektuaren aurrekontua, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-sailak, emaitza ekonomikoa.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna proiektuko atazei baliabideak esleitzean.

4. SUSTAPEN- ETA HEDAPEN-ESTRATEGIAK GIZARTE- ETA KIROL-ANIMAZIOKO PROIEKTUETAN	
prozedurazkoak	- Proiektuko jardueren indarguneak bilatzea eta sustatzea. - Jarduerak sustatzeko epeak ezartzea. - Animazio-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko kanpainak diseinatzea, zenbait eratako baliabideak erabilita (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea sustapenerako eta hedapenerako materialak egiteko (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). - ustapenerako zenbateko aurrekontu-sail ekonomikoa dagoen adieraztea. - Sustapen-ekintzen aurrekontu-kontrolari buruzko txosten bat idaztea.
kontzeptuzkoak	- Publizitatea eta komunikazioa. Haien garrantzia sustapen- eta



	hedapen-elementu gisa. - Sustapen- eta hedapen-kanpaina bateko funtsezko elementuak. - Sustapen- eta komunikazio-teknikak: sustapenaren helburuak. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak animazio-proiektuen sustapenean eta hedapenean: - Sustapen-ekintzak. - Sustapenerako eta hedapenerako aurrekontua. Aurrekontu-kontrola.
jarrerazkoak	- Teknologia berriek gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak sustatzeko duten ahalmena aitortzea. - Komunikazio-trukeen ekarpena (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona) balioestea eta errespetatzea.

5. GIZARTE- ETA KIROL-ANIMAZIOKO PROIEKTUAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	- Diseinatutako proiektuetako kalitate-kontrolerako eta ebaluaziorako prozedura orokorrak ezartzea. - Animazio-proiektuak ebaluatzeko eta kontrolatzeko teknikak, adierazleak, irizpideak eta tresnak hautatzea. - Kontrol- eta ebaluazio-teknikak aplikatzeko uneak zehaztea. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona), ebaluazio-txostenak eta memoriak egiteko eta aurkezteko.
kontzeptuzkoak	- Animazio-proiektuak ebaluatzeko teknikak eta tresnak. Adierazleak eta irizpideak. Atazei eta jardueri buruzko txostenak. - Kalitatearen kudeaketa animazio-proiektuetan. Ebaluazio- eta kontrol-prozedurak. - Informatika-euskarriak informazioaren tratamenduan. - Proiektuari buruzko azken txostena edo memoria.
jarrerazkoak	- Programen funtzionamendua optimizatzeko eta haien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitearen beharra aitortzea. - Hobekuntzak bilatzeko jarrera proaktiboa izatea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Lehenengo egunetan, animazio soziokulturaleko proiektuak helburutzat duen nukleo sozialaren errealitate bereizgarria aztertzeke premia landuko da.

Hasierako azterketarekin lotuta egon behar du gizarte- eta kultura-animazioko proiektuaren diseinu, programazio eta kudeaketaren ordena naturalak. Teknologia berrien erabilera sustatu beharra dago proiektua bultzatu eta hedatzeko estrategia egokienak abian jartzerakoan.

Bi alditan egiaztatuko da zenbateraino bete diren gizarte- eta kultura-animazioko programak: Lehenengoa, prozesu osoan zehar, une oro beharrezkoak diren zuzenketak ezartzeko erreferentzia gisa. Bigarrena, bukaera, aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren egiaztatzeko.

Gomendagarria da zeharka lantzea heziketa-ziklo honetako ataza guzti-guztiak egoki planifikatu beharra.

2) Alderdi metodologikoak

Metodologia aktiboak aplikatzea, ikasteko testuinguru berriarekin bat datozenak: errendimendu handiko zikloak – ETHAZI. Ereduaren ardatz nagusia ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZA da. Erronketan, ebatzi beharreko egoera korapilatsuak planteatzen dira, laneko errealitatearen egoeretatik gertu daudenak, eta, egoera horiek konpontzeko, beharrezkoa da zikloko zenbait moduluren arteko elkarlana, eta, gainera, konpetentzia tekniko eta zeharkakoak aplikatu behar dira, hala nola ikasteko autonomia, talde-lana, emaitza apartak lortzeko orientazioa, etab.

Modulu honetan, bereziki desiragarria eta aberasgarria da ikasleek maila teorikoan diseinatzea eta programatzea gizarte- eta kultura-animazioko programak, eta, horrekin batera, programok abian jartzea, eta maila praktikokoan egiaztatzea jarduketan eraginkortasuna, proiektu erreala batean integratuz arlo kontzeptuala eta prozedurazkoa.

Horretaz gainera, zikloaren irakasle taldeak moduluen arteko koordinazioa landu beharko luke, planifikazio-irizpide orokorrak bateratze aldera, planifikazioaren kontzeptua zeharkakotasun handikoa baita eta ziklo honetako ia modulu guztietan aplikatu beharra baitago.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Errealitatea aztertu.
 - Gizarte- eta kirol-animazioaren aldaera esanguratsuenak eztabaidatzea, bai eta aukeratutako testuingurua ere.
 - Informazioa eskuratzeko tresnak prestatzea. Komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
- ✓ Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak planifikatzea eta kudeatzea.
 - Helburuak zehaztea hasierako azterketan oinarrituta.
 - Fitxategiak prestatzea, gizarte- eta kirol-animazioko proiektuetan gehien eskatzen diren jarduerak jasota.
 - Prebentzio- eta segurtasun-neurriak zehaztea, animazio-proiektuetan.
 - Diru-sarrerak, gastuak eta azken balantzea kalkulatzeko. Haien errentagarritasun ekonomiko eta soziala baloratzea.
 - Diseinatutako proiektuak gauzatzea.
- ✓ Animazio-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko plana.
 - Proiektuaren indarguneak zehaztea.
 - Sustapen- eta hedapen-kanpaina bateko oinarritzko elementuak identifikatzea.
 - Teknologia berriak erabiltzea sustapen- eta hedapen-kanpainetan.
- ✓ Gizarte- eta kirol-animazioko proiektuak ebaluatzea.
 - Animazio-proiektuak ebaluatzeko irizpideak eta tresnak zehaztea.
 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea ebaluazio-txostenak eta memoriak prestatzeko eta aurkezteko.



5. LANBIDE-MODULUA

ANIMAZIO-TURISTIKOKO JOLASAK ETA JOLAS-JARDUERA FISIKOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduera fisikoak
Kodea:	1138
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-mailakoa
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1659_3: Kirol-jarduera fisikoen animazioko eta jolas-animazioko ekitaldiak, jarduerak eta jokoak antolatzea eta dinamizatzea erabiltzaile mota guztientzat. UC1094_3: Animazio turistikoko jarduera ludikoak eta jolas-jarduera fisikoak antolatu eta garatzea. UC1095_3: Animazio turistikorako eta jolas-animaziorako kultura-jarduerak antolatzea eta garatzea. UC1096_3: Animazioa helburu duten gau-jaialdiak eta ikuskizunak antolatzea eta garatzea.
Helburu orokorrak:	6 / 7 / 9 / 10 / 12 / 15 / 16 / 19

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Animazio turistikorako gau-jaialdiak eta kultura-jarduerak programatzen ditu, bai eta jolasak eta kirol- eta jolas-jarduera fisikoak ere, haiek denek testuinguru desberdinetan izan ditzaketen egokitzapenak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak diseinatzean, ingurumen-faktoreak eta urte-sasoiarekin lotutakoak kontuan hartu ditu.

- b) Jarduerak diseinatzean, kontuan hartu ditu erabiltzaile-talde guztien (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetako praktikatzaileak) ezaugarriak, beharrak eta interesak.
- c) Jardueren sekuentziazioa egitean, irizpide fisiologikoak eta motibaziokoak baliatu ditu.
- d) Baliabideen azterketa eta banaketa egin ditu, haiek optimizatzeko eta ahalik eta parte-hartzea handiena ahalbidetzeko.
- e) Jardueren sustapena eta publizitatea egiteko teknika eta estrategia espezifikoak diseinatu ditu.
- f) Pertsonekin, baliabide materialekin, espazioekin eta ingurunearekin lotuta gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikusi ditu.
- g) Bere ardurapeko arloari dagokion segurtasunerako eta arrisku-prebentziorako protokoloa prestatu du.

2. Animazio-jarduerak garatzeko baliabideak eta bitartekoak antolatzen ditu, parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetako praktikatzaileak) ezaugarri eta interesetarako egokitzapenak baloratuta, eta erreferentziazko proiektuan adierazitako irizpideak aintzat hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laguntza- eta kontsulta-baliabide guztiak hautatu ditu: digitalak, informatikoak, bibliografikoak diskografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste.
- b) *Espazio eta instalazioen segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ezarri ditu, parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetako praktikatzaileak) beharretara egokitzeko eta jarduerak egitean lesio-eta/edo istripu-arriskuak murrizteko.*
- c) Erabili behar diren ekipoak eta materiala ikuskatu eta, hala behar izanez gero, egokitu ditu, jarduera gozamen- eta segurtasun-baldintza ezin hobeetan egiten dela ahalbidetzeko.
- d) Jarduera motarako giro eta motibazio egokia sortzeko behar diren girotze- eta dekorazio-elementu eta -xehetasunak hautau ditu.
- e) Materialaren kokapen eta antolaketa egokia hautatu du, egin behar diren jardueren arabera, eta materiala biltzea aurreikusi du, erabilera-baldintza onenetan gordeko dela bermatzeko.
- f) Teknikari, profesional eta animatzaile guztien jarduna koordinatzeko protokoloak diseinatu ditu, jarduera egitean gerta daitezkeen gorabehera oro konpontzeko.
- g) Parte-hartzaileek jarduera egiteko eraman behar dituzten jantziak eta material pertsonala adierazi ditu, jantziak eta materialak egin behar den jarduera zehatzerako egokiak direla bermatzeko.
- h) Bere erantzukizun-arloko segurtasunarekin eta arrisku-prebentzioarekin lotutako bitartekoak eta baliabideak ikuskatu ditu lekuan bertan, erabilera- eta operatibotasun-egoera onean daudela egiaztatuta.

3. Ekitaldiak, jolasak, kirol- eta jolas-jarduera fisikoak gidatzen eta dinamizatzen ditu, animazioaren arloko berezko metodologia erabiliz, eta parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetako parte-hartzaileak) segurtasuna eta gogobetetasuna bermatuz.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Komunikazio-teknika espezifiko egokiak eta egokituak erabili ditu, bai eta horretarako baliabide digitalak ere, saioaren hasieran eta amaieran, motibazioa, parte-hartzea eta iraunkortasuna lortzera bideratuak.
- b) Ingurunearen, instalazioen eta jarduera egitean erabili behar den materialaren ezaugarriei buruz dagokion informazioa transmititu du, jarduera egitean segurtasuna eta gozamena bermatzeko, parte-hartzaileen konfiantza lehen unetik sustatuz.
- c) Zenbait ataza motor nola egin behar diren erakutsi du, haien alderdi garrantzitsuak nabarmenduta, gerta daitezkeen exekuzio-akatsak aurreikusita eta zenbait informazio-kanal erabilita jarraibideak ulertu direla ziurtatzeko.
- d) Parte-hartzaileen desinhibizioa errazten duen metodologia erabili du, pertsona arteko harremanak eta haien inplikaziorik handiena sustatuta.
- e) Intentsitate- eta zailtasun-maila parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitu du: haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokituetao praktikatzailleak.
- f) Detektatutako exekuzio-akatsak tokian bertan eta egoki zuzendu ditu, eta akatsak eragin ditzaketen kausetan esku hartu du.
- g) Asertibitate-estrategiak erabili ditu, jardueraren garapena eta harreman-giroa nahasten dituzten portaerak birbideratzeko.
- h) Komunikazio eraginkorra eta parte-hartzaileen kontrola izateko eta gorabehera aurrea hartzeko leku egokian jarri da.

4. Gau-jaialdiak eta ikuskizunak zuzentzen ditu, eta haietan, talde-komunikazioko eta -dinizazioko teknikak erabiltzen ditu parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetao praktikatzailleak) gogobetetasuna bermatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gau-jaialdiaren edo ikuskizunaren aurkezpena eta agurra egin ditu, bertaratutako ikus-entzuleen ezaugarrietara (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetao praktikatzailleak) egokituetao komunikazio-estrategiak erabilita, haien interesa piztuta eta haien arreta suspertuta.
- b) Aurreikusitako gidoia eta zehaztutako denborak eta etenaldiak errespetatu ditu, gau-jaialdiaren zirkunstantzia eta gorabeheretara egokituta.
- c) Ezusteko gorabeherak naturaltasunez eta gustu onez konpondu ditu.
- d) Efikaziaz erabili ditu materialak, gailuak, ekipoak eta baliabide digitalak, haien iraunkortasunaren eta funtzionamendu onaren alde eginda.
- e) Komunikazio- eta motibazio-teknikak erabili ditu gau-jaialdian.
- f) Segurtasun-neurri espezifikoak aplikatu ditu jarduera gauzatzean.

5. Animazio-turistikoko kultura-jarduerak gidatzen eta dinamizatzen ditu, animazioaren arloko berezko metodologia erabiliz, eta parte-hartzaileen gozamena bermatuz: –haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokituetao praktikatzailleak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jardueraren eta inguruneke gizarte- eta kultura-errealitatearen arteko lotura azaldu du.
- b) Parte-hartzaileei jardueraren helburuei, edukiei eta prozedurei buruzko informazioa eman die, behar diren baliabide egokiak eta egokituak erabiliz.
- c) *Jarduera parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitu du: haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta/edo jarduera egokituetao praktikatzailleak.*

- d) Erakutsi du nola egiten diren trebetasunen baten aplikazio praktikoa gauzatzea eta material edo tresna espezifikoren bat erabiltzea eskatzen duten jarduerak.
- e) Jarduerak egitean izandako exekuzio-akatsak tokian bertan eta egoki zuzendu ditu.
- f) Jarduerak antolatzeke eta taldeak banatzeko teknikak erabili ditu, taldeen animazio- eta dinamizazio-printzipioekin bat etorritik.
- g) Behar diren ekipo eta materialak erabili ditu, haien iraunkortasun eta errentagarritasun handieneko irizpideak kontuan hartuta.
- h) Jarduera garatzean sortu diren gorabeherak modu konstruktiboan konpondu ditu.

6. Animazio-jardueren garapena eta emaitzak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, haien egokitasuna eta ezarritako helburuekiko bat-etortzea baloratzeko tresna egokienak erabiltzen ditu, bai eta parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta/edo egokitutako jardueren praktikatzaileak) gogobetetasun-maila baloratzekoak erabiliz ere.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Animazio turistikoko jardueren egokitasuna ebaluatzeke teknikak eta tresnak aplikatu ditu, bai eta jarduera horiek ezarritako helburuekiko eta parte-hartzaileen ezaugarriekiko (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta/edo egokitutako jardueren praktikatzaileak) zenbateraino datozen bat ebaluatzeke ere.
- b) Jarduera osatzen duten elementuak ebaluatu ditu.
- c) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteke.
- d) Txosten bat egin du, prozesu osoan sortutako informazioa erabiliz.
- e) Hobekuntza-proposamenak egin ditu, prozesu osoaren ebaluazioan bildutako informazioa eta ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.

c) Oinarrizko edukiak:

1. GAU-JAIALDIAK, KULTURA-JARDUERAK, JOLASAK ETA JOLAS-JARDUERA FISIKOAK PROGRAMATZEA	
prozedurazkoak	- Helburu orokorrak definitzea, eta edukiak eta metodologia hautatzea. - Kultura-jarduerak, jolas-jarduera fisikoak eta jolasak hautatzea. - Jarduerak sekuentziatzea. - Behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak aztertzea. - Jarduerak sustatzeko eta publizitzeko estrategia eta teknika espezifikoak diseinatzea, baliabide digitalak eta informatikoak erabiliz, besteak beste. - Egon daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikustea. - Bere ardurapeko arloari dagokion segurtasunerako eta arrisku-prebentziorako protokoloa egitea. - Jolas-jarduera fisikoetako, kultura-jardueretako eta jarduera turistikotako animazio-saioak erregistratzea.
kontzeptuzkoak	- Animazio turistikoa xede duten kirol- eta jolas-jarduera fisikoko ekitaldiak garatzeko inguruneak eta testuinguruak, bai eta kultur-arloko jarduera eta gau-jaialdiak garatzekoak ere. Ezaugarriak: • Hirietakoak: hezkuntza-zentroak, klubak, elkarteak, geriatriakoak, ludotekak, kiroldegia, beste kirol-instalazio publiko eta pribatu batzuk. • Turistikoak/opor-arlokoak: koloniak, kanpamenduak, hotelak,



	herri-jaiak, jai tematikoak eta kulturalak. • Natura-inguruneak: uretako, lehorreko eta aireko ingurunea. - Animazio-jardueretako xede-kolektiboak. Interesak eta beharrak: • Haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta/edo jarduera egokitueta parte-hartzaileak. • Desgaitasunen bat duten pertsonak. • Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak. • Familiak. • Turistak. • Beste kolektibo batzuk. - Programatutako jardueraren sustapena eta publizitatea egiteko teknikak: • Kartelak, diptikoak, liburuxkak, iragarki-taulak. • Iragarkiak irratan, telebistan, prentsa idatzian. • Web orriak, e-mailak, mezuak sakelako telefonoetara. - Segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako protokoloak. Beste profesional batzuekin koordinatzea. - Gau-jaialdiak, kultura-jarduerak, jolasak eta jolas-jarduera fisikoak programatzean hautatu behar diren baliabide zehatzak, aintzat hartuta ingurunea, enpresa-eskaria edo beste irizpide batzuk. Besteak beste: - Jolasa: • Jolasaren kontzeptua. Hurbilketa terminologikoa. • Jolasari buruzko teoriak. • Jolasaren funtzioak (dibertimendua, etab.) eta hezkuntza-balioa. • Jolasa eboluzio-etapetan. • Jolasa erabiltzea testuinguru desberdinetan. • Jolasen zenbait sailkapen. - Jolas motorrak. Barne-logika. Jolasaren egiturazko elementuak. Motak: • Psikomotorrak • Soziomotorrak: - o lankidetzakoak - o oposiziokoak - o lankidetzak-oposiziokoak - Jolas sentsomotorrak. - Jolas-saioa. Saioaren egitura. Prestatzean kontuan hartu beharreko irizpideak: • Koherentzia fisiologikoa eta afektibo-soziala. • Helburuekiko lotura. • Aldagarritasuna jolas motetan. • Proportzionaltasuna, ataza motorreko mekanismoek parte-hartzen dutenean. • Antzekotasuna antolatzen. - Natura-inguruneak jolasak eta jolas-jarduera fisikoak. • Logistika. • Izan behar dituzten ezaugarriak: globaltasuna, jasagarritasuna, harmonia, eta ingurunearekiko errespetua. • Sailkapenak: - o ingurunearen arabera (lehorrekoak, uretakoak, airekoak). - o urtaroen arabera (negukoak, udakoak). - Jolas-jarduera fisikoak animazio-esparru eta -testuinguru desberdinetan. Jolasa eta "guztiontzako kirola", jolas-jarduera fisikoak musikaren laguntza erabiliz (aerobika, saloi-dantzak, Karibeko dantzak, dantza modernoa, etab.). - Jolasetako eta jolas-jarduera fisikoetako ekitaldiak. • Herri-lasterketak. • Maratoiak. • Erakustaldiak eta hitzaldiak.
--	---

	• Jolas-lehiaketak. • Herri-ibilaldiak eta -lasterketak. • Kirol-lehiaketak eta -txapelketak. • Kirol-topaketa ludikoak. • Beste ekitaldi eta jarduera batzuk, testuinguruaren, ingurunearen eta abarren arabera. - Gau-jaialdiak eta ikuskizunak animazio-proiektu baten testuinguruan: • Helburuak. • Motak: parte hartzeko festak, ezaugarri bereziko festak, lehiaketak, musikalak, emanaldiak, kanpo-showak, beste batzuk. • Programazio-teknikak. • Gidoiak egiteko irizpideak. • Sailkapenak: - o Xede-kolektiboaren arabera. - o Behar den parte-hartze motaren arabera (aktiboa, pasiboa edo partekatua). - o Ikuskizun motaren arabera (lehiaketak, parte hartzeko festak, musikalak, ezaugarri bereziko festak eta kanpo-showak). - Kultura-jarduerak eta baliabideak, Euskadiko herri-jaien eta animazio turistikoaren esparruan: • Kultura-erakusketak, mintzaldiak. • Puzgarriak eta haur-tailerrak: aurpegiak margotzea, girgilak, globoflexia, gatz-botilak, marrazkiak, etab. • Lehiaketak: gastronomia, playback, dantza, mozorroak, pintura, argazkilaritza. • Herri-bazkariak. • Erakustaldiak: herri-kirolak, euskal dantzak. • Euskal pilotako partidak, traineruak. • Jolas tradizionalak eta bertakoak. • Kalejirak, erromeriak, erraldoiak eta buruhandiak. • Antzerkia eta zinema aire zabalean. • Musika-emanaldiak: bertsolaritza, abesbatzak, jotak, habanerak, Mexikoko kantak... • Herri-dantzaldiak: kontzertuak, berbenak. - Beste baliabide batzuk, ingurunearen, testuinguruaren eta abararen arabera.
jarrerazkoak	- Izaera ludikoa baloratzea animazio-programetan. - Zorroztasuna jolas-jardueren logistikan eta planifikazioan. - Gizarte- eta kirol-animazioko testuinguruak ikertzeko eta ezagutzeko interesa izatea.

2. ANIMAZIO-JARDUERAK EGITEKO BALIABIDEAK ETA BITARTEKOAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	- Laguntza- eta kontsulta-baliabide guztiak hautatzea: informatikoak, bibliografikoak, diskografikoak, ikus-entzunezkoak, besteak beste. - Jolasen eta jolas-jarduera fisikoen fitxategi bat egitea, honako hauen arabera sailkatuta: adina, instalazioa, materialak, eraginak, arauak, aldaerak, etab. - Jolas-ekitaldiak, lehiaketak, ekitaldi sozialak eta abar antolatzea. - Giro eta motibazio egokia sortzeko behar diren girotze- eta dekorazio-elementu eta -xehetasunak hautatzea. - Materiala egoki kokatzea eta antolatzea, egin behar diren jardueren arabera, eta materiala biltzea aurreikustea.
----------------	--



	- Teknikari, profesional eta animatzaileen jardunerako koordinazio-protokoloak diseinatzea. - Parte-hartzaileek eraman behar dituzten jantziak eta material pertsonala adieraztea. - Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzea animazioaren eta jolas-jardueren sektorean. - Erabiliko diren instalazioetarako eta materialerako irisgarritasun-baldintzak gainbegiratzea. - Segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako protokoloekin lotutako bitartekoak eta baliabideak lekuan bertan ikuskatzea.
kontzeptuzkoak	- Inguruneko kultura-baliabideak. Hautatzeko eta aztertzeko informazio-iturriak: • Kontsultak turismo-bulegoetan, interesguneetan. • Internet. • Bibliografia. • Beste kultura-baliabide batzuk. - Jolasen fitxa eta fitxategia. Egitura eta diseinua. Fitxa baten atalak: • Jolasaren izena. Gai-blokea. • Joko mota. • Adina, espazioa, materiala. • Jolasaren eraginak. • Adierazpen grafikoa. • Jokoaren garapena. • Arauak eta aldaerak. - Animazio-jarduerak zenbait testuingurutan garatzeko espazioak eta instalazioak: • Hirietan: plazak, parkeak, kirol-zelaiak, patioak, kiroldegiak, gimnasioak,... • Turismo- eta natura-inguruneetan: hondartzak, xendak, ibaiak, mendiak, aterpetxeak, hotelak, besteak beste. - Animaziorako materialak: ezaugarriak, erabilera eta aplikazioa zenbait testuingurutan, erabilera-protokoloak, antolatze eta banatzeko irizpideak. - Materialen mantentze-lanak egiteko eta materiala biltegitratzeko teknikak: inbentarioa, gainbegiratzea, materialen kokapena, biltegitratze- eta kontserbazio-baldintzak. - Animazio-jarduera antolatze teknikak. Aurreikusitako helburuetara, parte-hartzaileen ezaugarri eta espektatibetara, testuingurura, erakundearen irizpideetara eta abarrera doitzea. - Protokolozko ekintzak animazioaren testuinguruko ekitaldi handietan. Pertsonala eta jarduerak koordinatzeko sistemak. - Muntaia bat errealizatu eta ekoizteko etapak: eszenografia, argiak, soinua eta efektu bereziak. Dekoraziorako oinarritzko materialak. Errotulazioa eta grafismoa. - Taldeen tutoretzarekin lotutako erantzukizunari eta erantzukizun zibilar buruzko araudia eta legedia. - Instalazio turistikoen eta kirol-instalazioen segurtasunari buruzko araudiak eta legedia: irisgarritasuna, espazioak, instalazioak, ekipoa, materiala, segurtasun-protokoloekin eta arriskuen prebentzioarekin lotutako baliabideak.
jarrerazkoak	- Segurtasuna animazio-jardueretarako baliabideak antolatze oinarritzko printzipioa dela aintzat hartzea. - Instalazioak, ekipamenduak eta materialak egoki erabiltzeko beharraz ohartzea. - Jarrera proaktiboa izatea jardueretan erabiltzen den materiala

kokatzean eta biltzean.

3. EKITALDIK, JOLASAK ETA KIROL- ETA JOLAS-JARDUERA FISIKOAK GIDATZEA ETA DINAMIZATZEA

prozedurazkoak	- Komunikazio-teknika espezifikokoak erabiltzea jardueraren hasieran, jardura egin bitartean eta bukaeran, motibazioa, parte-hartzea eta atxikipena lortze aldera, mota guztietako baliabideak erabiliz (digitalak eta informatikoak, besteak beste). - Erabili beharreko materialen eta instalazioen ezaugarriak buruzko informazioa transmititzea. - Talde orekatuak eratzea eta espazioa eraginkortasunez erabiltzea. - Erakustea nola egiten diren jardura motorrak, eta egiaztatzea erakutsitakoa ulertu dela. - Parte-hartzaileen desinhibizioa sustatzen duten metodologiak erabiltzea. - Pertzepzioekin, erabakiekin edo exekuzioarekin lotutako zailtasunak detektatzea: kausen gainean esku hartzea. - Asertibitate-estrategiak erabiltzea, jardueraren garapena eta harreman-giroa asaldatzen dituzten portaerak birbideratzeko. - Leku egokia hartzea, komunikazio eraginkorra eta parte-hartzaileen eta gorabeheren kontrola izateko.
kontzeptuzkoak	- Animatzailearen eginkizuna jolasen eta kirol- eta jolas-jardura fisikoen saioetan eta ekitaldietan: jolasak eta ekitaldiak antolatu, gidatu, dinamizatu, kontrolatu eta animatzen ditu. - Jolasei eta jolas-jardura fisikoei behatzeko eta haiek erregistratzeko irizpideak: • Saioaren giroa. • Praktika-denbora. • Jardueren espezifikotasuna. • Asimilazio-mailak. - Kirol-jardura fisikoen animaziorako eta jolas-animaziorako metodologia: bilaketa-metodoak, estrategia globalak, estilo liberalak, gorabeheren kontrola, dibertsitatea aintzat hartzea, etab. - Jolas motorretara aplikatutako zuzendaritza- eta dinamizazio-metodoak, adin bakoitzerako eta kompetentzia motorra, kognitiboa, afektibo-soziala nahiz kultura-transmisioa garatzeko: • Herri-jolasak, jolas tradizionalak eta bertako jolasak. • Kirol-jolasak. • Jolas sentsomotorrak. • Adierazpenak eta erritmoa lantzeko jolasak. • Lankidetzak-jolasak. • Jolas alternatiboak. • Beste jolas batzuk. - Gidaritza- eta dinamizazio-metodoak jolas-jardura fisikoetara aplikatuta: • Musikaren laguntza erabiliz egiten diren jolas-jardura fisikoak. • Ongizatearekin eta erlaxazioarekin lotutako jarduerak. • Akromuntaketak, zirku-jarduerak. • Skatea, patinak, parkourra, etab. - Gidaritza- eta dinamizazio-metodoak natura-inguruneke jolasetara eta jolas-jardura fisikoetara aplikatuta: • Lurrekoak: orientazio-jokoak, arrasto- eta miaketa-jokoak, espazio ireki handietan egunez eta gauez egitekoak, orientazio-krosak, ginkanak, estrategia-joko handiak. Mendi-ibiliak,



	zikloturismoa, multiabentura, eskalada, rappela, tirolina, zaldi-ibiliak. Beste batzuk. • Uretakoak: surfa, kanoak, bela, snorkela, <i>stand up paddela</i>, raftinga. • Airekoak: puentinga, parapentea, etab. • Negukoak: eskia, <i>snowa</i>, etab. - Jolasetako eta jolas-jarduera fisikoetako ekitaldiak antolatzeke metodoak. Parte-hartzeke oinarritzko informazioa: ordutegiak, izen-ematea, arauak eta erregelamenduak, joko- eta lehiaketa-sistemak.
jarrerazkoak	- Inplikazioa eta asertibitatea izatea, parte-hartzea eta ikaskuntza errazten duen giroa sortzeko. - Ahozko eta keinu bidezko komunikaziorako gaitasuna baloratzea, jolasaren funtzionamendurako oinarri gisa. - Parte-hartzearen denbora handitzeko aukera eman dezaketen aldaeren behaketa eta sorrera.

4. GAU-JAIALDIK ETA IKUSKIZUNAK GARATZEA

prozedurazkoak	- Gau-jaialdien edo ikuskizunen aurkezpena eta agurra. - Ezusteko gorabeherak konpontzea. - Era guztietako materialak, gailuak eta ekipoak erabiltzea, baliabide informatikoak eta digitalak barne hartuta. - Komunikazio- eta motibazio-teknikak erabiltzea gau-jaialdian. - Gau-jaialdien eta ikuskizunen garapena gainbegiratzea. - Segurtasun-neurri espezifikoak aplikatzea jarduera gauzatzean. - Koreografia eta emanaldi errazak sortzea.
kontzeptuzkoak	- Aurkezle onaren aurkezte-teknikak eta ezaugarriak. Ahozko eta keinuzko komunikaziorako teknikak. Animatzaile <i>show mana</i> eta animatzaile <i>show womana</i>. - Gorputz-adierazpeneko eta antzezpeneko teknikak: ezaugarriak eta aplikazioa. Ahozko adierazpeneko teknikak eta mikrofonoa erabiltzekoak. - Teknika eszenografikoak eta espazioen dekorazioa: • Eszenaratzea, hizkera grafikoa eta ikusmintzaira, eszenarako teknologia digitala, oholtzak eraikitzeke materialak, dekoratueterako egiturak. • Teknika eszenografikoetako eta dekorazioko hornitzaileak. - Makillaje- eta karakterizazio-teknikak. • Aurpegi- eta gorputz-makillajea. • Makillaje artistikoa eta fantasiatzkoa. • Hiru dimentsioko karakterizazioa eta makillajea. • Jantziak, oinetakoak, orrazkera, ordezkioak, osagarriak, etab. • Makillaje- eta karakterizazio-tekniken hornitzaileak. - Gau-jaialdietan eta ikuskizunetan esku hartzeke metodologia: esku-hartzearen faseak Taldearen analisisa. Gorabeheren kontrola. Animatzaile <i>show manaren</i> eta animatzaile <i>show womanaren</i> eginkizunak. Baliabide metodologikoak. Talde-lana. - Dantzak, koreografiak eta abestiak, gau-jaialdien eta ikuskizunen zuzendaritzara aplikatuak: • Haur-dantzak. • Abesti koreografiatuak. • Imitazioak.

	• Karaokea. • Playback-lehiaketa, etab. - Material txikiekin egindako jarduerak, gau-jaialdien eta ikuskizunen zuzendaritzara aplikatuak: • Globoflexiako eta papiroflexiako oinarritzko teknikak. • Malabarrak. • Magia - Animazio-jolasak, etab.
jarrerazkoak	- Izu eszenikoa gainditzea. - Zorroztasuna aurreikusitako gidoia betetzerakoan, bai eta zehaztutako denborak eta etenaldiak betetzerakoan ere.

5.- ANIMAZIO TURISTIKOKO KULTURA-JARDUERAK GIDATZEA ETA DINAMIZATZEA

prozedurazkoak	- Jardueretarako deialdia eta haietan parte hartzen duten pertsonen izen-ematea egitea. - Kultura-jarduerak aurkeztea animazio turistikoaren esparruan, jarduera horiek parte-hartzaileen interesguneekin eta ingurunearekin lotuta. - Parte-hartzaileei informazioa ematea jardueraren helburuei, edukiei eta prozedurei buruz, behar diren baliabideak erabiliz (baliabide digitalak eta informatikoak, besteak beste). - Jarduera egokitzea parte-hartzaileen ezaugarrietara. - Trebetasunen baten aplikazio praktikoa zuzen gauzatzea eta material edo tresna espezifikoren bat erabiltzea eskatzen duten jarduerak egiteko modua erakustea eta zuzentzea. - Jarduerak antolatzea eta taldeak banatzea, taldeen animazio- eta dinamizazio-printzipioekin bat etorritik. - Jarduerak egiteko behar diren ekipoak eta materialak erabiltzea. - Jarduera garatzean sortu diren gorabeherak modu konstruktiboan konpontzea. - Kultura-tailer eta -jarduera errazak egitea.
kontzeptuzkoak	- Animazio turistikoko animatzailearen eginkizunak kultura-jardueretan: deialdiak; izen-emateak; pertsonak eta espazioak koordinatzeko metodoak; jardueren antolaketa, animazioa eta dinamizazioa. - Kultura-jarduerari behatzeko eta haiek erregistratzeko irizpideak: • Sortutako giroa. • Parte-hartzaileen kopurua. • Gogobetetze-maila. • Lortutako helburuak - Kultura-jardueren animazioaren metodologia: teknikari animatzailearen estrategiak eta jarrerak, taldeko elkarerraginean dinamizatzeko eta motibatzeak. - Gidaritza- eta dinamizazio-metodoak, inguruko edo Euskadiko animazio turistikoaren esparruko kultura-baliabideei aplikatuta: • Bertako joko eta kirolak (euskal jokoak, herri kirolak, euskal pilota, bola-jokoa,...). • Zaindarien jaiak, herri-jaiak, jai tematikoak, Gabonetako jaiak... • Tokiko folklorea, eskualde-dantzak (euskal dantzak). • Nekazaritza- eta abeltzaintza-azokak... • Erdi Aroaren giroko merkatuak, erromatarren garaiko giroko merkatuak...



	• Herri-ohiturak. • Ondare historiko-artistikoa: • Errituak eta kondairak. • Gastronomia.
jarrerazkoak	- Herri-jokoak eta -jarduerak balioestea, tradizio kulturala gordetzeko bitarteko gisa. - Zorroztasuna animazio turistikoko kultura-jarduerak antolatzean.

6. ANIMAZIO-JARDUEREN EBALUAZIOA

prozedurazkoak	- Animazio-jarduerak ebaluatzeko teknika eta tresna espezifikoak aplikatzea. - Jardueraren konfigurazio-elementuak, eta haren prozesu nagusiak eta emaitzak ebaluatzeko, tresna espezifikoak erabiliz. Alderdi hauek, besteak beste: • Erabilitako espazioak. • Instalazioak. • Tresneria eta materiala. • Inplikaturako langileak. • Jardueraren garapena. • Elementu osagarriak eta laguntzaileak. • Parte-hartzearen, ikaskuntzaren eta gozamenaren maila. • Parte-hartzaileen gogobetetasun-maila. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. - Ebaluazio-txostenak egitea, prozesu osoan sortutako informazioa erabiliz. - Hobekuntza-proposamenak hautematea eta egitea, ebaluazioan bildutako informazioa eta ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.
kontzeptuzkoak	- Animazio-jardueretako prozesuak eta emaitzak ebaluatzeko irizpideak. - Animazio-jarduerak bakoitzerako ebaluazio-tresna espezifikoak diseinatzeko teknikak. Besteak beste, honako hauek diseinatzeko: • Ohar-egunkaria. • Gogobetetasun-inkestak. • Behaketa-fitxak. • Erregistratze-txantiloia. • Elkarriketa parte-hartzaileekin. • Pertsonal arduradunaren bilerak. • Kanpo-behatzaileak. - Animazio-jardueren emaitzei eta ebaluazioari buruzko txostenak: oinarritzko edukiak, ondorioak, etab. Ebaluazio-txostenak egiteko teknikak.
jarrerazkoak	- Autoebaluazioa eta etengabe hobetzeko jarrera baloratzea. - Lankideek eta erabiltzaileek egindako iradokizunak aintzat hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Ikasleak, modulu hau bukatutakoan, gai izan behar du jolasak, ekitaldiak, jolas-jarduera fisikoak, gau-jaialdiak eta animazio turistikoko kultura-jarduerak programatzeko, antolatzeke, gidatzeko, dinamizatzeko eta ebaluatzeke.

Lehenengo fasean, jolas-fitxategiaren diseinua, atalak eta hura prestatzeko jarraibideak aztertuko dira, han jasota gera daitezen moduluan egiten diren jolas eta jarduera guztiak. Fase honetan, halaber, jolasaren inguruko joera teorikoak erakutsiko zaizkie ikasleei, sailka ditzan, haien egitura azter dezan eta eboluzio-etapetan koka ditzan.

Bigarren fasean, komenigarria da ikasleak jolas motorren saioak egitea, programatzea, zuzentzea, antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea: taldea aurkeztu eta ezagutzea; sinbolikoak; jazarri eta harrapatzeak; tradizionalak; kirol-jolasak; sentsomotorrak; adierazpenak, erritmoa eta elkarlana lantzeak; alternatiboak, eta jolas handiak, besteak beste.

Hirugarren fasean, sekuentziazio honi jarraitzea gomendatzen da:

- Jolas-jarduera fisikoak programatzea, gidatzea eta dinamizatzea.
- Jolas- eta olgeta-ekitaldiak programatzea eta antolatzea.
- Gau-jaialdi, ikuskizun eta herri-jaiak programatzea eta gidatzea, animazio turistikoko kultura-jarduerak txertatuta.

Aldi berean, ingurune-naturalean jolasak eta jolas-jarduera fisikoak irakatsi eta ikasteko prozesua gauzatuko da, klimaren eta urtaroaren arabera (uda edo negua).

Azkenik, jarduera bakoitza irakasteko prozesuan eta zeharka unitate didaktiko guztietan irakatsiko dira animazio-jardueren garapenaren ebaluazioarekin eta emaitzekin lotutako edukiak.

2) Alderdi metodologikoak

Bizipenetan oinarritzen da modulu hau, gehien bat, eta, ildo horretatik, komenigarria da ikasleek jolasak eta jolas-jarduera fisikoak egitea, hasiera batean irakasleek zuzenduta, eta, aurrerago, ikaskideek berek zuzenduta. Jolas bat praktikatzea lagungarria da hura ikasteko eta irakasteko. Zenbait praktika egiterik ez duten pertsonak eginkizun hauek izango dituzte: jolasaren oharrak jaso eta hura aztertzea, animatzaileari laguntzea, haren lana baloratzea eta hobekuntzak proposatzea.

Animazio-eginkizuna betetzeko, ikasleek ezagutzen duten jolas bat zuzenduko dute, bakarka; geroago, binaka, jarduera koreografiatu baten progresioa aurkeztuko dute ikaskuntzarako; eta, kurtsoaren amaieran, taldeka, saio-eredu oso bat gidatuko dute, arlo hauetan prestatu duten proiektua erabilia: jolasak, ekitaldiak, gau-jaialdiak, ikuskizunak edo herri-jaiak.

Bestalde, gomendagarria da esperientzia lortzea eskola-kiroleko talderen bati jolasak irakatsiz, eta ikastetxeko gainerako ikasleentzat jolas-jarduerak dinamizatzuz, esaterako: jolas-orduak animatzea, ikastetxeko Gabonetako jaian jolasak eta jolas-jarduerak antolatzea, Euskal Jokuetan kirol-ekitaldiak zuzentzea, Euskararen Eguna, Korrikaren kanta erabilia koreografiak sortu eta irakastea eta Kultura-astean jarduera fisiko eta kulturalak egitea, besteak beste. Laburbilduz, ikaskuntzako metodologia aktiboak aplikatzea sustatzen da, eta, zehatzago esanda, erronketan oinarritutako elkarlaneko



ikaskuntzak. Erronketan, ebatzi beharreko egoera korapilatsuak planteatzen dira, laneko errealitatearen egoeretatik gertu daudenak, eta, egoera horiek konpontzeko, beharrezkoa da zikloko beste modulu batzuekin elkarlanean jardutea. Hartara, konpetentzia teknikoez gainera, zeharkako konpetentziak ere garatuko dituzte ikasleek, horretarako jasota baitaude lanbide heziketako planaren barruan, hala nola: autonomia pertsonala, talde-lana, inplikazio pertsonala, konpetentzia digitalak, komunikazioa... Gainera, beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dituzte desgaitasuna duten pertsonen eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboen gizarte-inklusiurako.

Klase praktiko horietako zenbait ingurune naturalean gauzatuko dira bai ingurune hurbilean egindako egun osoko irteera programatuen bidez, bai egun batzuetako bidaien bidez.

Praktika horren guztiaren oinarria teoriko-zientifikoa da, zeina irakasleek arian-arian aurkeztuko baitute baliabide erakargarrien bidez: artikuluen irakurketa eta interpretazioa, bideoak, hitzaldiak, web-orrietan begiratuta, etab. Hala, zenbait egileren ekarpenak ezagutarazi eta jarrera kritikoa sustatuko da ikasleen artean, bai eta etengabe ikertu beharra ere. Etengabeko prestakuntza horren barruan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak daude (baliabide informatikoak, bibliografikoak, diskografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste). Bestalde, aberasgarria litzateke ikasleek ikerketa baten garapena jorratuko balute, gero jolas, ekitaldi eta ikuskizun-proiektu bat aurkezteko. Proiektuan, gai izan beharko lirateke modulu honetan eskuratutako edukiak azaltzeko, eta, azkenik, klasean aurkeztu, ahoz eta praktika motor gisa.

Amaitzeko, modulu osoan zehar, azpimarratu beharra dago jarrerazko edukien zeharkakotasuna, hain zuzen ere ikasleek pausoz pauso garatu dezaten animazio-jardueren koordinatzailearen, hezitzailearen, irakaslearen, aurkezlearen eta dinamizatzailearen lanbide-profila.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Klasean bizi izandako jolasak eta jarduerak idatziz biltzea eta aztertzea:
 - Jolas-fitxategi bat diseinatu eta presatzea.
 - Aztertzea nolako efektu motor, kognitibo eta afektiboak dituen jolas bakoitzak.
 - Egindako jolasen egitura eta taxonomia aztertzea.
 - Inklusioa sustatzen duten aldaerak eta egokitzapenak proposatzea.
- ✓ Jolas-saio bat eta/edo kirol- eta jolas-jarduera fisikoen saio bat diseinatzea, zuzentzea, dinamizatzea eta ebaluatzea:
 - Jolasak eta kirol- eta jolas-jarduera fisikoak egitea, haien garapena eta efektuak bizi ahal izateko.
 - Jolas- eta jarduera-saio bat diseinatzea parte-hartzaile mota jakin batentzat, helburuen eta eskura dauden baliabideen arabera, metodologia egokiena adierazita.
 - Saioa klasean aurkeztu eta zuzentzea, materialak antolatuz, animatuz eta sortzen diren arazoak konponduz.
 - Saioa behatzea, datuak biltzea eta hobekuntzak proposatzea.
- ✓ Jolasetako eta kirol- eta jolas-jarduera fisikoetako ekitaldi baten proiektua diseinatzea.
 - Kirol-ekitaldi zehatz baten programazioa prestatzea, honako hauek zehaztuta: jarduerak, baliabideak, segurtasun-neurriak, irisgarritasuna, ibilbidea, izen-ematea, aurrekontua eta sustapena.
 - Klasean azaltzea ekitaldiaren garapen-prozesu osoa.

- Klasean egiteko modukoak diren jarduerak egitea, eta ekitaldiaren kudeaketaren eta koordinazioaren simulazioa.
- ✓ Gau-jaialdi bat, ikuskizun bat, herri-jai bat eta animazio turistikoko kultura-jarduerak diseinatzea:
 - Animazio turistikoko proiektu bat prestatzea, jarduera hauek bilduko dituenak:
 - o Proiektuaren bideragarritasuna justifikatzea.
 - o Jai-egitarau prestatzea: jarduerak, ordutegiak, ikusleak, etab.
 - o Gainbegiratzea nola kokatzen eta biltzen diren ekipoak, materiala eta dekorazioa.
 - o Profesional guztien jarduketa- eta koordinazio-protokoloa diseinatzea.
 - o Publizitate-mezua sustatzeko eta diseinatzeko baliabideak hautatzea.
 - Proiektua klasean aurkeztea.
 - Jarduerak burutzea eta klasean egiteko modukoak diren ikuskizunaren atalak eszenaratzearen simulazioa egitea: aurkeztea, gidatzea, emanaldi sinpleak eta agurra.
- ✓ Animazio-jarduerak ebaluatzeko tresnak diseinatzea.



6. LANBIDE-MODULUA

BANAKAKO KIROL-JARDUERA FISIKOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Banakako kirol-jarduera fisikoak
Kodea:	1139
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-mailakoa
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirolak
Iraupena:	231 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1084_3: Igeriketa-jarduerari buruzko irakaskuntzari eta oinarrizko egokitze fisikoari dagozkion jarduerak programatu UC1085_3: Igeriketa-jardueren irakaskuntza eta oinarrizko egokitzapen fisikoa zuzentzea.
Helburu orokorrak:	6 / 7 / 9 / 10 / 13 / 15 / 16 / 17

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Banakako kirol-jarduera fisikoen ezaugarriak adierazten ditu, proposamen didaktikoak jolas-ikuspegiz prestatzean manipulatu daitezkeen aldagaiak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Banakako kirol-jarduera fisikoen sailkapen desberdinak multzokatzeko irizpideak alderatu ditu.
- Banakako kirol-jarduera fisikoen osagai fisikoaren, teknikoaren eta, hala badagokio, taktikoaren garrantzia baloratu du.
- Banakako kirol-jarduera fisikoetako trebetasun tekniko espezifikoak lotu ditu oinarrizko trebetasun eta abilezia motorrekin.
- Banakako kirol-jarduera fisikoen osagaiak aztertu ditu, irakaskuntzako eta jolas-arloko proposamenetan duten eragina baloratuta.
- Banakako kirol-jarduera fisikoen oinarrizko arauak eta nomenklatura espezifikoa interpretatu ditu.

- f) Banakako kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzarekin lotutako material espezifiko, egokitu, alternatibo eta lagungarrien aplikazioak deskribatu ditu.
- g) Banakako kirol-jarduera fisikoetako alderdien segurtasun-ezaugarriak eta baldintza optimoak deskribatu ditu.
- h) Banakako kirol-jarduera fisikoak egiten diren ingurunearen eragina baloratu du irakaskuntza- eta jolas-proposamenetan.

2. Banakako kirol-jarduera fisikoko programetan eta uretako sorospenean inplikaturako baliabideak antolatzen ditu, segurtasun-, moldakortasun- eta efikazia-irizpideak definituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Banakako kirol-jarduera fisikoak egiteko behar diren materialak, instalazioak eta ekipamenduak hautatu ditu, ahalik parte-hartze handiena lortzeko asmoz, eta segurtasun handieneko baldintzak bermatuz.
- b) Pertsonen antolaketa, materialen kokapena eta denboraren eta espazioaren erabilera definitu ditu banakako kirol-jarduera fisikoetan.
- c) Espazioak eta materialak egokitu ditu, pertsona mota desberdinen ikaskuntza eta parte-hartzea sustatzeko moduan.
- d) Arriskuak eta ekipamenduen, instalazioen eta materialaren egoera etengabe kontrolatzeko tresnak diseinatu ditu.
- e) Banakako kirol-jarduera fisikoetako laguntza- eta kontsulta-baliabideak hautatu ditu (informatikoak, bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste).
- f) Parte-hartzaileek jarduera egiteko eraman behar dituzten jantziak eta material pertsonala zehaztu ditu, jantziak eta materialak egin behar den banakako kirol-jarduera fisiko zehatzerako egokiak direla bermatzeko.
- g) Bere ardurapeko arloari dagokion segurtasunerako eta arrisku-prebentziorako protokoloa prestatu du.
- h) Banakako kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzan, bere erantzukizun-arloko segurtasunarekin eta arrisku-prebentzioarekin lotutako elementuen egoera egiaztatu du.
- i) Uretako sorospena segurtasun handieneko baldintzetan egiteko behar diren ekipo pertsonala eta materialak zehaztu ditu.

3. Banakako kirol-jarduera fisikoak irakasteko saioak diseinatzen ditu, oinarrizko programarekin, jarduera motarekin eta erreferentziazko taldearekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Banakako kirol-jarduera fisikoko saio baten faseak identifikatu ditu.
- b) Banakako kirol-jarduera fisikoko saio baterako helburu didaktikoak, edukiak eta metodologia definitu ditu, programazio orokorrarekin bat etorritik.
- c) Banakako kirol-jarduera fisikoen eduki fisikoak eta teknikoak integratu ditu banakako kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-atazen proposamenetan.
- d) Jardueren sekuentziazioa egitean, irizpide fisiologikoak eta motibazioak aplikatu ditu, esfortzuen dinamika errespetatuz.
- e) Egokitzapenak diseinatu ditu ataza motor espezifikoetan, parte-hartzaileen ezaugarrien arabera.
- f) Banakako kirol-jarduera fisikoen ikaskuntzak indartzeko tresnak aurreikusi ditu (informatikoak, ikus-entzunezkoak).
- g) Pertsonekin, baliabide materialekin, espazioekin eta ingurunearekin lotuta gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikusi ditu.



- h) Banakako kirol-jarduera fisikoak egitean sor daitezkeen arrisku-egoerak deskribatu ditu, eta segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako hartu behar diren neurriak kontuan hartu ditu.
- i) Eraginkortasuneko eta segurtasuneko irizpideak aplikatu diru saioan espazioak, ekipamenduak eta materialak erabiltzeko proposamenean.

4. Banakako kirol-jarduera fisikoko saioak gidatu eta dinamizatzen ditu, jardueraren eta taldearen dinamikara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Beharrezkoa den informazioa eman du saioaren hasieran eta amaieran, banakako kirol-jarduera fisikoetan parte-hartzera motibatze aldera.
- b) Atazak nola egin behar diren azaldu du, haien alderdi garrantzitsuak nabarmenduta, gerta daitezkeen exekuzio-akatsak aurreikusita, eta zenbait informazio-kanal erabilia.
- c) Banakako kirol-jarduera fisikoko modalitateen ekintza motor espezifikoak erakutsi ditu, egin beharreko atazaren irudikapen mental egokia eratu ahal izateko behar adina kalitatez.
- d) Intentsitate- eta zailtasun-maila parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitu ditu, espazioak, materialak eta transmititzen den informazioa aldatuta.
- e) Detektatutako exekuzio-akatsak zuzendu ditu, eta akatsak eragin ditzaketen kausetan eta une egokietan esku hartu du.
- f) Praktikan, parte-hartzaileen desinhibizioa errazten duen metodologia erabili du, pertsona arteko harremanak eta haien inplikazio handiena sustatuta, eta jardueraren garapena eta/edo harreman-giro egokia eragozten duten portaerak eragotzita.
- g) Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatu du, haiek birkokatuz eta, behar izan denean, sortutako gorabeherak konponduz, eta instalazioa erabili ahal izateko egoera bikainean utzi du.
- h) Banakako kirol-jarduera fisikoko lehiaketa ez-ofizialak antolatze eta kontrolatzeko irizpideak definitu ditu.

5. Banakako kirol-jarduera fisikoak ebaluatzen ditu, jarduera horiek jolas- eta irakaskuntza-prozesuetan optimizatzeko aukera ematen duten adierazleak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Banakako kirol-jarduera fisiko bakoitzerako ikaskuntza-mailak ezarri ditu.
- b) Banakako kirol-jarduera fisikoak ebaluatze alderdi tekniko eta fisiko esanguratsuak zehaztu ditu, ikaskuntza-maila bakoitzean.
- c) Banakako kirol-jarduera fisikoetan ikaskuntza teknikoak ebaluatze tresna eta jarduera egokiak hautatu ditu, planteatutako helburuen arabera.
- d) Banakako kirol-jarduera fisikoen alderdi kuantitatiboak ebaluatze tresna eta jarduera egokiak hautatu ditu, planteatutako helburuen arabera.
- e) Zenbait tresnak diseinatu ditu, datuak ematen dituztenak helburuen lorpen-mailari eta parte-hartzaileen parte-hartzeari eta gogobetetasun-mailari buruz, prozesu metodologikoa ebaluatze.
- f) Hobekuntza-proposamenak prestatu ditu, prozesu osoaren ebaluazioan bildutako informazioaren analisia eta ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.

6. Pertsonak erreskatatzen ditu, uretako istripuen edo larrialdi-egoeren kasu simulatuetan, salbamendu- eta erreskate-protokoloak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Uretako instalazio jakin bateko arriskuak aztertu ditu, arriskuak hierarkizatuta, eta erabiltzen den gainbegiratze-protokoloa eta arriskuak murrizteko behar diren aldaketak adierazi ditu.
- b) Uretako instalazio bateko erabiltzaileek izan ditzaketen portaera arrisku-eragileak eta portaera horiek pertsona horiengan zein gainerako erabiltzaileengan izan ditzaketen ondorioak definitu ditu, sorosleak hartu behar dituen neurriak adierazita.
- c) Zaintza-, prebentzio- eta jarduketa-lanei eusteko protokoloak eta teknikak definitu ditu, uretako zentroaren osasungarritasun-baldintzak aldatzen diren edo istripua gertatzen den kasuetarako.
- d) Jardun-protokoloetako (esku hartzea zenbait biktima motarekin, ebakuazioa, etab.) entsegu- eta jardun-programa diseinatu du.
- e) Esku-hartzea egitea erabaki du, bai eta, hala badagokio, egin behar diren maniobrak ere, ustez istripua izan duen pertsona, gainerako erabiltzaileak eta instalazioaren egoera baloratuta, eta norberaren baldintzak ere baloratuta.
- f) Uretan sartzeko, biktimaengana hurbiltzeko, harekin kontaktua egiteko, hura kontrolatzeko, lekualdatzeko eta uretatik ateratzeko maniobrak egitean planteatutako egoerarako material egokiak erabili ditu.
- g) Honako teknika hauek egin ditu, segurtasunez eta eraginkortasunez:
 - Uretan sartzea, uraren ezaugarrien, irisgarritasunaren eta hurbiltasunaren arabera.
 - Istripua izan duen pertsonarengana hurbiltzeko igeriketa-teknikak.
 - 300 m igeri egitea, estilo librean, galtzak eta elastikoa jantzita, gehienez zortzi minututan.
 - Uretan flotatzen egotea, besoak altxatuta, ukondoak uraren gainazaletik gora izanda, lekutik mugitu gabe.
 - Biktimari eusteko eta hura atoian eramateko teknikak, haren arnasbideak uretatik kanpo izanda.
 - Uretara buruz botatzea, berrogeita hamar metro baino gehiago igeri egitea, estilo librean, eta gutxienez bi metroko sakonerara arte murgiltzea, lehiaketa-maniki bat hartzeko eta berrogeita hamar metro atoian eramateko, ondo lotuta; hori guztia gehienez 3 minutu eta 30 segundoan egitea.
 - Ustez istripua izan duena 100 metro atoian eramatea, hegatsik gabe, lau teknika desberdin eginez; hori guztia, 4 minutuko denboran, gehienez.
 - Istripua izan duen pertsona bat, flotagarritasun eta pisu ertainekoa, ehun metro atoian eramatea, hegatsekin, teknika libre bakar bat erabiliz, 3 minutu eta 45 segundoko denboran, gehienez.
 - Ustez istripua izan duen pertsona bat, kontzientea edo konortetik gabea, eta bizkarrezur-muinean kalterik ez duena, uretatik ateratzea, protokoloak betez eta dagokion teknika behar bezala aplikatuz, 100 metro atoian eraman ondoren.
 - Ikaskide bat ateratzea, bizkarrezur-muina kaltetuta duen biktima bat delako simulazio batean, material egokia erabiliz, bizpahiru sorosleren talde bat antolatuz, protokoloekin bat, eta teknikak behar bezala erabiliz.
- h) Egindako suposizio bakoitzean, azterketa kritikoa eta ebaluazioa egin ditu, eta hobekuntza-proposamenak egin eta justifikatu ditu.



c) Edukiak:

1. BANAKAKO KIROL-JARDUERA FISIKOEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEA.

prozedurazkoak	- Aztertzea nolako presentzia duten banakako kirol-jarduera fisikoek eskola-kiroleko programetan (curriculumetik kanpoko jarduerak eskola-esparruan), udal-programetan, federazioen programetan, denbora librean, jolasaren arloko programetan, etab. - Jardueraren informazio-fitxa egitea: banakako kirol-jarduera fisikoen ezaugarri / osagai guztiak aztertzea. - Banakako kirol-jarduera fisikoen eta haien egokitzapenen oinarritzko arauak interpretatzea. - Banakako kirol-jarduera fisikoen nomenklatura espezifikoaren erabilera eta irudikapen grafikoa.
kontzeptuzkoak	- Banakako kirolak euskal kirol-ereduan: eskola-kirola, kirol parte-hartzailea, errendimendukoa eta goi-mailakoa. Banakako kirolak kirol-animazioan. - Banakako kirolak sailkatzeko irizpideak: beste parte-hartzaile batzuk egotea edo ez; ziurgabetasuna ingurunean; antzekotasunak inguruneari, materialei, ekintzari, ahalmen fisikoari edo lehiaketa motari dagokienez, etab. - Programetan eskaintzen diren banakako kirol-jarduera fisikoen ezaugarri orokorrak, zenbait irizpide kontuan hartuta: alderdi fisikoak, teknikoak eta taktikoak. Keinu teknikoaren eta oinarritzko trebetasun eta abilezien eta trebetasun eta abilezia espezifikoen osagai kuantitatiboa (indarra, denbora edo abiadura) eta kualitatiboa (erritmoa, presioa edo arintasuna). - Banakako kirol-jarduera fisiko zehatzen ezaugarri espezifikoak, inguruneke beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, uretako jarduerak, lasterketan oinarritutako kirol-jarduera fisikoak, etab. - Uretako jardueren ezaugarri espezifikoak: • Ur-ingurunean, gorputz-eskemaren berregituraketa eta sentazioen eta propiozepzioaren interpretazioa. • Uretan jarduten ohitzea, flotatzea, arnasa hartzea eta propulsatzea, ur-ingurunean moldatzeko berezko aldagaiak diren aldetik. • Igeriketako lau estiloak (crawl, bizkar-igeriketa, bular-igeriketa eta tximeleta-igeriketa): - o Exekuzio teknikoko elementuak. - o Bakoitzaren onurak eta kontraindikazioak. - o Gaitasun kondizionalen inplikazioa. • Ur-inguruneke ikaskuntzarako eta jolas-jardueretarako material espezifikoak eta ez-espezifikoak. • Jarduera horretarako prebentzio- eta segurtasun-neurri espezifikoak. Lotura salbamendu- eta sorospen-zerbitzuarekin. - Lasterketan oinarritutako kirol-jarduera fisikoen ezaugarri espezifikoak. • Herri-lasterketak, -probak, -krosak, eta atletismoa. • Eskola-kiroleko programako probak (lasterketak, jauziak, jaurtiketak eta proba konbinatuak). Probetan egindako aldaketak, adinaren arabera. • Ikaskuntzarako eta jolas-jardueretarako material espezifikoak eta ez-espezifikoak.

	- Jarduera horiek egiteko prebentzio- eta segurtasun-neurri espezifikoak. - Banakako beste kirol-jarduera fisiko batzuen ezaugarri espezifikoak, honako hauek daudenak: - Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). - Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. - Federazioen, klubak, kirol-elkarteen edo elkarten programak. - Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak. - Jarduera bakoitzaren ezaugarri espezifikoak inplikazio didaktikoak eta jolas-arlokoak. Transferentziak eta interferentziak ikaskuntzetan. - Jardueren erregelamenduak. Aldagaiak jolas-ikuspegia erabiliz manipulatzeko irizpideak banakako kirolean. Egokitutako erregelamendua. Lehiaketa-erregelamenduak. - Nomenklatura espezifikoak. Jardueren irudikapen grafikoa.
jarrerazkoak	- Interesa izatea banakako kirol-jarduera fisikoen praktikaren testuinguruari buruz. - Ingurunean banakako kirol-jarduera fisikoak egiteko dagoen eskaintza eta haren ezaugarriak ikertzeko ekimena izatea.

2. BANAKAKO KIROL-JARDUERA FISIKOKO ETA URETAKO SOROSPENEN PROGRAMETAN INPLIKATUTAKO BALIABIDEAK ANTOLATZEA.

prozedurazkoak	- Erabiltzaileei edo parte-hartzaileei orientabideak eta informazioa ematea, eraman behar dituzten jantziei eta material pertsonalari buruz. - Behar diren instalazio, ekipamendu eta materialak bilatzea eta hautatzea: ahalik eta parte-hartze eta segurtasun handiena lortzeko irizpideak aplikatzea. - Parte-hartzaileak eta materialak jarduerari esleitutako instalazioan, espazioan eta denboran antolatzea. - Espazioak eta materialak pertsona mota desberdinen ikaskuntzarako eta parte-hartzerako egokitzea. - Banakako kirol-jarduera fisikoetan eta uretako sorospenean erabilitako materialak gainbegiratzea eta haien mantentze-lanak egitea. - Banakako kirol-jarduera fisikoetarako materialen inbentarioa (kokapena eta biltegiratzea, baldintzak, kantitatea, etab.). - Instalazio, ekipamendu eta materialetan izandako gorabeherak erregistratzeko fitxak. - Prozedura operatibo komunak. - Banakako kirol-jarduera fisikoetako laguntza- eta kontsultabaliabideak hautatzea (informatikoak, bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste).
kontzeptuzkoak	- Parte-hartzaileek banakako kirol-jarduera fisikoak segurtasunez eta eroso egiteko behar dituzten janzkera (oinetakoak eta arropa) eta osagarriak. - Uretako instalazioan uretako sorospenez arduratzen den pertsonaren janzkera (oinetakoak eta arropa). - Uretako banakako kirol-jarduera fisikoak eta uretako sorospena praktikatzeko instalazioak eta ekipamenduak.



	• Instalazio motak eta instalazioen ezaugarriak. Betekizunak. • Arkitektura-oztopoak eta instalazioen egokitzapena. • Uretako instalazioen eraikuntzarekin eta mantentze-lanekin lotutako araudiak. • Uretako instalazio bateko aparatu eta makinetarako segurtasun-eta gainbegiratze-sistemak. • Salbamendu-postua. Mantentze-lanak. - Banakako kirol-jarduera fisikoak praktikatzeko beste instalazio eta ekipamendu batzuk. • Instalazio motak eta instalazioen ezaugarriak. • Arkitektura-oztopoak eta instalazioen egokitzapena. • Mantentze-lanetarako eta segurtasunerako araudiak. - Banakako kirol-jarduera fisikoak egiteko material lagungarria. • Uretako jardueretarako materialak. • Uretako salbamendurako materialak: komunikaziokoak, biktimarengana iristekoak, harekin harremanetan jartzekoak, babestekoak eta biktima uretatik ateratzeko eta ebakutzekoak. • Banakako beste kirol-jarduera fisiko batzuetarako materialak. - Banakako kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzarako, jolas-arlorako edo kirol-animaziorako egokitu daitezkeen espazio, ekipamendu eta material ez-konbentzionalak. - Banakako kirol-jardueretako kirol-instalazioen erabilera eta gozamena optimizatzeko irizpideak. Denboren eta espazioen antolaketa. Segurtasuna. - Jardueraren jarraipena eta kontrola egiteko baliabideak: Denboraldiaren programazioa, jardueraren informazio-fitxa, saioaren fitxa, taldearen fitxa, inbentarioa, exekuzio-txostenak, memoria, etab. - Banakako kirol-jarduera fisikoetan erabiltzen diren instalazioetako segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako oinarritzko protokoloak. • Arrisku-faktoreak eta arriskutsuak izan daitezkeen eremuak. • Beste kolektibo profesional batzuekin koordinatzea. • Prozedura operatibo komunak. • Erreferentziazko legedia eta araudiak. - Uretako instalazioetako segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako oinarritzko protokoloak: • Uretako instalazioetako segurtasunean aplikagarri diren oinarritzko legedia eta araudiak. • Tokiko eta autonomia-erkidegoko administrazio eskudunak. - Profesionalaren eta soroslearen erantzukizunak: bere eskumeneko segurtasun-alderdiak, instalazioen, ekipamenduen eta materialaren egoerarekin lotuak.
jarrerazkoak	- Jarduerak segurtasunez eta eroso egiteko ekipo pertsonal eta material egokia erabiltzeko konpromisoa hartzea. - Instalazioak, ekipamenduak eta materialak egoki erabiltzearen garrantzia baloratzea. - Jarrera proaktiboa izatea jardueretan erabiltzen den materiala kokatzean eta biltzean.

3. BANAKAKO KIROL-JARDUERA FISIKOETAN HASTEKO METODOLOGIA

prozedurazkoak	- Saioaren helburu didaktikoak definitzea: programazio orokorra (sasoikoa, urtekoa, opor-aldikoa, intentsiboa, etab.), programa (eskolakoa, eskola-ordutegitik kanpokoa, parte-hartzekoa, udalekoa,
----------------	---

	kirol-eskolakoa, federatiboa, etab.) edo erakundea (publikoa/pribatua, klubak, jarduera fisikoaren alorreko enpresak, etab.) interpretatzea. - Saioaren helburu didaktikoak, edukiak eta metodologia erregistratzea saioaren erregistratze-fitxan. - Eduki fisikoak eta teknikoak integratzea proposatutako saioan. - Jardueren sekuentziazioa: irizpide fisiologikoak, motibaziokoak eta globaltasunekoak aplikatzea. - Egokitzapenak aurreikustea ataza motor espezifikoetan, parte-hartzaileen ezaugarrien arabera. - Ikaskuntzak indartzeko tresnak prestatzea (informatikoak, ikus-entzunezkoak). - Gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikustea. - Eraginkortasuneko eta segurtasuneko irizpideak aplikatzea, saioan zehar espazioak, ekipamenduak eta materialak erabiltzeko egindako proposamenen.
kontzeptuzkoak	- Programa orokorra, jardueraren fitxa eta saioen kopurua/kokapena denboraldiko edo programako egutegian. - Parte-hartzaileen taldearen fitxa. Kopurua eta oinarritzko datuak (izena, adina, etab.). - Saioaren egitura. Saioaren erregistratze-fitxa. Kalkulatutako landenborak eta denbora errealak. - Banakako kirol-jarduera fisikoetan hasteko ereduak, adin-profil edo kategoria desberdinetarako. - Sekuentziazio- eta tenporalizazio-irizpide espezifikoak banakako kirol-jarduera fisikoeratako irakaskuntza-ikaskuntzako atazetan. - Trebetasun espezifikoaren irakaskuntza ataza globaletan integratzeko formulak. - Parte-hartzaileak kirol-jarduera fisikoaren praktikara fidelizatzea sustatzeko estrategiak. - Banakako kirol-jarduera fisiko zehatzen irakaskuntza-saio espezifikoak, ingurunearen beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, uretako jarduerak, lasterketan oinarritutako kirol-jarduera fisikoak, etab. - Igeriketa eta uretako beste jarduera batzuk irakasteko saio espezifikoak: • Igerian ikasteko prozesuaren maila desberdinak. Biziraupen-mailatik igeri egiten jakitera. • Igeriketa-saioaren helburuak, maila/adina binomioaren arabera. Progresioa igeriketaren eta uretako jardueren irakaskuntzan. Uretako ingurunearen eragina prozesuaren faseak ezartzean. - o Lehenengo kontaktuak ur-ingurunearekin: ohitzea, flotatzea, arnasa hartzea eta propulsatzea. Trebetasun eta abileziak: uretara botatzea eta uretan murgiltzea, apneak, orekak, lekualdatzeak, biraketak, manipulazioak, trebetasunen konbinazioak. - o Uretako ingurunea menderatzeko saioak: igeriketa-estiloak. Maila eta erabiltzaile-profil desberdinetarako egokitzapenak. • Uretako jarduerak eta esfortzuaren intentsitatea. Aktibazio-ariketak uretan, erlaxazio-ariketak, erresistentzia, abiadura eta indarra lantzeko atazak. • Segurtasuna. Teknikariaren egoeraren abantailak eta desabantailak uraren barruan eta uretatik kanpo. Atazen ordenak segurtasunarekin duen lotura. Laguntza-material espezifikoak. • Igeriketa-eskolak eta ikastaro trinkoak. • Uretako jardueretarako ariketak eta atazak, zenbait biztanleria-



	talderekin egiteko: haurdunak, matroigeriketa, umeak, eskola-adinekoak, pertsona helduak, 65 urtetik gorakoak, kolektibo bereziak, desgaitasuna duten pertsonak. - Lasterketan oinarritutako kirol-jarduera fisikoak irakasteko saio espezifikoak. • Lasterketako eta/edo atletismo-diziplinetako trebetasunak eta exekuzio teknikoko elementuak. Onurak eta kontraindikazioak. • Jolasera eta herri-probak, krosak edo antzekoak prestatzera bideratutako jarduerak. • Gaitasun kondizionalen inplikazioa. • Progresio metodologikoa lasterketaren edo atletismoko zenbait diziplinaren irakaskuntzan. - Banakako beste kirol-jarduera fisiko batzuen irakaskuntza-saio espezifikoak, honako hauek erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubak, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak. - Banakako kirolek ikaskuntzak indartzeko tresnak. Filmazioak, baliabide didaktikoak. - Banakako kirol-jarduera fisikoko saioetan (uretakoak, lasterketak, etab.) kontuan hartu beharreko oinarritzko segurtasun-arauak. Espazioa eta materialak kontrolatzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko teknikak. (Taldeen: Parte-hartzaileen posizioa eta haien arteko distantziak, mugikarien ibilbideak, jokalarien mugimenduak, etab.).
jarrerazkoak	- Saioaren idatzizko plangintza egitearen garrantzia baloratzea. - Saioak aldira eta prestasunez bidaltzea antolakundeko edo eskola-zentroko dagokion arduradunari. - Sormena saioa irakaskuntza-jardueren diseinuan.

4. BANAKAKO KIROL-JARDUERA FISIKO SAIOEN GIDARITZA ETA DINAMIZAZIOA

prozedurazkoak	- Saioaren hasieran eta amaieran dagokion informazioa komunikatzea: Parte-hartzea sustatzeko motibazioa. - Saioarako diseinatutako fitxari jarraitzea, saioa egin bitartean, planifikatutakoa errespetatuz eta doitu, eta hobetzeko oharrak hartuz. - Saioarako bertaratzea kontrolatzea. - Atazak nola egin behar diren azaltzea: haien alderdi garrantzitsuak, gerta daitezkeen exekuzio-akatsak eta zenbait informazio-kanalen erabilera. - Banakako kirol-jarduera fisikoko modalitate bakoitzaren ekintza motor espezifikoak erakustea. - Intentsitate- eta zailtasun-maila egoera partikular jakin batera egokitzea. - Detektatutako exekuzio-akatsak zuzentzea: akatsak eragin ditzaketen kausak, esku hartzeko une egokiak. Feedbacka sarri erabiltzea. - Metodologia desberdinak erabiltzea, saioaren helburuen arabera. - Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatzea ezarritako
----------------	---

	protokoloaren arabera. Taldearen fitxaren kudeaketa.
kontzeptuzkoak	- Esku hartzeko teknikak, banakako kirol-jarduera fisikoko saioen gidaritzan: • Atazak eta elementu teknikoak azaltzea eta erakustea. • Dinamizazioa eta kontrola. - Banakako kirol-jarduera fisikoko txapelketak eta ekitaldiak zuzentzeko jarraibideak, bitartekoak eta arauak. - Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea banakako kirol-jarduera fisikoen jardun-testuinguru desberdinetan aplikatzeko gomendioak eta betebeharrak. - Banakako kirol-jarduera fisiko zehatzak gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibide eta aholku espezifikokoak, ingurune beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, uretako jarduerak, lasterketan oinarritutako kirol-jarduera fisikoak, etab. - Uretako jarduerak zuzentzeko eta dinamizatzeko jarraibideak eta aholku espezifikokoak. Teknikariaren jarduna igerilekuko ontziaren barruan eta kanpoan. • Uretako ingurunera egokitzeko faserako jarduerak; pertzepzioak berreztea, gorputz-eskema berregituratzea eta kontrolatzea. - o Uretako ingurunearekin ohitzeko eta gorputza uraren bultzadaren aurrean kontrolatzeko jolasak eta jarduerak. - o Murgiltzeak, manipulazioak eta oinarritzko lekualdatzeak lantzeko jolasak eta jarduerak. - o Uretako ingurunean arnasketa lantzeko hastapeneko jolasak eta jarduerak. - o Beldurrak eta blokeoak gainditzen laguntzeko estrategiak. - o Kontrol- eta laguntza-materialak erabiltzea. • Jarduerak uretako ingurunea menderatzeko fasean: - o Igeriketa-estiloak: crawl, bizkar-igeriketa, bular-igeriketa eta tximeleta-igeriketa. - o Ikasteko jolasak eta ariketak. - o Igeriketaren bidezko egokitzapen fisikoko atazak. • Uretako jarduerak zenbait esparrutan: haurdunak, matroigeriketa, umeak, eskola-adinekoak, pertsona helduak, 65 urtetik gorakoak, kolektibo bereziak, desgaitasuna duten pertsonak, besteak beste. - Lasterketan oinarritutako kirol-jarduera fisikoak gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibideak eta aholku espezifikokoak: • Oinarritzko trebetasunak atletismo-diziplinetara transferitzea. • Lasterketa-, jauzi- eta jaurtiketa-jolasak. Trebetasunen konbinazioa. • Oztopo-lasterketak. Erritmo-jolasak eta oztopoak zeharkatzekoak. • Errelebo-jolasak. Lekuko-aldaketak, distantziak. • Aplikazio- eta asimilazio-ariketak, atletismoko zenbait diziplinaren irakaskuntzan. • Proba konbinatuak. Duatloia, triatloia, etab. - Banakako beste kirol-jarduera fisiko batzuetarako jarraibide eta aholku espezifikokoak, honako hauetan erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak, errendimendurako hastapeneko ibilbideak eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubuen, kirol-elkarteen edo elkarten programak.



	Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak.
jarrerazkoak	- Puntueltasuna saioa hasteko eta amaitzeko. - Parte-hartzaileak edo beste pertsona giltzarri batzuk egunez egun erakartzeko eta ilusionatzeko interesa izatea, esfortzua, lana eta intentsitatea baliatuta. - Saioan, inplikatzeko, taldean elkarreraginean aritzeko eta banakako zein talderako feedback ugari emateko jarrera izatea.

5. BANAKAKO KIROL-JARDUERA FISIKOEN IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZAKO PROZESUAREN EBALUAZIOA

prozedurazkoak	- Banakako kirol-jarduera fisiko bakoitzaren ikaskuntza-mailak ezartzea. - Banakako kirol-jarduera fisikoaren ikaskuntza ebaluatzen alderdi tekniko eta fisiko esanguratsuak zehaztea, ikaskuntza-maila bakoitzean. - Banakako kirol-jarduera fisikoaren ikaskuntza teknikoak ebaluatzen tresna eta jarduera egokiak hautatzea, planteatutako helburuen arabera. - Banakako kirol-jarduera fisikoaren alderdi kuantitatiboak ebaluatzen tresna eta jarduera egokiak hautatzea, planteatutako helburuen arabera. - Prozesu metodologikoa ebaluatzen tresnak diseinatzea. - Hobekuntza-proposamenak egitea.
kontzeptuzkoak	- Eskola-kiroleko, parte-hartzeko kiroleko, kirol-eskoletako, federazioetako, kirol-klubetako edo -elkarteetako eta abarretako programetan banakako kirol-jarduera fisikoetarako ezartzen diren ikaskuntza-mailak. Ezaugarriak eta gainditze- edo progresio-irizpideak. - Banakako kirol-jarduera fisikoaren programen ebaluazioan erabiltzen diren tresnak, eta haiek prestatzeko irizpideak: - Erabiltzaileen bertaratzea erregistratzeko inprimakiak. - Behaketa-fitxak (keinu teknikoak, jarrerak, etab.). - Ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak. - Erabiltzaileen gogobetetasun-mailari buruzko inkestak. - Helburuei buruz informatzeko liburuxka erabiltzaileentzat. - Banakako kirol-jarduera fisiko zehatzak ebaluatzen jarraibide eta aholku espezifikoak, ingurunearen beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, uretako jarduerak, lasterketan oinarritutako kirol-jarduera fisikoak, etab. - Igeriketako eta uretako jardueretako ikaskuntzak ebaluatzen jarraibideak eta aholku espezifikoak: - Maila bakoitzerako helburu espezifikoak –kualitatiboak eta/edo kuantitatiboak–. - Maila bakoitzeko helburu espezifikoak lortu diren zehazten duten irizpideak. - Helburuei buruz informatzeko liburuxka erabiltzaileentzat. - Ebaluazio-egoerak: - Keinu teknikoaren alderdi kualitatiboak ebaluatzen atazak: keinu orokorra ebaluatzen, keinuaren faseak ebaluatzen, material lagungarria erabiltzen, material

	lagungarririk gabe. - o Igeriketa-estiloen alderdi kuantitatiboak ebaluatzeko atazak. - Lasterketan oinarritutako banakako kirol-jarduera fisikoen ikaskuntzak ebaluatzeko jarraibideak eta aholku espezifikoak: • Atletismo-modalitate bakoitzean mailaz maila ebaluatzen diren alderdiak. • Maila bakoitzean exekuzioa zuzena dela zehazten duten irizpideak. Faktore kualitatiboa eta kuantitatiboa. - Banakako beste kirol-jarduera fisiko batzuetako ikaskuntzak ebaluatzeko jarraibideak eta aholku espezifikoak, honako hauetan erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubien, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak.
jarrerazkoak	- Atazan eta xehetasunetan kontzentratzea. - Zorroztasuna ebaluazio-tresnen aplikazioan. - Emaizten komunikazio eraginkorra.

6. ERRESKATEA URETAKO INSTALAZIOETAN

prozedurazkoak	- Instalazioaren erabiltzaileek izan ditzaketen portaera arrisku-eragileen aurrean hartu beharreko neurriak identifikatzea. - Uretako instalazio jakin batean egon daitezkeen arriskuak aztertzea, eta arrisku horiek murrizteko neurriak proposatzea. - Instalazioko soroslearen jardun-protokoloa edo -prozedura interpretatzea eta betetzea zenbait egoeratan. - Egin behar den esku-hartzea zehaztea, ustez istripua izan duen pertsonaren, gainerako erabiltzaileen eta instalazioaren egoeraren arabera, eta norberaren baldintzen arabera. - Material egokiak erabiltzea jardun-prozedurako fase guztietan. - Egindako suposizio bakoitzaren ebaluazioa. Hobekuntza-proposamenak definitzea. - Honako teknika hauek aplikatzea: • Uretan sartzea, uraren ezaugarrien, irisgarritasunaren eta hurbiltasunaren arabera. • Istripua izan duen pertsonarengana hurbiltzeko igeriketa-teknikak. • 300 m igeri egitea, estilo librean, galtzak eta elastikoa jantzita, gehienez zortzi minutuko denboran. • Uretan flotatzea, besoak altxatuta, ukondoak uraren gainazaletik gora izanda, lekutik mugitu gabe, abilezia hori akreditatzeko behar beste denboraz. • Biktimari eusteko eta hura atoian eramateko teknikak, haren arnasbideak uretatik kanpo izanda. • Uretara buruz botatzea, berrogeita hamar metro baino gehiago igeri egitea, estilo librean, eta gutxienez bi metroko sakonerara arte murgiltzea, lehiaketa-maniki bat hartzeko eta berrogeita hamar metro atoian eramateko, ondo lotuta; hori guztia gehienez 3 minutu eta 30 segundoko denboran egitea. • Ustez istripua izan duena 100 metro atoian eramatea, hegatsik
----------------	---



	gabe, lau teknika desberdin eginez; hori guztia, 4 minutuko denboran, gehienez. • Ustez istripua izan duen pertsona bat, flotagarritasun eta pisu ertainekoa, ehun metro atoian eramatea, hegatsekin, teknika libre bakar bat erabiliz, 3 minutu eta 45 segundoko denboran, gehienez. • Ustez istripua izan duen pertsona bat, kontzientea edo konortetik gabea, eta bizkarrezur-muinean kalterik ez duena, uretatik ateratzea, protokoloak betez eta dagokion teknika behar bezala aplikatuz, 100 metro atoian eraman ondoren. • Ikaskide bat istripu baten ondorioz bizkarrezur-muina kaltetua duen pertsona delako simulazio batean, ikaskide hori ateratzea, material egokia erabiliz, bizpahiru sorosleren talde bat antolatuz, protokoloekin bat, eta teknikak behar bezala aplikatuz. - Atoian eramateko sistemen eta jardun-protokoloen autoentrenamendu espezifikorako programa diseinatzea.
kontzeptuzkoak	- Uretako sorospena. • Uretako sorospenaren ezaugarriak: kontzeptua, motak, helburuak, jardunaren aukerak eta mugak. • Sorosle-lana egiten duen pertsona: profila, jarrerak eta gaitasunak, funtzioak. • Erantzukizun zibil eta penala. • Erreferentziako araudia Administrazio eskuduna. • Lanbide-gaixotasunak, jarduneko arriskuak eta arriskuen prebentzioa. • Beste kolektibo profesional batzuekin koordinatzea. - Uretako inguruneke arrisku-egoera ohikoenak. • Uren ezaugarriengatiko arriskuak. • Arropa eta oinetakoak gaizki erabiltzeagatiko arriskuak. • Jardunbide txarregatiko arriskuak: portaera desagokiak, murgiltze arriskutsuak, apnea behartuak, gehiegizko esfortzuko jarduerak egitea, kontrolik gabeko jolasak eta beste batzuk. • Uretako inguruneke lesio espezifikokoak: beroak eta hotzak eragindako lesioak; traumatismoak uretako ingurunean; urak azalean, begietan, belarrietan, sudurrean eta ahoan eragindako zauriak eta beste lesio batzuk. - Uretako instalazioa gainbegiratzeko protokoloak: gainbegiratu behar diren elementuak, gainbegiratzearen ordena eta maiztasuna, arriskuen hierarkizazioa. - Jardun-protokoloak eta larrialdi-planak: zaintzakoak, komunikaziokoak, lekualdatzeak egitekoak, ebakuaziokoak. - Zaintza. Zaintza-postuak, zaintza-arauak eta -teknikak. Postuaren kokapena, zaintza estatikoa eta/edo dinamikoa, uretako zaintza-teknikak, eremua kontrolatzeko estrategiak, zaintza-txandak, alderdi psikologikoak (estresa eta higadura psikikoa, estresa kontrolatzeko estrategiak). - Sorospenaren antolaketako etapak. • Arazoa hautematea: hautematearen funtsezko elementuak. • Egoeraren analisia. • Erabakiak hartzea. • Erreskate-ekintzak egitea. • Ospitale aurreko esku-hartzea, bost itotze-gradueta. • Ospitale aurreko esku-hartzea, bizkarrezur-muineke lesioa izan dezaketeneke. - Uretako erreskateko teknika espezifikokoak:

	• Kokatze-teknikak, erreferentzia-puntuak eta zer-nolakoak aztertzea. • Uretan sartzekoak. • Biktimarengana hurbiltzekoak. • Biktimarekin kontaktua egin, hura kontrolatu eta haren balorazioa egitekoak. • Uretako ingurunean lekualdatzekoak. • Atoian eramatekoak. • Biktima traumatikoa uretan maneiatzekoak. • Uretan berpiztekoak. • Biktima ateratzekoak. • Ebakuatzekoak. Beste baliabide batzuekin koordinatzea. • Uretako erreskaterako materiala erabiltzea. - Espezifikazioak, erreskatatu beharreko pertsonaren profilaren arabera. - Erreskateko fase kritikoko alderdi psikologikoak. • Itotzen ari dela uste duen pertsonaren portaera. Soroslearen jarrerak eta erantzuna. • Egoeraren kudeaketa.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna protokoloen aplikazioan. - Norberaren sasoi fisikoari eusteko konpromisoa. - Lasaitasuna eta irmotasuna erabiltzaileen aurrean, eta konfiantza transmititzeko interesa.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau “Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa”ren testuinguru orokorrean kokatu behar da, eta jarduera zuzentzen duen pertsonaren figurari buruz beharrezkoa den informazioa eman behar da, moduluarekin erlazionatuta eta haren konpetentziak eta jardun-printzipioak nabarmenduta.

Kurtso osoan zehar landuko dira erreskate-teknikekin lotutako edukiak, errazenetatik eta zailtasun-maila apalena dutenetatik hasita, eta, kurtsoak aurrera egin ahala, konplexutasuna areagotuta.

Kurtsoaren hasieratik, gomendagarria da ikasleen maila detektatzea igeriketako proba fisikoei dagokienez, eta aurreikuspenen arabera proba horiek gainditzeko zailtasunak izan ditzaketen ikasleei aholkatzea eskola-ordutegitik kanpo landu eta entrenatu ditzatela modu independentean.

Kirol-jardueren edukiak bi fasetan ordenatu daitezke:

- Hasierako maila ezagutzea, hautatutako kirolean konpetentzia motorra hobetzea eta baliabideak kudeatzea.
- Saioak diseinatzea, zuzentzea eta dinamizatzea, eta prozesu osoa ebaluatzea.

Jarraian, fase bakoitzean aplikatu beharreko zenbait jarraibide ematen dira:



Lehen fasea: Hasierako maila ezagutzea, hautatutako kirolean konpetentzia motorra hobetzea eta baliabideak kudeatzea:

- 5. blokeko edukiekin hastea proposatzen da. Hasierako ebaluazio bat egingo da, hautatu diren banakako kirolean ikasleek duten maila teknikoari eta araudiaren ezagutzari buruz. Ebaluazio-prozesuak berekin ekarri behar du ikaslearen inplikazio kognitiboa. Ildo horretatik, ikasleari azalduko zaio zer alderdi ebaluatuko diren, horretarako zer tresna eta protokolo zehatz erabiliko den eta emaitza zein den, eta adieraziko zaio, halaber, nolako ikaskuntza-mailatik abiatuko den.
- Behin ikasle bakoitzaren abiapuntu-maila ezarrita, beste aldi bat hasiko da, non konbinatuko baitira, batetik, banakako kirolen ezaugarri orokorren inguruko lana eta kirol horiek Euskal Autonomia Erkidegoko programetan duten presentzia (1. eduki-blokea) eta, bestetik, irakasleek programatutako eta zuzendutako saio praktikoak egitea; saio horietan, konpetentzia-mailan sakonduko da, betiere hautatutako kirolen eduki hauei dagokienez
 - o Instalazioarekin, materialekin eta ekipamenduekin ohitzeko jarduerak.
 - o Oinarri teknikoak.
 - o Progresioak eta aldatutako jarduerak.
 - o Banakako kirol- eta jolas-jarduera fisikoak.
- Saio praktikoak gauzatzen diren bitartean, egokia da, edukia kontuan hartuta, instalazio, ekipamendu eta materialekin lotutako edukiak ere irakastea, bai eta segurtasunarekin eta arriskuen prebentzioarekin lotutakoak ere.

Bigarren fasea: Saioak diseinatzea, zuzentzea eta dinamizatzea, eta prozesu osoa ebaluatzea:

- Arian-arian, ikasleen esku utziko da fase honetako tituluan adierazitako atazen gaineko ardura, eta lehenengo faseko lana aberastea proposatuko zaie, banakako kirol ezagunen edo bestelakoen irakaskuntza-ikaskuntza aztertuz, eta, horretarako, honako tresna hauek ikasleen esku utziz: programazio orokorra, diseinuaren erreferentzia gisa; elementu erabilgarriak kirol-jarduera fisikoko saioak diseinatzerakoan; saioak gidatzean eta dinamizatzean esku-hartzeko teknikak; parte-hartze maila eta gogobetetasun-maila ebaluatzekeko tresnak; autoebaluazioa, etab.
- Zeharka tratatu behar dira tresna horiek, beste modulu batzuekin koordinatuta, eta, horregatik, honako alderdi hauei garrantzi handia emango zaie:
 - o Hautatutako banakako kirolean ebaluatu beharreko osagaiak.
 - o Ikaskuntza-mailak ezartzea hautatutako banakako kirolean.
 - o Ebaluaziorako tresna espezifikoak hautatzea eta haien tenporizazioa ezartzea.
 - o Banakako kirolen irakaskuntza-ikaskuntzako ataza espezifikoaren sekuentziak.
 - o Ekintza motor espezifikoak azaltzea eta erakustea.
 - o Hutsak zuzentzea, eta beharizanetara egokitzea.

2) Alderdi metodologikoak

Oro har, metodologia aktiboak aplikatuko dira, ikasteko testuinguru berriarekin bat datozenak: errendimendu handiko zikloak – ETHAZI. Ereduaren ardatz nagusia ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZA da. Erronketan, ebatzi beharreko egoera korapilatsuak planteatzen dira, laneko errealitatearen egoeretatik gertu daudenak, eta, egoera horiek konpontzeko, beharrezkoa da zikloko zenbait moduluren arteko elkarlana, eta, gainera, konpetentzia tekniko eta zeharkakoak

aplikatu behar dira, hala nola ikasteko autonomia, talde-lana, emaitza apartak lortzeko orientazioa, etab.

Nolanahi ere, zenbait momentutan beharrezkoa izanez gero, honako hauek ere aplikatuko dira:

- Modulua aurkezteko eta banakako kirolen ezaugarriak adierazteko azalpenezko-jarduerak.
- Ikasleek banakako edo taldekako lanak egitea, non aztertuko baita nolako presentzia duten banakako kirolek ingurunean nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan antolatutako kirol-programetan.
- Gomendagarria da irakasleek irakaskuntza-metodo eta -estilo desberdinak erabiltzea; izan ere, halakoen bidez, gogoeta sustatuko dute ikasleen artean. Hala, harreran eta ikerketan oinarritutako metodoak aurkeztu eta azalduko dituzte irakasleek, zuzendutako ataza bakoitzaren izaerara egokituak:
 - o Zuzeneko jarraibideak, atazak esleitzea, elkarrekiko irakaskuntza, mikroirakaskuntza eta talde txikietan egindako irakaskuntza, oinarri teknikoen ikaskuntzarako.
 - o Aurkikuntza gidatua eta arazoak konpontzea, oinarri taktikoen, joko aldatuen eta tresna bidezko kirol- eta jolas-jarduera fisikoen ikaskuntzan.
- Ikasi beharrekoak izango dira, halaber, irakaskuntza-estilo desberdinak, haien onurak eta desabantailak, eta haiek aplikatzeko unea eta era, eta hala jasota dago 4. eduki-blokean.
- Sekuentziazioaren bigarren fasean, autonomia progresiboko egoerak sortuko dira, eta, haietan, ikasleek, arian-arian, beren gain hartuko dute taldeko kirolen irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuarekin lotutako alderdi batzuen edo guztien ardura, gero eta egoera konplexuetatik abiatuta, eta egoerok kasu praktiko zehatzen bidez antolatuta (erabiltzaileen kopurua eta maila, programaren helburuak, atazetara egokitutako irakaskuntza-metodoak, instalazio eta material erabilgarriak, etab.).
- Ikasleek beren ardurapean hartutako atazei buruz gogoeta egiteko, eztabaidatzeko eta lana bateratzeko espazioak sustatu eta zuzenduko dituzte irakasleek, eta ikasleak inplikatu dituzte haien jarduna eta ikaskideena ebaluatzeko prozesuan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Konpetentzia motorrean sakondu eta hobetzeko jarduerak, hautatutako banakako kirolean, Sekuentziazioaren bigarren fasean, aparteko garrantzia emango zaio ekintza motorrak erakusteko, exekuzio-akatsak zuzentzeko eta ekintzok parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzeko gaitasunari.
- ✓ Giltzarri dira hautatutako banakako kirolean konpetentzia motorraren bilakaera ebaluatzeko jarduerak. Irakasleek moduluaren hasieran egingo dute ebaluazio hori, eta ikasleek errepikatu beharko dute prozesuan programatutako zenbait momentutan.
- ✓ Irakasleen egitekoa da saioen diseinuaren alderdi garrantzizkoak ebaluatzea: saioaren helburu didaktikoen eta programazio orokorraren arteko lotura, jarduerak egoki sekuentziatu eta integratzea, indartze-tresnak erabilgarri izatea eta gorabeheretara egokitzeko aukerak.



- ✓ Helburua da ikasleak inplikatzea banakako kirolen saioak zuzentzeko eta dinamizatzeko lanaren zenbait alderditan, irakasleek aurretik finkatutako irizpideetatik abiatuta.

7. LANBIDE-MODULUA

TALDEKO KIROL-JARDUERA FISIKOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Taldeko kirol-jarduera fisikoak
Kodea:	1140
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	165 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotua
Helburu orokorrak:	6 / 7 / 9 / 10 / 13 / 15 / 16 / 18 / 19 / 20 / 21 / 22 / 23 / 24 / 25 / 26 / 27

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Taldeko kirol-jarduera fisikoen ezaugarriak adierazten ditu, proposamen didaktikoak jolas-ikuspegiz prestatzean manipulatu daitezkeen aldagaiak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Taldeko kirol-jarduera fisikoen sailkapen desberdinak multzokatzeko irizpideak alderatu ditu.
- Taldeko kirol-jarduera fisikoen osagai fisikoaren, teknikoaren eta taktikoaren garrantzia baloratu du.
- Oinarrizko trebetasun eta abilezia motorrak lotu ditu taldeko kirol-jarduera fisikoen trebetasun tekniko espezifikoekin.
- Taldeko kirol-jarduera fisikoen egiturazko osagaiak eta osagai funtzionalak baloratu ditu
- Taldeko kirol-jarduera fisikoen oinarrizko arauak eta nomenklatura espezifikoa interpretatu ditu.
- Taldeko kirol-jarduera fisikoen berezko instalazioen ezaugarriak argudiatu ditu.
- Taldeko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzarekin lotutako material espezifiko, egokitu, alternatibo eta lagungarrien aplikazioak probatu ditu.

2. Taldeko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-programetan inplikaturako baliabideak antolatzen ditu, segurtasun-, moldakortasun- eta efikazia-irizpideak definituta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeko kirol-jarduera fisikoak egiteko behar diren instalazioak, ekipamenduak eta materialak hautatu ditu, ahalik parte-hartze handiena lortzeko asmoz, eta segurtasun handieneko baldintzak bermatuz.
- b) Pertsonen antolaketa, materialen kokapena eta denboraren eta espazioaren erabilera definitu ditu taldeko kirol-jarduera fisikoetan.
- c) Joko-espazioetan aldaketak egin ditu, taldeko kirol-jarduera fisikoetan ikaskuntza, jolasa eta parte-hartzea sustatzeko moduan.
- d) Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako materialaren, ekipamenduen eta instalazioen egoeraren etengabeko kontrola egiteko tresnak diseinatu ditu.
- e) Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako laguntza- eta kontsulta-baliabideak zehaztu ditu (informatikoak, bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste).
- f) Parte-hartzaileek jarduera egiteko eraman behar dituzten jantziak eta material pertsonala zehaztu ditu, jantziak eta materialak egin behar den taldeko kirol-jarduera fisiko zehatzerako egokiak direla bermatzeko.
- g) Bere ardurapeko arloari dagokion segurtasunerako eta arrisku-prebentziorako protokoloa prestatu du.
- h) Taldeko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzan, bere erantzukizun-arloko segurtasunarekin eta arrisku-prebentzioarekin lotutako elementuen egoera egiaztatu du.

3. Taldeko kirol-jarduera fisikoak irakasteko saioak diseinatzen ditu, oinarrizko programarekin, jarduera motarekin eta erreferentziazko taldearekin lotuta (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak, eta jarduera egokituetao praktikatzaileak).

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeko kirol-jarduera fisikoko saio baten faseak identifikatu ditu.
- b) Taldeko kirol-jarduera fisikoko saio baterako helburu didaktikoak, edukiak eta metodologia definitu ditu, programazio orokorrarekin bat etorriz.
- c) Eduki fisikoak, teknikoak eta taktiko-estrategikoak integratu ditu taldeko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-atazen sekuentzian.
- d) Jardueren sekuentziazioa egitean, irizpide fisiologikoak eta motibaziokoak baliatu ditu.
- e) Taldeko kirol-jarduera fisikoak irakasteko atazetan, egokitzapenak diseinatu ditu, parte-hartzaileen profilen eta saioko helburuen arabera.
- f) Eman behar diren ikaskuntza-errefortzuak aurreikusi ditu.
- g) Pertsonekin (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokituetao praktikatzaileak), baliabide materialekin, espazioekin eta ingurunearekin lotuta gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikusi ditu.
- h) Taldeko kirol-jarduera fisikoak egitean sor daitezkeen arrisku-egoerak aurreikusi ditu, eta segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako hartu behar diren neurriak proposatu ditu.

4. Taldeko kirol-jarduera fisikoko saioak gidatu eta dinamizatzen ditu, jardueraren eta taldearen dinamikara egokituta (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetao praktikatzaileak).

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dagokion informazioa eman du (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilia: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona), taldeko kirol-jarduera fisikoetan parte-hartzera motibatzen saioaren hasieran eta amaieran.
- b) Atazak nola egin behar diren azaldu du, alderdi garrantzitsuak nabarmenduta, gerta daitezkeen exekuzio-akatsak aurreikusita, eta zenbait informazio-kanal erabilia (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilia: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona).
- c) Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako trebetasun motor espezifikoak erakutsi ditu, behar adina kalitatez, ikasleek egin behar duten atazaren irudikapen mental egokia eratu ahal izateko.
- d) Intentsitate- eta zailtasun-maila parte-hartzaileen ezaugarrietara (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokitueta praktikatzailerak) egokitu ditu, espazioak, materialak eta transmititzen den informazioa aldatuta.
- e) Taldeko kirol-jarduera fisikoak egitean detektatutako exekuzio-akatsak zuzendu ditu, eta akatsak eragin ditzaketen kausetan eta dagozkion uneetan esku hartu du.
- f) Taldeko kirol-jarduera fisikoen praktikan, parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokitueta praktikatzailerak) desinhibizioa errazten duen metodologia erabili du, pertsona arteko harremanak eta ahalik inplikazio handiena sustatuta, eta jardueraren garapena eta/edo harreman-giro egokia eragozten duten portaerak eragotzita.
- g) Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatu du eta sortu diren gorabeherak konpondu ditu.
- h) Taldeko kirol anitzetako lehiaketak antolatzen eta kontrolatzen irizpideak definitu ditu.

5. Taldeko kirol-jarduera fisikoak irakasteko-programa ebaluatzen du, ikuspegi ludikotik eta jolas-ikuspegitik, programa optimizatzen aukera ematen duten adierazleak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeko kirol-jarduera fisiko bakoitzeko ikaskuntza tekniko, taktiko eta estrategikoko ikaskuntza-mailak ezarri ditu.
- b) Taldeko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza ebaluatzen alderdi tekniko eta taktiko-estrategiko esanguratsuak zehaztu ditu, ikaskuntza-maila bakoitzean.
- c) Taldeko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza ebaluatzen esanguratsuak diren oinarri teknikoen alderdiak zehaztu ditu, ikaskuntza-maila bakoitzean.
- d) Taldeko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza teknikoak eta taktiko-estrategikoak ebaluatzen tresnak eta egoerak hautatu ditu, planteatutako helburuen arabera.
- e) Prozesu metodologikoa ebaluatzen tresnak diseinatu ditu, taldeko kirol-jarduera fisikoetako parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokitueta praktikatzailerak) parte-hartze eta gogobetetasun-maila handieneko irizpideei jarraituta.
- f) Hobekuntza-proposamenak egin ditu, prozesu osoaren ebaluazioan bildutako informazioa eta ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.
- g) Ikus-entzunezko euskarriak eta euskarri informatikoak erabili ditu, taldeko kirol-jarduera fisikoen praktikan behatutako erabakiak eta exekuzioak aztertzeko.



c) Edukiak:

1. TALDEKO KIROL-JARDUERA FISIKOEN EZAUGARRIAK	
prozedurazkoak	- Aztertzea nolako presentzia duten taldeko kirol-jarduera fisikoek eskola-kiroleko programetan (curriculumetik kanpoko jarduerak eskola-esparruan), udal-programetan, federazioen programetan, denbora librean, jolasaren arloko programetan, etab. - Jardueraren informazio-fitxa egitea: taldeko kirol-jarduera fisikoen ezaugarri / osagai guztien azterketa. - Taldeko kirol-jarduera fisikoen eta haien egokitzapenen oinarritzko arauak interpretatzea. - Taldeko kirol-jarduera fisikoen nomenklatura espezifikoaren erabilera eta irudikapen grafikoa.
kontzeptuzkoak	- kirol-jarduera fisikoak euskal kirol-ereduan: eskola-kirola, parte hartzeko kirola, errendimendukoa eta goi-mailakoa. Talde-kirolak kirol-animazioan. - Taldeko kirolak sailkatzeko irizpideak: komunikazio motor nagusiaren tipologia, inplikaturako trebetasun motorrak (oinarritzkoak eta espezifikoak), espazioaren erabilera eta parte-hartze mota. Proposamen didaktikoetarako eta jolas-arloko proposamenetarako inplikazioak. - Programetan eskaintzen diren taldeko kirol-jarduera fisikoen ezaugarri orokorrak, zenbait irizpide kontuan hartuta: alderdi fisikoak, teknikoak, taktikoak, estrategiakoak eta erregelamendukoak. Keinu teknikoak eta oinarritzko trebetasun eta abilezien eta trebetasun eta abilezia espezifikoak osagai kuantitatiboa (indarra, denbora edo abiadura) eta kualitatiboa (erritmoa, presioa edo arintasuna). - Taldeko kirol-jarduera fisiko zehatzen ezaugarri espezifikoak, inguruneke beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, inbasio-kiroletako (saskibaloia edo beste batzuk) talde-kirol jarduera fisikoak, zelai zatituko kiroletako (boleibola edo beste batzuk) talde-kirol jarduera fisikoak, etab. - Inbasio-kiroletako (saskibaloia) talde-kirol jarduera fisikoen ezaugarri espezifikoak: • Inbasio-kiroletako talde-kirol jarduera fisikoen egiturazko alderdiak: erregelamendua, joko-espazioa edo espazio soziomotorra eta haren osagaiak, denbora, taldekideak eta aurkariak. • Inbasio-kiroletako talde-kirol jarduera fisikoen alderdi funtzionalak: teknika edo exekuzio-ereduak, eraso- eta defentsa-printzipioak, komunikazio motorra eta estrategia motorra. Pentsamendu estrategikoa. Konponbide tekniko-taktikoak bilatzea. • Inbasioko talde-kirol jarduera fisiko motak, eta haien ezaugarriak eta printzipio komunak: - o Mugikarian txandaka eraginez espazio zatituan egiten diren jarduerak. - o Espazio komun batean eta txandaka parte hartuz egiten diren jarduerak. - o Espazio komun batean eta mugikariaren gainean aldi berean jardunda egiten diren jarduerak. - Zelai zatituko talde-kirol jarduera fisikoen (boleibola) ezaugarri

	espezifikak: • Taldeko kirol-jarduera fisikoen egiturazko alderdiak: erregelamendua, mugikaria, joko-espazioa edo espazio sozomotorra, denbora eta haren osagaiak, taldekideak eta aurkariak. • Zelai zatituko talde-kirol jarduera fisikoen alderdi funtzionalak: teknika edo exekuzio-ereduak, eraso- eta defentsa-printzipioak, komunikazio motorra eta estrategia motorra. • Zelai zatituko talde-kirol jarduera fisiko motak, eta haien ezaugarriak eta printzipio komunak: - o Mugikaria erremintarekin edo erremintarik gabe jasotzeko/jaurtitzeko jarduerak, zelai zatituan. - o Mugikariari tresnarik gabe jotzeko jarduerak, zelai zatitukoak. - o Mugikariari tresnarekin jotzeko jarduerak, zelai zatitukoak. - Taldeko beste kirol-jarduera fisiko batzuen ezaugarri espezifikak, honako hauetan ageri direnak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubien, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak. - Jarduera bakoitzaren ezaugarri espezifikoen inplikazio didaktikoak eta jolas-arlokoak. Transferentziak eta interferentziak ikaskuntzetan. - Taldeko kirol-jarduera fisikoen erregelamenduak. Taldeko kirolean, aldagaiak manipulatzeko irizpideak, jolas-ikuspegi batetik: materiala (mugikaria eta erremintak), helmugak (saskiak, ateak, zelaiko eremuak, etab.). Egokitutako erregelamendua. Lehiaketa-erregelamenduak. - Nomenklatura espezifikoa. Taldeko kirol-jarduera fisikoen irudikapen grafikoa. - Taldeko kirol-jarduera fisikoen praktikarako instalazioen eta ekipamenduen tipologia, ezaugarriak, segurtasun-baldintzak eta manipulazio didaktikorako marjina.
jarrerazkoak	- Taldeko kirol-jarduera fisikoen atzean dauden printzipioak ulertzeko interesa izatea, tresna metodologikoak diren aldetik. - Ingurunean kirol-jarduera fisikoak egiteko dagoen eskaintzaren eta haren ezaugarrien ikerketan ekimena izatea.

2. TALDEKO KIROL-JARDUERA FISIKOAK IRAKASTEKO BALIABIDEEN ANTOLAKETA

prozedurazkoak	- Erabiltzaileei edo parte-hartzaileei (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokituetao praktikatzailerak) orientabideak eta informazioa ematea, eraman behar dituzten jantziei eta material pertsonalari buruz. - Behar diren instalazio, ekipamendu eta materialak bilatzea eta hautatzea: ahalik eta parte-hartze eta segurtasun handiena lortzeko irizpideak aplikatzea. - Parte-hartzaileak (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetao praktikatzailerak) eta materialak jarduerari esleitutako instalazioan, espazioan eta denboran antolatzea. - Espazioak eta materialak pertsona mota desberdinen (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetao
----------------	---



	praktikatzailleak) ikaskuntzarako eta parte-hartzerako egokitzea. - Taldeko kirol-jarduera fisikoetan erabilitako materialak gainbegiratzeara eta haien mantentze-lanak egitea. • Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako materialen inbentarioa (kokapena eta biltegiatzea, baldintzak, kantitatea, etab.). • Instalazio, ekipamendu eta materialetan izandako gorabeherak erregistratzeko fitxak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako laguntza- eta kontsulta-baliabideak hautatzea. Informatikoak, bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	- Parte-hartzaileek (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokitueta praktikatzailleak) taldeko kirol-jarduera fisikoak segurtasunez eta eroso egiteko behar dituzten janzkera (oinetakoak eta arropa) eta osagarriak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoak praktikatzeko instalazioak eta ekipamenduak. • Instalazio motak eta instalazioen ezaugarriak. Betekizunak. • Instalazioen mantentze-lanekin, segurtasunarekin eta higie-nearekin lotutako araudiak. - o Instalazio irekiak: kokapena, lurzoru-gainazala (zoladurak), kanpoko segurtasun-bandak. Ekipamenduak: ainguratzeak eta kontrapisuak. - o Instalazio itxiak: barrualdea, hormak eta haietan instalatutako elementuak, lurzoru-gainazala (zoladura mota), sabaien altuera, ateak, erradiadoreak, leihoak eta haietan kokatutako elementuak, kanpoko segurtasun-bandak, ekipamenduak (ainguratzeak eta kontrapisuak), ekipamendu mugikorra, argiak, aireztapena eta tenperatura. - o Bestelako instalazioak. • Arkitektura-oztopoak eta instalazioen egokitzapena. • Kirol-instalazio bateko aparatuak eta materialak ikuskatzeko sistemak. • Mantentze-lanekin, segurtasunarekin eta higie-nearekin lotutako araudi espezifikoak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoak egiteko material espezifiko eta lagungarria: • Saskibaloiko jardueretarako materialak. • Boleiboleko jardueretarako materialak. • Taldeko beste kirol-jarduera fisiko batzuetarako materialak. - Deskribapena, ezaugarriak eta haiek erabiltzeko, garraiatzeko eta biltegiatze-ko segurtasun- eta eraginkortasun-irizpideak. - Espazio, ekipamendu eta material ez-konbentzionalak, taldeko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzarako, jolas-arlorako edo kirol-animaziorako egokitu daitezkeenak. - Taldeko kirol-jardueretako kirol-instalazioen erabilera eta gozamena optimizatze-ko irizpideak. Denboren eta espazioen antolaketa. - Jardueraren jarraipena eta kontrola egiteko baliabideak: denboraldiaren programazioa, jardueraren informazio-fitxa, saioaren fitxa, taldearen fitxa, inbentarioa, exekuzio-txostenak, memoria, etab. - Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako erabiltzen diren instalazioetako segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako oinarritzko protokoloak. • Arrisku-faktoreak eta arriskutsuak izan daitezkeen eremuak. • Beste profesional batzuekin koordinatzea. • Erreferentziazko legedia eta araudiak. • Tokiko eta autonomia-erkidegoko administrazio eskudunak. - Teknikari profesionalaren erantzukizunak: bere eskumeneko

	segurtasun-alderdiak, instalazioen, ekipamenduen eta materialaren egoerarekin lotuak.
jarrerazkoak	- Jarduerak segurtasunez eta eroso egiteko ekipo pertsonal eta material egokia erabiltzeko konpromisoa hartzea. - Instalazioak, ekipamenduak eta materialak egoki erabiltzearen garrantzia baloratzea. - Zorroztasuna segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako oinarritzko protokoloetako jarraibideak betetzean. - Jarrera proaktiboa izatea jardueretan erabiltzen den materiala kokatzean eta biltzean.

3. TALDEKO KIROL-JARDUERA FISIKOEN HASTAPEN-SAIOAK DISEINATZEA.

prozedurazkoak	- Saioaren helburu didaktikoak definitzea: programazio orokorra (sasoikoa, urtekoa, opor-aldikoa, intentsiboa, etab.), programa (eskolakoa, eskola-ordutegitik kanpokoa, parte-hartzekoa, udalekoa, kirol-eskolakoa, etab.) edo erakundea (publikoa/pribatua, klubak, jarduera fisikoen alorreko enpresak, etab.) interpretatzea. - Saioaren helburu didaktikoak, edukiak eta metodologia erregistratzea saioaren erregistratze-fitxan. - Eduki fisikoak, teknikoak eta taktiko-estrategikoak integratzea proposatutako saioan. - Jardueren sekuentziazioa: irizpide fisiologikoak, motibaziokoak eta zailtasun-graduak (espazio erlatiboa, estimulu kopurua, funtzioen abiadura, oposizio-maila, etab.) aplikatzea. - Egokitzapenak aurreikustea ataza motor espezifikoetan, parte-hartzaileen ezaugarrien arabera (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokitueta praktikatzailerak). - Ikaskuntza indartzeko tresnak prestatzea (informatikoak, ikus-entzunezkoak) (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). - Gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikustea. - Eraginkortasuneko eta segurtasuneko irizpideak aplikatzea, saioan zehar espazioak, ekipamenduak eta materialak erabiltzeko egindako proposamenean.
kontzeptuzkoak	- Programa orokorra, jardueraren fitxa eta saioen kopurua/kokapena denboraldiko edo programako egutegian. - Parte-hartzaileen taldearen fitxa. Kopurua eta oinarritzko datuak (izena, adina, etab.). - Saioaren egitura. Motak. Saioaren erregistratze-fitxa. Kalkulatutako lan-denborak eta denbora errealak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoetan hasteko saio-ereduak, adin-profil edo kategoria desberdinetarako. - Sekuentziazio- eta tenporalizazio-irizpide espezifikoak taldeko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-ikaskuntzako atzetan. - Planteatutako helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia bermatzeko irizpideak. - Trebetasun espezifikoaren irakaskuntza ataza globaletan integratzeko formulak. - Parte-hartzaileak (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta



	jarduera egokituetako praktikatzaileak) taldeko kirol-jarduera fisikoen praktikara fidelizatzea sustatzeko estrategiak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza indartzeko tresnak. - Taldeko kirol-jarduera fisiko zehatzak irakasteko saio espezifikoak, inguruneko beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, inbasio-kiroletako (saskibaloia edo beste batzuk) talde-kirol jarduera fisikoak, zelai zatituko kirol-taldea (boleibola edo beste batzuk) talde-kirol jarduera fisikoak, etab. - Inbasio-kiroletako (saskibaloia) talde-kirol jarduera fisikoetan hasteko irakaskuntza-saio espezifikoak: • Saskibaloian ikasteko prozesuaren mailak: oinarri tekniko, taktiko eta estrategiakoak, eta haien arteko lotura. • Saioaren helburuak, parte-hartzaileen mailaren/adinaren/profilaren arabera (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokituko praktikatzaileak). Koherentzia-irizpideak helburuen eta proposatutako jardueren artean. • Progresio metodologikoa saskibaloian irakaskuntzan. Trebetasun espezifikoak. • Saioetarako ariketak eta atazak. Zailtasun-faktoreak. Espazio erlatiboa, estimulu kopurua, exekuzio-abiadura eta oposizio-maila. • Saskibaloian kirol aurreko jokoak (jokatutako formak, egoera murriztuak, joko aldatuak eta mini kirolak). • Saioak saskibalo-erakundeetan. Udalekoak edo kirol-klubetakoak. - Zelai zatituko (boleibola) talde-kirol jarduera fisikoetan hasteko irakaskuntza-saio espezifikoak: • Boleibolaren ikasteko prozesuaren mailak: oinarri tekniko, taktiko eta estrategiakoak, eta haien arteko lotura. • Saioaren helburuak, parte-hartzaileen mailaren/adinaren/profilaren arabera (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokituko praktikatzaileak). Koherentzia-irizpideak helburuen eta proposatutako jardueren artean. • Progresio metodologikoa boleibolaren irakaskuntzan. • Saioetarako ariketak eta atazak. Zailtasun-faktoreak. Espazio erlatiboa, estimulu kopurua, exekuzio-abiadura eta oposizio-maila. • Boleibolaren kirol aurreko jokoak (jokatutako formak, egoera murriztuak, joko aldatuak eta mini kirolak). • Saioak boleibol-erakundeetan. Udalekoak edo kirol-klubetakoak. - Taldeko beste kirol-jarduera fisiko batzuetan hasteko irakaskuntza-saio espezifikoak, honako hauek erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubien, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoko saioetan kontuan hartu beharreko oinarriko segurtasun-arauak. Espazioa eta materialak kontrolatzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko teknikak. (Taldea: parte-hartzaileen posizioa eta haien arteko distantziak, mugikarien ibilbideak, jokalarien mugimenduak, etab.).
--	---

jarrerazkoak	- Saioaren idatzizko plangintza egitearen garrantzia baloratzea. - Saioak aldizka eta prestasunez bidaltzea antolakundeko edo eskola-zentroko dagokion arduradunari. - Sormena saioko irakaskuntza-jardueren diseinuan.
--------------	---

4. TALDEKO KIROL-JARDUERA FISIKOEN HASTAPEN-SAIOAK GIDATZEA ETA DINAMIZATZEA

prozedurazkoak	- Saioaren hasieran eta amaieran dagokion informazioa komunikatzea: Parte-hartzea sustatzeko motibazioa. - Diseinatutako fitxari jarraitzea, saioa egin bitartean, planifikatutakoa errespetatuz eta doituz, eta hobetzeko oharrak hartuz. - Saiorako bertaratzea kontrolatzea. - Atazak nola egin behar diren azaltzea: haien alderdi garrantzitsuak, gerta daitezkeen exekuzio-akatsak eta zenbait informazio-kanalen erabilera. - Taldeko kirol-jarduera fisikoetako modalitate bakoitzaren ekintza motor espezifikoak erakustea. - Intentsitate- eta zailtasun-maila egoera partikular jakin batera egokitzea. - Oinarri teknikoak aplikatzea jokaturako egoeretan eta erasoaren eta defentsaren antolaketa kolektiboan. - Taldeko kirol-jarduera fisikoak erabiltzea egoera ludikoetarako eta jolas-egoeretarako. - Detektatutako exekuzio-akatsak zuzentzea: akatsak eragin ditzaketen kausak, esku hartzeko une egokiak. Feedbacka sarri erabiltzea (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). - Jardunari buruzko gogoeta egiteko eta hitz egiteko uneak ezartzea (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). - Metodologia desberdinak erabiltzea, saioaren helburuen arabera. - Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatzea ezarritako protokoloaren arabera. Taldearen fitxaren kudeaketa. - Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea aplikatzea taldeko kirol-jarduera fisikoaren jardun-testuinguruan.
kontzeptuzkoak	- Esku hartzeko teknikak, taldeko kirol-jarduera fisiko saioen gidaritzan: • Atazak eta elementu teknikoak azaltzea eta erakustea. • Haien eraginkortasuna areagotzeko estrategiak: ikaskuntza-ereduak eta memorizazio-estrategiak erabiltzea, zenbait angelutatik errepikatzea. - Taldeko kirol-jarduera fisiko txapelketak eta ekitaldiak zuzentzeko irizpideak, baliabideak eta arauak. - Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea taldeko kirol-jarduera fisikoaren jardun-testuinguru desberdinetan aplikatzeko gomendioak eta betebeharrak. - Taldeko kirol-jarduera fisiko zehatzak gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibide eta aholku espezifikoak, ingurune beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, inbasio-kiroletako (saskibaloia edo beste batzuk) talde-kirol jarduera fisikoak, zelai zatituko kiroletako (boleibola edo beste batzuk) talde-kirol jarduera fisikoak, etab. - Saskibaloiko hastapeneko talde-kirol jarduera fisikoak gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibideak eta aholku espezifikoak:



	• Instalazioarekin, materialekin eta ekipamenduekin ohitzeko jarduerak. • Oinarri teknikoak. - o Banakako eta taldeko eraso-teknikak: mehatxu hirukoitzaren posizioa, pibotea, botea, driblina, desmarkatzea, iskinak, errebotea, etab. Akats ohikoenak eta kausa posibleak. - o Banakako eta taldeko defentsa-teknikak: oinarritzko posizioa, lekualdatzeak, keinuak, iskinak, blokeoa, etab. Akats ohikoenak eta kausa posibleak. • Oinarri taktikoak joko-egoeretan. - o Oinarritzko eraso-sistema taktikoak. Antolaketa kolektiboa. Kopuru-nagusitasuneko egoerak. - o Oinarritzko hartze- eta defentsa-sistema taktikoak. Antolaketa kolektiboa. Kopuru-nagusitasuneko egoerak. Kontraerasoa. Defentsa-balantzea. - o Joko-egoerak: 1x0, 1x1, 2x2, 3x3, besteak beste. - o Joko aldatua. - o Progresioa egoera taktikoen zailtasunean. • Saskibaloian oinarritutako taldeko kirol- eta jolas-jarduera fisikoak. - Boleiboleko hastapeneko talde-kirol jarduera fisikoak gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibideak eta aholku espezifikoak: • Instalazioarekin, materialekin eta ekipamenduekin ohitzeko jarduerak. • Oinarri teknikoak. - o Banakako eta taldeko eraso-teknikak: funtsezko posizioa, sakea, hartzea, blokeoa, etab. Akats ohikoenak eta kausa posibleak. - o Banakako eta taldeko defentsa-teknikak: • Oinarri taktikoak joko-egoeretan: - o Oinarritzko eraso-sistema taktikoak. Antolaketa kolektiboa. Nagusitasuneko egoerak. - o Oinarritzko hartze- eta defentsa-sistema taktikoak. Antolaketa kolektiboa. Nagusitasuneko egoerak. - o Joko-egoerak: 1x0, 1+1, 1x1 eta 2+2. 2x2 eta 3x3. - o Joko aldatua. - o Progresioa egoera taktikoen zailtasunean. • Boleibolean oinarritutako taldeko kirol- eta jolas-jarduera fisikoak. - Taldeko beste kirol-jarduera fisiko batzuetarako jarraibide eta aholku espezifikoak, honako hauetan erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubien, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak.
jarrerazkoak	- Puntueltasuna saioa hasteko eta amaitzeko. - Parte-hartzaileak (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak eta jarduera egokitueta praktikatzailerak) edo beste pertsona giltzarri batzuk egunez egun erakartzeko eta ilusionatzeko interesa izatea, esfortzua, lana eta intentsitatea baliatuta. - Jarrera irekia, adeitsua eta errespetuzkoa beste pertsonetikiko tratuan. - Saioan, inplikatzeko, taldean elkarreraginean aritzeko eta banakako zein talderako feedback ugari emateko jarrera izatea (ahal dela,

	komunikazioaren xede diren pertsonak erabiltzen duten hizkuntza erabiliz: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona).
--	---

5. TALDEKO KIROL-JARDUERA FISIKOEN IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZAKO PROZESUA EBALUATZEA	
prozedurazkoak	- Taldeko kirol-jarduera fisiko bakoitzaren ikaskuntza-mailak ezartzea. - Taldeko kirol-jarduera fisikoaren ikaskuntzaren ebaluaziorako alderdi tekniko, fisiko eta taktiko-estrategiko esanguratsuak zehaztea, ikaskuntza-maila bakoitzean. - Taldeko kirol-jarduera fisikoaren ikaskuntza teknikoak eta taktiko-estrategikoak ebaluatzeko tresna eta jarduera egokiak hautatzea, planteatutako helburuen arabera. - Prozesu metodologikoa ebaluatzeko tresnak diseinatzea. - Jokalariaren (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetako praktikatzailerak) maila tekniko eta taktiko-estrategikoaren ebaluazioa egitea taldeko kirol-jarduera fisikoetan. - Hobekuntza-proposamenak egitea. Autoebaluazioa.
kontzeptuzkoak	- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ebaluatu daitezkeen osagaiak. Ebaluazio-prozesuen helburuak. - Eskola-kiroleko, parte-hartzeko kiroleko, kirol-eskoletako, federazioetako, kirol-klubetako edo -elkarteetako eta abarretako programetan taldeko kirol-jarduera fisikoetarako ezartzen diren ikaskuntza-mailak. - Ebaluatu beharreko alderdiak: • Maila bakoitzeko alderdi fisiko, tekniko eta taktiko-estrategiko esanguratsuak. Maila bakoitzean exekuzioa zuzena dela zehazten duten irizpideak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoko programen ebaluazioan erabiltzen diren tresnak eta egoerak, eta haiek prestatzeko eta erabiltzeko irizpideak: • Erregistro anekdotikoa; aurretiko ezagutzen erregistroa; erkatze-edo kontrol-zerrenda; erkatze-zerrenda, lorpen-adierazleak erabilita; autoebaluazio-fitxa; koebaluazio-fitxa; behaketa-eskala deskribatzailea; txantiloierdi-irekiak; galdetegia; ikus-entzunezko bitartekoak eta bitarteko informatikoak; proba praktikoak, etab. • Ebaluazio-prozesu horien tenporalizazioa. - Parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetako praktikatzailerak) parte-hartzea eta gogobetetasun-maila ebaluatzeko alderdiak eta tresnak: • Parte-hartzaileen (haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak, eta jarduera egokituetako praktikatzailerak) beharrak, motibazioak, sinesmenak, jarrerak eta espektatibak. • Ebaluazio-tresna espezifikoak: gogobetetasun-inkesta, elkarriketa, autoebaluazio-fitxa, behaketa-eskala, galdetegia, bertaratzeak erregistratzeko inprimakia. • Ebaluazio-prozesu horien tenporalizazioa. - Saioaren autoebaluazioan eta saioaren edo programaren animatzailearen autoebaluazioan kontuan hartu beharreko alderdiak.
jarrerazkoak	- Atazan eta xehetasunetan kontzentratzea. - Zorroztasuna ebaluazio-tresnen aplikazioan. - Jarrera kritikoa irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan hobetu daitezkeen alderdiekiko.



- | | |
|--|---|
| | - Jardueretan inplikatur dauden beste pertsona batzuek egindako iradokizunak entzuteko eta aintzat hartzeko jarrera izatea. |
|--|---|

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau “Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa”ren testuinguru orokorrean kokatu behar da, eta animatzailearen figurari buruz beharrezkoa den informazioa eman behar da, moduluarekin erlazionatuta eta haren konpetentziak eta jardun-printzipioak nabarmenduta.

Edukiak bi fasetan ordenatzen dira:

- Hasierako maila ezagutzea, hautatutako kirolean konpetentzia motorra hobetzea eta baliabideak kudeatzea.
- Saioak diseinatzea, zuzentzea eta dinamizatzea, eta prozesu osoa ebaluatzea.

Jarraian, fase bakoitzean aplikatu beharreko zenbait jarraibide ematen dira:

Lehen fasea: Hasierako maila ezagutzea, hautatutako kirolean konpetentzia motorra hobetzea eta baliabideak kudeatzea:

- 5. blokeko edukiekin hastea proposatzen da. Hasierako ebaluazio bat egingo da, hautatutako taldeko kirolean ikasleek duten maila teknikoari, taktiko-estrategikoari buruz eta araudiaren ezagutzari buruz. Ebaluazio-prozesuak berekin ekarri behar du ikaslearen inplikazio kognitiboa. Ildo horretatik, ikasleari azalduko zaio zer alderdi ebaluatuko diren, horretarako zer tresna eta protokolo zehatz erabiliko den eta emaitza zein den, eta adieraziko zaio, halaber, nolako ikaskuntza-mailatik abiatuko den.
- Behin ikasle bakoitzaren abiapuntu-maila ezarrita, beste aldi bat hasiko da, non konbinatuko baitira, batetik, taldeko kirolen ezaugarri orokorren inguruko lana eta kirol horiek Euskal Autonomia Erkidegoko programetan duten presentzia (1. eduki-blokea) eta, bestetik, irakasleek programatutako eta zuzendutako saio praktikoak egitea; saio horietan, konpetentzia-mailan sakonduko da, betiere hautatutako kirolen eduki hauei dagokienez
 - Instalazioarekin, materialekin eta ekipamenduekin ohitzeko jarduerak.
 - Banakako eta taldeko oinarritzko eraso- eta defentsa-teknikak.
 - Eraso- eta defentsa-sistemak.
 - Joko aldatua.
 - Taldeko kirol- eta jolas-jarduera fisikoak.
- Saio praktikoak gauzatzen diren bitartean, egokia da, edukia kontuan hartuta, instalazio, ekipamendu eta materialekin lotutako edukiak ere irakastea, bai eta segurtasunarekin eta arriskuen prebentzioarekin lotutakoak ere.

Bigarren fasea: Saioak diseinatzea, zuzentzea eta dinamizatzea, eta prozesu osoa ebaluatzea:

- Arian-arian, ikasleen esku utziko da fase honetako tituluan adierazitako atazen gaineko ardura, eta lehenengo faseko lana aberastea proposatuko zaie, taldeko kirol ezagunen edo bestelakoen irakaskuntza-ikaskuntza aztertuz, eta, horretarako, honako tresna hauek ikasleen esku utziz: programazio orokorra, diseinuaren erreferentzia gisa; elementu erabilgarriak kirol-jarduera fisikoen saioak diseinatzerakoan; saioak gidatzean eta dinamizatzean esku-hartzeko teknikak; parte-hartze maila eta gogobetetasun-maila ebaluatzeko tresnak; autoebaluazioa, etab.
- Zeharka tratatu behar dira tresna horiek, beste modulu batzuekin koordinatuta, eta, horregatik, honako alderdi hauei garrantzi handia emango zaie:
 - o Hautatutako taldeko kirolean ebaluatu beharreko osagaiak.
 - o Ikaskuntza-mailak ezartzea hautatutako taldeko kirolean.
 - o Ebaluaziorako tresna espezifikoak hautatzea eta haien tenporizazioa ezartzea.
 - o Taldeko kirolen irakaskuntza-ikaskuntzako ataza espezifikoaren sekuentziak.
 - o Ekintza motor espezifikoak azaltzea eta erakustea.
 - o Hutsak zuzentzea, eta beharizanetara egokitzea.

2) Alderdi metodologikoak

Oro har, metodologia aktiboak aplikatuko dira, ikasteko testuinguru berriarekin bat datozenak, hau da: errendimendu handiko zikloak – ETHAZI. Ereduaren ardatz nagusia **ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZA** da. Erronketan, ebatzi beharreko egoera korapilatsuak planteatzen dira, laneko errealitatearen egoeretatik gertu daudenak, eta, egoera horiek konpontzeko, beharrezkoa da zikloko zenbait moduluren arteko elkarlana, eta, gainera, konpetentzia tekniko eta zeharkakoak aplikatu behar dira, hala nola ikasteko autonomia, talde-lana, emaitza apartak lortzeko orientazioa, etab.

Sekuentziatorako ezarritako faseetatik lehenengoan, honako hauek erabil ditzake irakasleak:

- Modulua aurkezteko eta taldeko kirolen ezaugarriak adierazteko azalpenezko-jarduerak.
- Ikasleek banakako edo taldekako lanak egitea, non aztertuko baita nolako presentzia duten taldeko kirolek Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen kirol-programetan.
- Gomendagarria da irakasleek irakaskuntza-metodo eta -estilo desberdinak erabiltzea; izan ere, halakoen bidez, gogoeta sustatuko dute ikasleen artean. Hala, harreran eta ikerketan oinarritutako metodoak aurkeztu eta azalduko dituzte irakasleek, zuzendutako ataza bakoitzaren izaerara egokituak:
 - o Zuzeneko jarraibideak, atazak esleitzea, elkarrekiko irakaskuntza, mikroirakaskuntza eta talde txikietan egindako irakaskuntza, oinarri tekniko-taktikoen ikaskuntzarako.
 - o Aurkikuntza gidatua eta arazoak konpontzea, oinarri taktikoen ikaskuntzan; joko aldatuak, eta taldeko kirol- eta jolas-jarduera fisikoak.
- Ikasi beharrekoak izango dira, halaber, irakaskuntza-estilo desberdinak, haien onurak eta desabantailak, eta haiek aplikatzeko unea eta era, eta hala jasota dago 4. eduki-blokean.

Sekuentziakzioaren bigarren fasean, autonomia progresiboko egoerak sortuko dira, eta, haietan, ikasleek, arian-arian, beren gain hartuko dute taldeko kirolen irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuarekin lotutako alderdi batzuen edo guztien ardura, gero eta



egoera konplexuetatik abiatuta eta kasu praktiko zehatzen bidez antolatuta (erabiltzaileen kopurua eta maila, programaren helburuak, atazetara egokitutako irakaskuntza-metodoak, instalazio eta material erabilgarriak, etab.).

Ikasleek beren ardurapean hartutako atazei buruz gogoeta egiteko, eztabaidatzeko eta lana bateratzeko espazioak sustatu eta zuzenduko dituzte irakasleek, eta ikasleak inplikaturako dituzte haien jarduna eta ikaskideena ebaluatzeko prozesuan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Konpetentzia motorrean sakondu eta hobetzeko jarduerak, hautatutako talde-kiroletan, Sekuentziazioaren bigarren fasean, aparteko garrantzia emango zaio ekintza motorrak erakusteko, exekuzio-akatsak zuzentzeko eta ekintzok parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzeko gaitasunari.
- ✓ Giltzarri dira hautatutako taldeko kiroletan konpetentzia motorraren bilakaera ebaluatzeko jarduerak. Irakasleek moduluaren hasieran egingo dute ebaluazio hori, eta ikasleek errepikatu beharko dute prozesuan programatutako zenbait momentutan.
- ✓ Irakasleen egitekoa da saioen diseinuaren alderdi garrantzizkoak ebaluatzea: Saioaren helburu didaktikoen eta programazio orokorraren arteko lotura, jarduerak egoki sekuentziatu eta integratzea, indartze-tresnak erabilgarri izatea eta gorabeheretara egokitzeko aukerak.
- ✓ Helburua da ikasleak inplikatzeko taldeko kirolen saioak zuzentzeko eta dinamizatzeko lanaren zenbait alderditan, irakasleek aurretik finkatutako irizpideetatik abiatuta.

8. LANBIDE-MODULUA

TRESNA BIDEZKO KIROL-JARDUERA FISIKOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Tresna bidezko kirol-jarduerak fisikoak
Kodea:	1141
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	160 ordu
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotua
Helburu orokorrak:	6 / 7 / 9 / 10 / 13 / 15 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ezaugarriak adierazten ditu, proposamen didaktikoak jolas-ikuspegiz prestatzean manipulatu daitezkeen aldagaiak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen sailkapenak multzokatzeko irizpideak alderatu ditu.
- Baloratu du nolako garrantzia duen osagai fisikoak, teknikoak eta taktikoak tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetan.
- Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetako trebetasun tekniko espezifikoak lotu ditu oinarrizko trebetasun eta abilezia motorrekin.
- Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen egiturazko osagaiak eta osagai funtzionalak baloratu ditu
- Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen oinarrizko arauak eta nomenklatura espezifikoak interpretatu ditu.
- Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetarako instalazio eta ekipamendu espezifikoaren ezaugarriak eta segurtasun-baldintza optimoak argudiatu ditu.
- Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzarekin lotutako material espezifiko, egokitu, alternatibo eta lagungarrien aplikazioak probatu ditu.

2. Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-programetan inplikaturako baliabideak antolatzen ditu, efikazia- eta efizientzia-irizpideak definituta.

**Ebaluazio-irizpideak:**

- a) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak egiteko instalazioak, ekipamenduak eta behar diren materialak hautatu ditu, ahalik parte-hartze handiena lortzeko asmoz, eta segurtasun handieneko baldintzak bermatuz.
- b) Pertsonen antolaketa, materialen kokapena eta denboraren eta espazioaren erabilera definitu ditu tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetan.
- c) Joko-espazioak egokitu ditu, tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza, jolasa eta parte-hartzea sustatzeko moduan.
- d) Tresnak diseinatu ditu tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetako materialaren, ekipamenduen eta instalazioen egoeraren etengabeko kontrola egiteko .
- e) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetako laguntza- eta kontsulta-baliabideak zehaztu ditu (informatikoak, bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste).
- f) Zehaztu du parte-hartzaileek jarduera egiteko nolako jantziak eta material pertsonala eraman behar dituzten, tresna bidezko kirol-jarduera fisiko zehatzerako egokiak direla bermatzeko.
- g) Bere ardurapeko arloari dagokion segurtasunerako eta arrisku-prebentziorako protokoloa prestatu du.
- h) Egiaztatu du zer egoeratan dauden bere erantzukizun-arloko segurtasunarekin eta arrisku-prebentzioarekin lotutako elementuak, tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzan.

3. Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak irakasteko saioak diseinatzeko dituen oinarriko programarekin, jarduera motarekin eta erreferentziazko taldearekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoko saio baten faseak identifikatu ditu.
- b) Saioaren helburu didaktikoak, edukiak eta metodologia definitu ditu, programazio orokorrarekin bat etorritik.
- c) Eduki teknikoak eta taktiko-estrategikoak integratu ditu tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-atazen sekuentzian.
- d) Jardueren sekuentziazioa egitean, irizpide fisiologikoak eta motibaziokoak baliatu ditu.
- e) Ataza motor espezifikoetarako egokitzapenak diseinatu ditu, parte-hartzaileen profilen eta saioaren helburuen arabera.
- f) Aurreikusi du nolako ikaskuntza-errefortzuak eta informazio-errefortzurako nolako baliabide eta euskarriak eman behar diren.
- g) Pertsonekin, baliabide materialekin, espazioekin eta ingurunearekin lotuta gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduerak alternatiboak aurreikusi ditu.
- h) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak egitean sor daitezkeen arrisku-egoerak aurreikusi ditu, eta segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako hartu behar diren neurriak proposatu ditu.

4. Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoko saioak gidatu eta dinamizatzen ditu, jardueraren eta taldearen dinamikara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dagokion informazioa eman du saioaren hasieran eta amaieran, tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetan parte-hartzera motibatze aldera.
- b) Atazak nola egin behar diren azaldu du, alderdi garrantzitsuak nabarmenduta, gerta daitezkeen exekuzio-akatsak aurreikusita, eta zenbait informazio-kanal erabilia.
- c) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetarako trebetasun motor espezifikoak erakutsi ditu, behar adina kalitatez, ikasleek egin behar duten atazaren irudikapen mental egokia eratu ahal izateko.
- d) Intentsitate- eta zailtasun-maila parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitu ditu, espazioak, materialak eta transmititzen den informazioa aldatuta.
- e) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak egitean detektatutako exekuzio-akatsak zuzendu ditu, eta akatsak eragin ditzaketen kausetan eta une egokietan esku hartu du.
- f) Parte-hartzaileen desinhibizioa errazten duen metodologia erabili du tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen exekuzio praktikoan, pertsona arteko harremanak eta haien ahalik inplikazio handiena sustatuta, eta jardueraren garapena eta/edo harreman-giro egokia eragozten duten portaerak eragotzita.
- g) Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatu du eta sortu diren gorabeherak konpondu ditu.
- h) Tresna kirol anitzetako lehiaketak antolatzeke eta kontrolatzeko irizpideak definitu ditu.

5. Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-programa ebaluatzen du, ikuspegi ludikotik eta kirol-ikuspegitik, programa optimizatzeko aukera ematen duten adierazleak zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tresna bidezko kirol-jarduera fisiko bakoitzeko ikaskuntza tekniko, taktiko eta estrategikoko ikaskuntza-mailak ezarri ditu.
- b) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza ebaluatzeke alderdi tekniko eta taktiko-estrategiko esanguratsuak zehaztu ditu, ikaskuntza-maila bakoitzean.
- c) Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza ebaluatzeke esanguratsuak diren oinarri teknikoen alderdiak zehaztu ditu, ikaskuntza-maila bakoitzean.
- d) Tresnak eta egoerak hautatu ditu ikaskuntza teknikoak eta taktiko-estrategikoak ebaluatzeke tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetan, betiere planteatutako helburuen arabera.
- e) Prozesu metodologikoa ebaluatzeke tresnak diseinatu ditu, tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetan parte-hartzen dutenen parte-hartze eta gogobetetasun-maila handieneko irizpideei jarraituta.
- f) Hobekuntza-proposamenak prestatu ditu, prozesu osoaren ebaluazioan bildutako informazioaren analisia eta ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.
- g) Ikus-entzunezko euskarriak eta euskarri informatikoak erabili ditu, tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen praktikan behatutako erabakiak eta exekuzioak aztertzeke.

c) Edukiak:

1. ADIERAZTEA ZEIN DIREN TRESNA BIDEZKO KIROL-JARDUERA FISIKOEK DITUZTEN EZAUGARRIAK JOLAS-JARDUERAN	
prozedurazkoak	- Aztertzea nolako presentzia duten tresna bidezko kirol-jarduera



	fisikoeu eskola-kiroleko programetan (curriculumetik kanpoko jarduerak eskola-esparruan), udal-programetan, federazioen programetan, denbora librean, jolas-programetan, etab. - Jardueraren informazio-fitxa egitea: tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ezaugarri / osagai guztien azterketa. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen eta haien egokitzapenen oinarritzko arauak interpretatzea. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen nomenklatura espezifikoa erabiltzea eta jarduera horiek grafikoki irudikatzea.
kontzeptuzkoak	- Tresna bidezko kirolak euskal kirol-ereduan: eskola-kirola, kirol parte-hartzailea, errendimendukoa eta goi-mailakoa. Tresna bidezko kirolak kirol-animazioan. - Tresna bidezko kirolak sailkatzeko irizpideak: komunikazio motor nagusiaren tipologia, inplikaturako trebetasun motorrak (oinarritakoak eta espezifikak), espazioaren erabilera, alderdi taktikoak, erregelamenduko alderdiak eta parte hartze mota. Proposamen didaktikoetarako eta jolas-arloko proposamenetarako inplikazioak. - Programetan eskaintzen diren tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ezaugarri orokorrak, zenbait irizpide kontuan hartuta: alderdi fisikak, teknikoak, taktikoak, estrategiak eta erregelamendukoak. Keinu teknikoaren eta oinarritzko trebetasun eta abilezien eta trebetasun eta abilezia espezifikoen osagai kuantitatiboa (indarra, denbora edo abiadura) eta kualitatiboa (erritmoa, presioa edo arintasuna). - Tresna bidezko kirol-jarduera fisiko zehatzen ezaugarri espezifikak, ingurune (lehorrekoa, uretako, airekoa) beharren, enpresa-ekariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, kantxa zatituko (tenis, padel edo beste batzuk), kantxa partekatuko (euskal pilota edo beste batzuk) eta abarretako tresna bidezko kirol-jarduera fisikak. - Zelai zatituko tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ezaugarri espezifikak: • Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen egiturazko alderdiak: erregelamendua, mugikaria, joko-espazioa edo espazio soziomotorra, denbora eta haren osagaiak, taldekideak eta aurkariak. • Zelai zatituko talde-kirol jarduera fisikoen alderdi funtzionalak: Teknika edo exekuzio-ereduak, eraso- eta defentsa-printzipioak: komunikazio motorra eta estrategia motorra. Konponbide tekniko-taktikoak bilatzea. Pentsamendu estrategikoa. • Zelai zatituko tresna bidezko kirol-jarduera fisiko motak, eta haien ezaugarriak eta printzipio komunak. - Zenbait programatan ageri diren tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ezaugarri espezifikak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubien, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak. - Jarduera bakoitzaren ezaugarri espezifikoen inplikazio didaktikoak eta jolas-arlokoak. Transferentziak eta interferentziak ikaskuntzetan. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen erregelamenduak. Aldagaiak manipulatzeko irizpideak, jolas-ikuspegi batetik: materiala (mugikaria eta erremintak), helmugak (zelako eremuak, puntuak, etab.). Egokitutako erregelamendua. Lehiaketa-erregelamenduak.

	- Nomenklatura espezifikoa. • Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irudikapen grafikoa. - Padel, tenis eta euskal pilotako instalazioen eta ekipamenduen tipologia, ezaugarriak eta segurtasun-eskakizunak, eta tresna bidezko beste kirol-jarduera fisiko batzuekin lotutako instalazioen tipologia, ezaugarriak eta segurtasun-eskakizunak.
jarrerazkoak	- Interesa izatea tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen atzean dauden printzipioak ulertzeko, tresna metodologikoak diren aldetik. - Elementu materialen (erremintak eta tresneria) balio tekniko berriak kontuan hartzeko aldez aurreko jarrera izatea. - Ekimena izatea inguruneko tresna bidezko kirol-jarduera fisikoaren eskaintza eta haren ezaugarriak ikertzeko.

2. TRESNA BIDEZKO KIROL-JARDUERA FISIKOAK IRAKASTEKO BALIABIDEAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	- Erabiltzaileei edo parte-hartzaileei orientabideak eta informazioa ematea, eraman behar dituzten jantziei eta material pertsonalari buruz. - Behar diren instalazio, ekipamendu eta materialak bilatzea eta hautatzea: ahalik eta parte-hartze eta segurtasun handiena lortzeko irizpideak aplikatzea. - Parte-hartzaileak eta materialak jarduerari esleitutako instalazioan, espazioan eta denboran antolatzea. - Espazioak eta materialak pertsona mota desberdinen ikaskuntzarako eta parte-hartzerako egokitzea. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetan erabilitako materialak gainbegiratzea eta haien mantentze-lanak egitea. • Tresna bidezko kirol-jarduera fisikorako materialen inbentarioa (kokapena eta biltegiratzea, baldintzak, kantitatea, etab.). • Instalazio, ekipamendu eta materialetan izandako gorabeherak erregistratzeko fitxak. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikorako laguntza- eta kontsultabaliabideak hautatzea. Informatikoak, bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	- Parte-hartzaileek tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak segurtasunez eta eroso egiteko behar dituzten janzkera (oinetakoak eta arropa) eta osagarriak. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak praktikatzeko instalazioak eta ekipamenduak. • Instalazio motak eta instalazioen ezaugarriak. Betekizunak. • Instalazioen mantentze-lanekin, segurtasunarekin eta higie-nearekin lotutako araudiak. - o Instalazio irekiak. - o Instalazio itxiak - o Bestelako instalazioak. • Arkitektura-oztopoak eta instalazioen egokitzapena. • Kirol-instalazio bateko aparatuak eta materialak ikuskatzeko sistemak. • Mantentze-lanekin, segurtasunarekin eta higie-nearekin lotutako araudi espezifikoak. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak egiteko material espezifiko eta lagungarria:



	• Teniseko eta padeleko jardueretarako materialak (pilotak, erraketak, pilotetarako orgak, sareak eta zutabeak, etab.). Motak eta ezaugarriak. • Tresna bidezko beste kirol-jarduera fisiko batzuetarako materialak. • Material espezifiko eta lagungarria hautatzeko irizpideak: parte-hartzailearen ezaugarriak, pista mota, etab. • Material espezifikoaren konponketa txikiak. Tresneria. <i>Gripak</i> hautatzea eta erraketetan <i>overgripak</i> jartzea. - Deskribapena, ezaugarriak eta haiek erabiltzeko, garraiatzeko eta biltegiratzeko segurtasun- eta eraginkortasun-irizpideak. - Espazio, ekipamendu eta material ez-konbentzionalak, tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzarako, jolas-arlorako edo kirol-animaziorako egokitu daitezkeenak. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetarako kirol-instalazioen erabilera eta gozamina optimizatzeko irizpideak. Denboren eta espazioen antolaketa. - Jardueraren jarraipena eta kontrola egiteko baliabideak: denboraldiaren programazioa, jardueraren informazio-fitxa, saioaren fitxa, taldearen fitxa, inbentarioa, exekuzio-txostenak, memoria, etab. - Jarduerako laguntza- eta kontsulta-baliabideak: informazio-iturriak, etab. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetarako erabiltzen diren instalazioen segurtasuneko eta arriskuen prebentzioko oinarritzko protokoloak. • Arrisku-faktoreak eta arriskutsuak izan daitezkeen eremuak. • Beste profesional batzuekin koordinatzea. • Erreferentziazko legedia eta araudiak. • Tokiko eta autonomia-erkidegoko administrazio eskudunak. - Profesionalaren erantzukizunak: bere eskumeneko segurtasun-alderdiak, instalazioen, ekipamenduen eta materialaren egoerarekin lotuak.
jarrerazkoak	- Jarduerak segurtasunez eta eroso egiteko ekipo pertsonal eta material egokia erabiltzeko konpromisoa hartzea. - Instalazioak, ekipamenduak eta materialak egoki erabiltzearen garrantzia baloratzea. - Zorroztasuna segurtasunerako eta arriskuen prebentziorako oinarritzko protokoloetako jarraibideak betetzean. - Jarrera proaktiboa izatea jardueretan erabiltzen den materiala kokatzean eta biltzean.

3. TRESNA BIDEZKO KIROL-JARDUERA FISIKOETAN HASTEKO SAIOAK DISEINATZEA

prozedurazkoak	- Saioaren helburu didaktikoak definitzea: programazio orokorra (sasoikoa, urtekoa, opor-aldikoa, intentsiboa, etab.), programa (eskolakoa, eskola-ordutegitik kanpokoa, parte-hartzekoa, udalekoa, kirol-eskolakoa, etab.) edo erakundea (publikoa/pribatua, klubak, jarduera fisikoen alorreko enpresak, etab.) interpretatzea. - Saioaren helburu didaktikoak, edukiak eta metodologia erregistratzea saioaren erregistratze-fitxan. - Eduki fisikoak, teknikoak eta taktiko-estrategikoak integratzea proposatutako saioan. - Jardueren sekuentziazioa: irizpide fisiologikoak, motibaziokoak eta
----------------	--

	zailtasun-graduak (espazio erlatiboa, estimulu kopurua, funtzioen abiadura, oposizio-maila, etab.) aplikatzea. - Egokitzenak aurreikustea ataza motor espezifikoetan, parte-hartzaileen ezaugarrien arabera. - Ikaskuntzak indartzeko tresnak prestatzea (informatikoak, ikus-entzunezkoak). - Gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jardura alternatiboak aurreikustea. - Eraginkortasuneko eta segurtasuneko irizpideak aplikatzea, saioan zehar erremintak, espazioak, ekipamenduak eta materialak erabiltzeko egindako proposamenen.
kontzeptuzkoak	- Programa orokorra, jardueraren fitxa eta saioen kopurua/kokapena denboraldiko edo programako egutegian. - Parte-hartzaileen taldearen fitxa. Kopurua eta oinarritzko datuak (izena, adina, etab.). - Saioaren egitura. Motak. Saioaren erregistratze-fitxa. Kalkulatutako lan-denborak eta denbora errealeak. - Taldeko kirol-jardura fisikoetan hasteko saio-ereduak, adin-profil edo kategoria desberdinetarako. - Sekuentziazio- eta tenporalizazio-irizpide espezifikoak tresna bidezko kirol-jardura fisikoak irakasteko eta ikasteko atazetan. - Planteatutako helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia bermatzeko irizpideak. - Trebetasun espezifikoaren irakaskuntza ataza globaletan integratzeko formulak. - Parte-hartzaileak tresna bidezko kirol-jardura fisikoen praktikara fidelizatzea sustatzeko estrategiak eta irizpideak. - Tresna bidezko kirol-jardura fisikoen ikaskuntzak indartzeko tresnak. - Tresna bidezko kirol-jardura fisiko zehatzen saio espezifikoak, ingurune (lehorrekoa, uretako, airekoa) beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, kantxa zatituko (tenis, padel edo beste batzuk), kantxa partekatuko (euskal pilota edo beste batzuk) eta abarretako tresna bidezko kirol-jardura fisikoak. - Zelai zatituko (tenis, padel edo beste batzuk) tresna bidezko kirol-jardura fisikoetan hasteko irakaskuntza-saio espezifikoak: • Jardura ikasteko prozesuaren mailak: oinarri tekniko, taktiko eta estrategikoak, eta haien arteko lotura. Aplikazioak. • Saioaren helburuak Koherentzia-irizpideak helburuen eta proposatutako jardueren artean. • Progresio metodologikoa jardueraren irakaskuntzan. Trebetasun espezifikoak. Zenbait profiletara egokitzea. • Saioetarako ariketak eta atzak. Zailtasun-faktoreak. • Teniseko, padeleko edo beste kirol batzuetako kirol aurreko jokoak (jokatutako formak, egoera murrituak, joko aldatuak eta mini kirolak). Ikuspegi barne-hartzailea. • Kirol-eskoletako saioak. Udalekoak edo kirol-klubetakoak. - Tresna bidezko beste kirol-jardura fisiko batzuetan hasteko irakaskuntza-saio espezifikoak, honako hauetan erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubien, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak. - Tresna bidezko kirol-jardura fisikoen saioetan kontuan hartu



	beharreko oinarrizko segurtasun-arauak. Espazioa, erremintak eta material lagungarriak kontrolatzeko eta haien erabilera eraginkorra egiteko teknikak. Lesioen prebentzioa.
jarrerazkoak	- Saioaren idatzizko plangintza egitearen garrantzia baloratzea. - Saioak aldizka eta prestasunez bidaltzea antolakundeko edo eskola-zentroko dagokion arduradunari. - Sormena saioko irakaskuntza-jardueren diseinuan.

4. TRESNA BIDEZKO KIROL-JARDUERA FISIKOETAN HASTEKO SAIOAK GIDATZEA ETA DINAMIZATZEA

prozedurazkoak	- Saioaren hasieran eta amaieran dagokion informazioa komunikatzea: parte-hartzea sustatzeko motibazioa. - Diseinatutako fitxari jarraitzea, saioa egin bitartean, planifikatutakoa errespetatuz eta doituz, eta hobetzeko oharrak hartuz. - Saiorako bertaratzea kontrolatzea. - Atazak nola egin behar diren azaltzea: haien alderdi garrantzitsuak, gerta daitezkeen exekuzio-akatsak eta zenbait informazio-kanalen erabilera. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen modalitate bakoitzaren ekintza motor espezifikoak erakustea. - Intentsitate- eta zailtasun-maila egoera partikular jakin batera egokitzea. - Detektatutako exekuzio-akatsak zuzentzea: akatsak eragin ditzaketen kausak, esku hartzeko une egokiak. Feedbacka sarri erabiltzea. - Jardunari buruzko gogoeta egiteko eta hitz egiteko uneak ezartzea. - Metodologia desberdinak erabiltzea, saioaren helburuen arabera. - Materialen eta ekipamenduen erabilera kontrolatzea ezarritako protokoloaren arabera. Taldearen fitxaren kudeaketa. Jardueraren kontrola eta dinamizazioa.
kontzeptuzkoak	- Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen saioen zuzendaritzan esku hartzeko teknikak: • Atazak eta elementu teknikoak azaltzea eta erakustea. • Haien eraginkortasuna areagotzeko estrategiak: ikaskuntza-ereduak eta memorizazio-estrategiak erabiltzea, zenbait angelutatik errepikatzea. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen txapelketak eta ekitaldiak zuzentzeko jarraibideak, baliabideak eta arauak. - Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen jardun-testuinguru desberdinetan aplikatzeko gomendioak eta betebeharrak. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisiko zehatzak gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibide eta aholku espezifikoak, ingurune (lehorrekoa, uretakoa, airekoa) beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, kantxa zatituko (tenis, padel edo beste batzuk), kantxa partekatuko (euskal pilota edo beste batzuk) eta abarretako tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak. - Teniseko tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen hastapena gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibideak eta aholku espezifikoak: • Materialarekin, ekipamenduekin eta instalazioarekin ohitzeko jarduerak. • Heldulekuak. Motak. Haien ezaugarriak eta aplikazio tekniko-

	taktikoa. • Oinarrizko kolpeak: eskuinkada, errebeskada, bi eskuzko errebeskada, zerbitzua edo sakea, bolea, errematea. Kolpe mota bakoitzaren exekuzio-faseak. Funtsezko alderdi teknikoak eta taktikoak. Akats ohikoenak. Kausa posibleak. Zuzentzeko ariketak. • Pentsamendu taktikoa garatzeko eta harekin lotutako elementu teknikoak aplikatzeko jolasak eta atazak. • Banakako jokoa eta binakako jokoa. Printzipio taktikoen irakaskuntza-ikaskuntzarako oinarrizko mugimenduak eta atazak. - Padeleko tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen hastapena gidatzeko eta dinamizatzeko jarraibideak eta aholku espezifikoak: • Materialarekin, ekipamenduekin eta instalazioarekin ohitzeko jarduerak. • Heldulekuak. Ezaugarriak eta haien aplikazioa. • Oinarrizko kolpeak: eskuinkada, errebeskada, eskuin-bolea eta errebeseko bolea, goitiko pilota, dejada, errematea, horma bakarreko errebotea, horma biko errebotea, horma kontrakoa, sakea, errestoa. Kolpe mota bakoitzaren exekuzio-faseak. Funtsezko alderdiak. Akats ohikoenak. Kausa posibleak. Zuzentzeko ariketak. • Pentsamendu taktikoa garatzeko eta harekin lotutako elementu teknikoak aplikatzeko jolasak eta atazak. • Oinarrizko mugimenduak eta printzipio taktikoak. - Tresna bidezko bezte kirol-jarduera fisiko batzuetarako jarraibide eta aholku espezifikoak, honako hauetan erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubuen, kirol-elkarteen edo elkarten programak. • Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak.
jarrerazkoak	- Puntualtasuna saioa hasteko eta amaitzeko. - Parte-hartzaileak edo beste pertsona giltzarri batzuk egunez egun erakartzeko eta ilusionatzeko interesa izatea, esfortzua, lana eta intentsitatea baliatuta. - Jarrera irekia, adeitsua eta errespetuzkoa izatea beste pertsonetara. - Saioan, inplikatzeko, taldean elkarlarraginean aritzeko eta banakako zein talderako feedback ugari emateko jarrera izatea.

5. TRESNA BIDEZKO KIROL-JARDUERA FISIKOAK IRAKASTEKO ETA IKASTEKO PROZESUA EBALUATZEA

prozedurazkoak	- Tresna bidezko kirol-jarduera fisiko bakoitzaren ikaskuntza-mailak ezartzea. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza ebaluatzeko alderdi tekniko, fisiko eta taktiko-estrategiko esanguratsuak zehaztea, ikaskuntza-maila bakoitzean. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza teknikoak ebaluatzeko tresna eta jarduera egokiak hautatzea, planteatutako helburuen arabera. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza teknikoak eta taktiko-estrategikoak ebaluatzeko tresna eta jarduera egokiak
----------------	--



	hautatzea, planteatutako helburuen arabera. - Prozesu metodologikoa ebaluatzen tresnak diseinatzea. - Tresna bidezko kirolean ikaskuntzen lorpen-maila adierazten duten atazak diseinatzea. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetako jokalariren maila tekniko eta taktiko-estrategikoa ebaluatzea. - Hobekuntza-proposamenak egitea. Autoebaluazioa.
kontzeptuzkoak	- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ebaluatu daitezkeen osagaiak. Ebaluazio-prozesuen helburuak. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza-mailak, programa hauetan ezartzen direnak: eskola-kiroleko, parte-hartzeko kiroleko, kirol-eskoletako, federazioetako, kirol-klubetako edo -elkarteetako eta abarretako programetan. - Ebaluatu beharreko alderdiak: • Maila bakoitzeko alderdi fisiko, tekniko eta taktiko-estrategiko esanguratsuak. Maila bakoitzean exekuzioa zuzena dela zehazten duten irizpideak. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisikoko programen ebaluazioan erabiltzen diren tresnak, eta haiek prestatzeko eta erabiltzeko irizpideak: • Erabiltzaileen bertaratzea erregistratzeko inprimakiak. • Behaketa- eta erregistratze-fitxak (keinu teknikoak, jarrerak, erantzun taktikoak, etab.). • Ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak. • Erabiltzaileen gogobetetasun-mailari buruzko inkestak. • Helburuei buruz informatzeko liburuxka erabiltzaileentzat. • Ebaluazio-prozesu horien tenporalizazioa. - Tresna bidezko kirol-jarduera fisiko zehatzen ebaluazioa egiteko jarraibide eta aholku espezifikoak, ingurune (lehorrekoa, uretako, airekoa) beharren, enpresa-eskariaren edo beste irizpide batzuen arabera hautatu beharrekoak. Esate baterako, kantxa zatituko (tenis, padel edo beste batzuk), kantxa partekatuko (euskal pilota edo beste batzuk) eta abarretako tresna bidezko kirol-jarduera fisikoak. - Tenisean eta padelean ikaskuntzak ebaluatzen jarraibideak eta aholku espezifikoak: • Maila bakoitzean kolpeen exekuzioa zuzena dela zehazten duten irizpideak. • Erantzun taktiko-estrategikoen egokitasuna zehazten duten irizpideak. • Keinu teknikoak ebaluatzen atazak. Ikaskuntzak ebaluatzen egoerak tenisean eta padelean: joko errealeko egoera globalak, egoera murriztuak eta joko aldatuak, eta egoera bakartuak, keinu teknikoen behaketa espezifikorako. Espazioen eta materialen egokitzapena. • Ikaskuntza taktiko-estrategikoak ebaluatzen atazak: joko errealeko egoera globalak, egoera murriztuak eta joko aldatuak, erantzun taktiko jakin batzuk sustatzeko edo inhibitzen. - Tresna bidezko beste kirol-jarduera fisiko batzuetako ikaskuntzak ebaluatzen jarraibideak eta aholku espezifikoak, honako hauetan erabiliak: • Eskola-kiroleko urteko programak eta lehiaketak eta haien ibilbideak (kirol-arloan parte-hartzeko ibilbideak; errendimendurako hastapeneko ibilbideak, eta talentuak identifikatzeko ibilbideak). • Parte-hartzeko edo udaletako kirol-programak. • Federazioen, klubien, kirol-elkarteen edo elkarten programak.

	• Erakunde publikoen edo pribatuen kirol-animazioko programak. - Parte-hartzaileen parte-hartze eta gogobetetasun-maila ebaluatzeke alderdiak eta tresnak: • Parte-hartzaileen beharrak, motibazioak, sinesmenak, jarrerak eta espektatibak. • Ebaluazio-tresna espezifikoak: gogobetetasun-inkesta, elkarrizketa, autoebaluazio-fitxa, behaketa-eskala, galdetegia, bertaratzeko erregistratzeko inprimakia. • Ebaluazio-prozesu horien tenporalizazioa. - Saioaren autoebaluazioan eta saioaren edo programaren animatzailearen autoebaluazioan kontuan hartu beharreko alderdiak.
jarrerazkoak	- Atazan eta xehetasunetan kontzentratzea. - Zorroztasuna ebaluazio-tresnen aplikazioan. - Jarrera kritikoa irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan hobetu daitezkeen alderdiekiko. - Emaizak eraginkortasunez komunikatzea eta jardueretan inplikaturako pertsonen egindako iradokizunak entzuteko eta aintzat hartzeko jarrera izatea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau “Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa”ren testuinguru orokorrean kokatu behar da, eta jarduera zuzentzen duen pertsonaren figurari buruz beharrezkoa den informazioa eman behar da, moduluarekin erlazionatuta eta haren konpetentziak eta jardun-printzipioak nabarmenduta.

Kirol-jardueren edukiak bi fasetan ordenatu daitezke:

- Hasierako maila ezagutzea, hautatutako kirolean konpetentzia motorra hobetzea eta baliabideak kudeatzea.
- Saioak diseinatzea, zuzentzea eta dinamizatzea, eta prozesu osoa ebaluatzea.

Jarraian, fase bakoitzean aplikatu beharreko zenbait jarraibide ematen dira:

Lehen fasea: Hasierako maila ezagutzea, hautatutako kirolean konpetentzia motorra hobetzea eta baliabideak kudeatzea:

- 5. blokeko edukiekin hastea proposatzen da. Hasierako ebaluazio bat egingo da, hautatu diren tresna bidezko kirol-jarduera fisikoetan edo kirolean ikasleek duten maila teknikoari eta araudiaren ezagutzari buruz.

Ebaluazio-prozesuak berekin ekarri behar du ikaslearen inplikazio kognitiboa. Ildo horretatik, ikasleari azalduko zaio zer alderdi ebaluatuko diren, horretarako zer tresna eta protokolo zehatz erabiliko den eta emaitza zein den, eta adieraziko zaio, halaber, nolako ikaskuntza-mailatik abiatuko den.

- Behin ikasle bakoitzaren abiapuntu-maila ezarrita, beste aldi bat hasiko da, non konbinatuko baitira, batetik, hautatutako kirolen alderdi eta ezaugarri orokorren inguruko lana eta kirol horiek Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-jarduera fisikoko



programetan duten presentzia (1. eduki-blokea) eta, bestetik, irakasleek programatutako eta zuzendutako saio praktikoak egitea; saio horietan, konpetentzia-mailan sakonduko da, betiere hautatutako kirolen eduki hauei dagokienez:

- o Instalazioarekin, materialekin eta ekipamenduekin ohitzeko jarduerak.
 - o Oinarri tekniko eta taktikoak.
 - o Progresioak eta aldatutako jarduerak.
 - o Kirol- eta jolas-jarduera fisikoetarako aplikazioak.
- Saio praktikoak gauzatzen diren bitartean, egokia da, edukia kontuan hartuta, instalazio, ekipamendu eta materialekin lotutako edukiak ere irakastea, bai eta segurtasunarekin eta arriskuen prebentzioarekin lotutakoak ere.

Bigarren fasea: Saioak diseinatzea, zuzentzea eta dinamizatzea, eta prozesu osoa ebaluatzea:

- Arian-arian, ikasleen esku utziko da fase honetako tituluan adierazitako atazen gaineko ardura, eta lehenengo faseko lana aberastea proposatuko zaie, hautatutako kirol edo kirol-jarduera fisiko ezagunen edo bestelakoen irakaskuntza-ikaskuntza aztertuz eta, horretarako, honako tresna hauek ikasleen esku utziz:
 - o Programazio orokorra, diseinuaren erreferentzia gisa.
 - o Saioak diseinatzeko elementu erabilgarriak.
 - o Saioen zuzendaritzan eta dinamizazioan esku hartzeko teknikak.
 - o Parte-hartze eta gogobetetasun-maila ebaluatzeko tresnak, autoebaluazioa, etab.
- Zeharka tratatu behar dira tresna horiek, beste modulu batzuekin koordinatuta, eta, horregatik, honako alderdi hauei garrantzi handia emango zaie:
 - o Hautatutako tresna bidezko kirolean edo kirol-jarduera fisikoan ebaluatu beharreko osagaiak.
 - o Hautatutako tresna bidezko kirolean edo kirol-jarduera fisikoan ikaskuntza-mailak ezartzea.
 - o Ebaluaziorako tresna espezifikoak hautatzea eta haien tenporizazioa ezartzea.
 - o Tresna bidezko kirolen irakaskuntza-ikaskuntzako ataza espezifikoaren sekuentziak.
 - o Ekintza motor espezifikoak azaltzea eta erakustea.
 - o Hutsak zuzentzea, eta beharizanetara egokitzea.

2) Alderdi metodologikoak

Sekuentziaziorako ezarritako faseetatik lehenengoan, honako hauek erabil ditzake irakasleak:

- Modulua aurkezteko eta hautatutako tresna bidezko kirol-jarduera fisikoaren ezaugarriak adierazteko azalpenezko-jarduerak.
- Ikasleek banakako edo taldekako lanak egitea, non aztertuko baita nolako presentzia duten tresna bidezko kirolek edo kirol-jarduera fisikoek ingurunean nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan antolatutako kirol-programetan.
- Gomendagarria da irakasleek irakaskuntza-metodo eta -estilo desberdinak erabiltzea; izan ere, halakoen bidez, gogoeta sustatuko dute ikasleen artean. Hala, harreraren eta ikerketaren oinarritutako metodoak aurkeztu eta azalduko dituzte irakasleek, zuzendutako ataza bakoitzaren izaerara egokituak:

- o Zuzeneko jarraibideak, atazak esleitzea, elkarrekiko irakaskuntza, mikroirakaskuntza eta talde txikietan egindako irakaskuntza, oinarri teknikoaren ikaskuntzarako.
 - o Aurkikuntza gidatua eta arazoak konpontzea, oinarri taktikoen, joko aldatuen eta tresna bidezko kirol- eta jolas-jarduera fisikoaren ikaskuntzan.
- Ikasi beharrekoak izango dira, halaber, irakaskuntza-estilo desberdinak, haien onurak eta desabantailak, eta haiek aplikatzeko unea eta era, eta hala jasota dago 4. eduki-blokean.

Sekuentziazioaren bigarren fasean, autonomia progresiboko egoerak sortuko dira, eta, haietan, ikasleek, arian-arian, beren gain hartuko dute hautatutako tresna bidezko kirolen edo kirol-jarduera fisikoaren irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuarekin lotutako alderdi batzuen edo guztien ardura, gero eta egoera konplexuetatik abiatuta eta kasu praktikoa zehatzen bidez antolatuta (erabiltzaileen kopurua eta maila, programaren helburuak, atazetara egokitutako irakaskuntza-metodoak, instalazio eta material erabilgarriak, etab.).

Ikasleek beren ardurapean hartutako atazei buruz gogoeta egiteko, eztabaidatzeko eta lana bateratzeko espazioak sustatu eta zuzenduko dituzte irakasleek, eta ikasleak inplikatzeko dituzte haien jarduna eta ikaskideena ebaluatzeko prozesuan.

Uneoro, ikaskuntzako metodologia aktiboak aplikatzea sustatzen da, eta, zehatzago esanda, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzak. Erronketan, ebatzi beharreko egoera korapilatsuak planteatzen dira, laneko errealitatearen egoeretatik gertu daudenak, eta, egoera horiek konpontzeko, beharrezkoa da zikloko beste modulu batzuekin elkarlanean jardutea. Hartara, konpetentzia teknikoek gainera, zeharkako konpetentziak ere garatuko dituzte ikasleek, horretarako jasota baitaude Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide heziketako planaren barruan, hala nola: autonomia, talde-lana, inplikazioa, etab.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Konpetentzia motorrean sakondu eta hobetzeko jarduerak, hautatutako tresna bidezko kirolean edo kirol-jarduera fisikoetan, Sekuentziazioaren bigarren fasean, aparteko garrantzia emango zaio ekintza motorrak erakusteko, exekuzio-akatsak zuzentzeko eta ekintzok parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzeko gaitasunari.
- ✓ Giltzarri dira hautatutako tresna bidezko kirolean edo kirol-jarduera fisikoetan konpetentzia motorren bilakaera ebaluatzeko jarduerak. Irakasleek moduluaren hasieran egingo dute ebaluazio hori, eta ikasleek errepikatu beharko dute prozesuan programatutako zenbait momentutan.
- ✓ Irakasleen egitekoa da saioen diseinuaren alderdi garrantzizkoak ebaluatzea: Saioen helburu didaktikoen eta programazio orokorraren arteko lotura, jarduerak egoki sekuentziatu eta integratzea, indartze-tresnak erabilgarri izatea eta gorabeheretara egokitzeko aukerak.
- ✓ Helburua da ikasleak inplikatzeko kirolen edo tresna bidezko kirol-jarduera fisikoaren saioak zuzentzeko eta dinamizatzen lanaren zenbait alderditan, irakasleek aurretik finkatutako irizpideetatik abiatuta.



9. LANBIDE-MODULUA

GIZARTE-INKLUSIORAKO KIROL-JARDUERA FISIKOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarte-inklusionarako kirol-jarduerak fisikoak
Kodea:	1142
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	160 ordu
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotua
Helburu orokorrak:	3 / 6 / 8 / 10 / 11 / 14 / 16 / 18 / 19 / 20 / 21 / 22 / 23 / 24 / 25 / 26 / 27

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Gizarte- eta kirol-arloko inklusio-jarduerak programatzen ditu adineko pertsonen kolektiboentzat, kirol-jarduera fisikoen praktikak zahartze-prozesuaren aldagaietan duen eragina aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Adineko pertsonen ezaugarri fisikoak, fisiologikoak, psikologikoak eta soziologikoak baloratzeko eta erregistratzeko tresnak zehaztu ditu.
- Biztanleria-sektore horrekin lotutako patologia nagusiak baloratu ditu, bai eta patologia horiek kirol-jarduera fisikoen praktikarako duten garrantzia ere.
- Adinekoentzako gizarte- eta kirol-arloko inklusio-programetarako helburu espezifikoak planteatu ditu esparru motorrean, psikologikoan eta sozialean.
- Kirol-jarduera fisikoak diseinatu eta egokitu ditu, zahartze-prozesuaren eragina jasaten duten alderdi motorrak, psikologikoak eta sozialak hobetzeko.
- Adineko pertsonen kirol-jarduerak fisikoak egiteko behar dituzten bitartekoak eta laguntza teknikoak ezarri ditu.
- Adineko pertsonen jardueretan parte hartzea sustatzen duten esku hartzeko estrategia metodologikoak ezarri ditu.
- Baloratu du zer-nolako garrantzia duten kirol-jarduerak fisikoko programek adineko pertsonen elkarreragin sozialean.

2. Gizarte- eta kirol-arloko esku-hartzerako estrategiak aplikatzen ditu adineko pertsonen kolektiboentzat, kolektibo horiek jardueretan parte-hartze integrala izan dezaten sustatuz, eta haiek programazioaren helburuekin erlazionatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku hartzeko teknika espezifikoak garatu ditu, arlo motorrean planteatutako helburuetarako.
- b) Materialak eta praktikatzeko espazioak ahalik parte-hartze handiena lortzeko asmoz eta segurtasun handieneko baldintzak bermatuz erabili ditu.
- c) Baloratu du nolako onurak dakartzan jarduera fisikoak adineko pertsonen kolektiboen osasunerako.

3. Kirol-jarduera fisikoen egokitzapenak programatzen ditu, desgaitasuna duten pertsonak talde arruntetan gizarteratzeko, desgaitasun mota bakoitzaren arabera behar diren aldaketak aztertuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Desgaitasuna duten pertsonen ezaugarri morfologikoak, fisiologikoak eta portaerakoak aztertu ditu.
- b) Kirol-jarduera fisikoen egokitzapenak diseinatu ditu, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarte-inklusioko.
- c) Kirol-jarduera fisikoen egokitzapenak diseinatu ditu, desgaitasun intelektuala duten pertsonen gizarte-inklusioko.
- d) Kirol-jarduera fisikoen egokitzapenak diseinatu ditu, desgaitasun sentoriala duten pertsonen gizarte-inklusioko.
- e) Desgaitasuna duten pertsonen kirol-jarduera fisikoak egiteko behar dituzten bitartekoak eta laguntza teknikoak ezarri ditu, desgaitasun motaren arabera.
- f) Estrategia metodologikoak ezarri ditu kirol-jarduera fisikoetan desgaitasuna duten pertsonekin errazago komunikatzeko eta haien parte-hartzea errazteko.
- g) Baloratu du zer-nolako garrantzia duten kirol-jarduera fisikoko programek desgaitasuna duten pertsonen elkarreragin sozialesan.

4. Desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte- eta kirol-arloko esku-hartzerako estrategiak aplikatzen ditu, pertsona horiek jardueretan parte-hartze integrala izan dezaten sustatuz, eta haiek programazioaren helburuekin erlazionatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Desgaitasun fisikoa, kognitiboa eta sentoriala duten pertsonen esku hartzeko estrategiak garatu ditu.
- b) Materialak eta praktikatzeko espazioak ahalik parte-hartze handiena lortzeko asmoz eta segurtasun handieneko baldintzak bermatuz erabili ditu.
- c) Baloratu du nolako onurak dakartzan jarduera fisikoak desgaitasuna duten pertsonen gizarte-inklusioko.

5. Gizarte- eta kirol-arloko inklusio-jarduerak programatzen ditu gizarte-bazterkeriako egoera jasateko arriskuan dauden pertsonen kolektiboentzat, kirol-jarduera fisikoen praktikak kolektibo horien sozializazio-mailan duen eragina aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboetan gizarte- eta kirol-arloko esku-hartzearekin lotutako ezaugarri psikosozial espezifikoak baloratu ditu.
- b) Helburu espezifikoak planteatu ditu gizarte-bazterkeriako arrisku-egoera mota bakoitzerako, erreferentziazko erakundeen esku-hartzearen orientabideekin bat etorriz.
- c) Gizarte-bazterkeria jasateko egoeran dauden inguruneetan eta kolektiboetan, harremanetarako trebetasunak indartzeko kirol-jarduera fisikoko atazak diseinatu ditu.
- d) Gizarte-bazterkeriako egoera jasateko arriskuan dauden pertsona eta kolektiboen komunikazioa eta parte-hartzea errazteko eta kultura- eta gizarte-balioak transmititzeko esku-hartzerako estrategiak ezarri ditu.
- e) Baloratu du zer-nolako garrantzia duten kirol-jarduera fisikoko programek gizarte-bazterkeriako egoera jasateko arriskuan dauden pertsonen elkarreragin sozialean.

6. Gizarte- eta kirol-arloko esku-hartzerako estrategiak aplikatzen ditu, gizarte-bazterkeriako egoera jasateko arriskuan dauden pertsonen kolektiboentzat, programazioaren asmoekin erlazionatuta eta jardueretan parte-hartze integrala izan dadila baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen kolektiboei buruzko erabakiak hartzeko estrategiak garatu ditu.
- b) Kirol-jarduera fisikoak gizarte-inklusioko prozesuetan erabiltzea justifikatu du.
- c) Kirol-jarduera fisikoen alderdi sozializataileak garatzen dituzten esku-hartze estiloak erabili ditu.
- d) Material, espazio, jolas eta jardun-rol ugari erabili ditu, parte-hartzea ahalik eta gehien ahalbidetuz.
- e) Baloratu du zer-nolako onurak dakartzan jarduera fisikoak gizarte-bazterkeria jasateko egoeran dauden kolektiboen gizarte-inklusiurako.

7. Gizarte- eta kirol-inklusioko prozesuaren ebaluazioa diseinatzeko du, informazio garrantzitsua lortzeko aukera ematen duten tresnak ezarrita, esku-hartzearen helburuaren arabera

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartze sozialeko prozesuen ebaluazio-ereduak gizarte- eta kirol-arlorako egokitu ditu.
- b) Ebaluazio-adierazle eta -tresnak hautatu ditu, gizarte- eta kirol-arloko esku-hartzeetarako planteatutako helburuen lorpen-mailaren kontrola eta jarraipena egiteko.
- c) Ebaluazio-teknikak eta -jarduerak aplikatu ditu, ezarritako helburuak eta esku-hartze bakoitzerako irizpideak aintzat hartuta.
- d) Ondorioak adierazi ditu, lortutako informazioaren interpretazioa abiapuntutzat hartuta.
- e) Hobekuntzak proposatu ditu, esku-hartze ez-egoki baten kausak identifikatu ondoren.
- f) Esku-hartzea hobetzeko ebaluazio-prozedurak ezartzeko garrantzia baloratu du.

c) Edukiak:

1. GIZARTE- ETA KIROL-ARLOKO INKLUSIO-JARDUEREN PROGRAMAZIOA ADINEKO PERTSONEN KOLEKTIBOENTZAT	
prozedurazkoak	- Aztertzea nolako profila duten gizarte- eta kirol-animazioko eta irakaskuntzako zerbitzuak erabiltzen dituzten adinekoek: identifikatzea zer premia eta motibazio dituzten erabiltzaile horiek kirol- eta jolas-hastapeneko jarduerarenganako. - Erreferentziazko programazio orokorra interpretatzea, adinekoekin egindako kirol-jarduera fisikoari dagokionez. - Adinekoen arrisku-faktoreak hautematea, faktore horiek jarduera fisikoko programa batean txertatzeko. Kontrol jarraitua programa gauzatu bitartean. - Adinekoentzako gizarte- eta kirol-arloko inklusio-programetarako helburu espezifikoak diseinatzea: esparru motorra, psikologikoa eta soziala. - Kirol-ataza fisikoak diseinatzea eta egokitzea: alderdi motorra, psikologikoa eta soziala hobetzea. - Behar diren baliabideak eta laguntza teknikoak ezartzea. - Parte-hartzea sustatzen duten esku hartzeko estrategia metodologikoak ezartzea. - Jardueraren ebaluazioa eta jarraipena egiteko estrategiak ezartzea.
kontzeptuzkoak	- Zahartze-prozesua. Adineko pertsonen ezaugarri fisikoak, fisiologikoak, psikologikoak, afektiboak eta soziologikoak. Autonomia pertsonala. Izaten diren aldaketak. - Biztanleria-piramidea Euskal Autonomia Erkidegoan: Ondorioak. - Adinekoen arrisku-faktoreak hautematea, faktore horiek jarduera fisikoko programa batean txertatzeko. - Adineko pertsonekin lotutako patologia eta haien garrantzia kirol-jarduera fisikoen praktikorako. Diabetesa, osteoporosia, artrosia, besteak beste. - Adineko pertsonentzako kirol-jarduera fisikoko programa espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko organismo publikoetan. Beste antolakunde batzuen programak. - Adinekoentzako gizarte- eta kirol-arloko inklusio-programetarako helburuak eta egokitzapenak: esparru motorra, psikologikoa eta soziala. Orientabideak, onura fisiologikoak. - Adineko pertsonen jardueretan parte hartzea sustatzen duten esku hartzeko estrategia metodologikoak. Komunikaziorako kanalak, kodeak eta erreferentzia-sistemak (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). Taldeekin esku hartzeko teknikak. - Kirol-jarduera fisikoko programen garrantzia adineko pertsonen elkarreragin sozialean. Ariketa fisikoaren onurak alderdi psikologiko eta soziologikoetan.
jarrerazkoak	- Jarduera fisikoak adineko pertsonentzat duen garrantzia baloratzea, gizarte osasungarriago bat lortze aldera. - Zorroztasuna egokitzapenak ezartzean. - Informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzea.



2. GIZARTE- ETA KIROL-ARLOKO ESKU-HARTZERAKO ESTRATEGIAK APLIKATZEA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOekin

prozedurazkoak	- Esku hartzeko teknika espezifikoak garatu ditu, arlo motorrean, kognitiboan eta sozialean planteatutako helburuetarako. - Programatutako saioak ematea. - Materialen eta jarduteko espazioen erabilera. - Laguntza teknikoak eta eusteko behar direnak erabiltzea. - Saioen jarraipena eta parte-hartzaileen eboluzioaren kontrola.
kontzeptuzkoak	- Ahalmen fisikoak eta funtzionaltasuna hobetzeko edo haiei eusteko esku hartzeko estrategiak. Erresistentzia, indarra, malgutasuna, gorpuz-eskemaren berreziketa, oreka, koordinazioa, espazioaren pertzepzioa, erlaxazioa, arnasketa. - Egoera fisikoa hobetzeko jarduera fisikoak, adineko pertsonen taldeetan osasuna eta ongizatea lortzera bideratuak (tai xi, yoga, pilates, aerobika, uretako aerobika, mantentze-gimnastika). - Ahalmen kognitiboak hobetzeko edo haiei eusteko esku hartzeko estrategiak. Oroimen semantiko eta sentzoriala, diskurtso-ahalmena, problemak ebaztea, erabakiak hartzea, arriskuen balorazioa. - Ahalmen sozialak hobetzeko esku hartzeko estrategiak. Parte-hartzea eta komunikazioa (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilia: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona). - Nolako onurak izan ditzakeen jarduera fisikoak adineko pertsonen kolektiboen osasunerako.
jarrerazkoak	- Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan adineko pertsonekin talde-lana egitearen garrantziaz ohartzea. - Baloratzea nolako onurak dakartzan jarduera fisikoak adineko pertsonen kolektiboen osasunerako.

3. GIZARTE- ETA KIROL-ARLOKO INKLUSIO-JARDUEREN EGOKITZAPENAK PROGRAMATZEA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK TALDE ARRUNTETAN GIZARTERATZEKO

prozedurazkoak	- Aztertzea nolako profila duten desgaitasun intelektual, fisiko eta sentzorial mota eta maila desberdinak dituzten erabiltzaileak: identifikatzea zer premia eta motibazio dituzten erabiltzaile horiek kirol- eta jolas-hastapeneko jarduerarenganako. - Erreferentziazko programazio orokorra interpretatzea, desgaitasuna duten pertsonen egiten diren kirol-jarduera fisikoari dagokionez. - Kirol-ataza fisikoen egokitzapenak diseinatzea, desgaitasun intelektuala duten pertsonen gizarte-inklusionarako. - Kirol-ataza fisikoen egokitzapenak diseinatzea, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarte-inklusionarako. - Kirol-ataza fisikoen egokitzapenak diseinatzea, desgaitasun sentzoriala duten pertsonen gizarte-inklusionarako. - Jarduera garatu ahal izateko, material eta ekipamenduetan egin behar diren egokitzapenak ezartzea. - Desgaitasuna duten pertsonen kirol-jarduera fisikoak egiteko behar dituzten bitartekoak eta laguntza teknikoak ezartzea, desgaitasun motaren arabera.
----------------	---

	- Estrategia metodologikoak zehaztea, desgaitasuna duten pertsonen komunikatzea (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabilita: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona) eta pertsona horiek kirol-jarduera fisikoetan esku hartzea errazteko.
kontzeptuzkoak	- Desgaitasuna. Desgaitasun motak: fisikoa, sentSORIALA, intelektuala. Desgaitasuna duten pertsonen kirol-profila. - Desgaitasun fisikoa, kognitiboa eta sentSORIALA duten pertsonen bereizgarri diren ezaugarri morfologikoak, fisiologikoak eta portaerakoak. - Desgaitasun intelektualarekin lotutako nahasmenduak: hipotonia, arnas eritasuna, gaixotasun kardiobaskularrak, epilepsia, obesitatea, nortasunaren nahasmenduak, autoagresioak, psikosiak, depresioa, etab. - Desgaitasun fisikoko ohiko patologia: arantza bifidoa, garun-paralisia, gaixotasun neuromuskularrak, orno-muineko lesioak, esklerosi anizkoitza, poliomielitisa, anputazioak, etab. - Ikusmeneko eta entzumeneko desgaitasuna: motak eta graduak. - Jarduera fisikoak egiteko erabateko kontraindikazioak edo kontraindikazio partzialak. - Kirol-ataza fisiko egokituak. Egokitzapenak bitartekoetan, materialetan eta ekipamenduetan. Egokitzapenak proposatzean kontuan hartu behar diren irizpideak. - Desgaitasunen edo patologien arabeko kirol egokituak eta espezifikak. Sailkapen funtzionalerako irizpideak. - Jarduera fisikoa egiteko laguntza teknikoak eta teknologikoak. Laguntza motak: aldizkakoa, mugatua, zabala eta orokortua. - Gerta daitezkeen gorabeheren prebentziorako eta kontrolerako jardun-protokoloa. Segurtasun-bitartekoak eta -neurriak. - Desgaitasuna duten pertsonen inplikazioa kirol-jarduera fisikoetan. Parte-hartzea eta konfiantza bultzatzeko teknikak. Segurtasuna bermatzeko neurriak. - Desgaitasuna duten pertsonen kirol-jarduera fisikoetan errazago komunikatzeko estrategia metodologikoak. - Parte-hartzaileen taldekatze malguak, rola eta funtzioak antolatzeak aukera ematen duten estrategiak, lankidetzako eta elkarlaneko egoerak sustatuz.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna egokitzapenak tratatzean eta ezartzean. - Baloratzea nolako garrantzia duten kirol-jarduera fisikoak programak desgaitasuna duten pertsonen elkarreragin sozialean. - Lantaldearekin eta diziplina anitzeko taldearekin kolaboratzea.

4. GIZARTE- ETA KIROL-ARLOKO ESKU-HARTZERAKO ESTRATEGIAK APLIKATZEA DESGAIASUNA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOekin

prozedurazkoak	- Desgaitasun intelektual, fisikoa eta sentSORIALA duten pertsonen esku hartzeko estrategiak definitzea: haiek hartzean, agurtzean eta haiekin jardun bitartean erabili beharreko estrategiak. - Jarduera, jolas eta kirol egokitu zein egokitu gabeak dinamizatzeko teknikak gauzatzea. - Desgaitasuna duten pertsonen ohiko ikaskuntza-sekuentziak ezartzea. - Laguntza teknikoak eta eustekoak maneiatzea.
----------------	--



	- Materialen eta jarduteko espazioen erabilera. - Pertsonal teknikoaren kokapena eta mugikortasuna jarduera egitean eta laguntzak aplikatzean.
kontzeptuzkoak	- Kirol-jarduera fisikoen egokitzapenetan esku hartzeko estrategiak, desgaitasuna duten pertsonen gizarte-inklusionarako: aldeak berdintzeko, mugak konpentsatzeko, etab. - Apurka-apurkako egokitzapenerako irizpideak. Denboraren eta esfortzuaren kudeaketa. - Kirol- eta jolas-arloko hastapeneko jardueren ikaskuntza-sekuentziak, desgaitasuna duten pertsonentzat. - Kirol-jarduera fisikoen eta kirol-jolasen egokitzapenak desgaitasuna duten pertsonentzat: komunikazioa, espazioa, materiala, instalazioa, arauak, etab. - Parte-hartzea handitzeko erabilera-estrategiak. Segurtasun-baldintzak. - Nolako onurak izan ditzakeen jarduera fisikoak desgaitasuna duten pertsonen gizarte-inklusionarako.
jarrerazkoak	- Desgaitasunetikiko errespetua izatea. - Autokontrola eta naturaltasuna, desgaitasuna duten pertsonetikiko arretak eta dinamizazioak dituzten zailtasun erantsien aurrean. - Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan desgaitasuna duten pertsonekin talde-lana egitearen garrantziaz ohartzea.

5. GIZARTE- ETA KIROL-ARLOKO INKLUSIO-JARDUEREN PROGRAMAZIOA GIZARTE-BAZTERKERIA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN KOLEKTIBOENTZAT

prozedurazkoak	- Aztertzea nolako profila duten gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden erabiltzaileek: identifikatzea zer premia eta motibazio dituzten erabiltzaile horiek kirol- eta jolas-hastapeneko jarduerarenganako. - Erreferentziazko programazio orokorra interpretatzea, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonekin egindako kirol-jarduera fisikoari dagokionez. - Kirol-animazioaren bitartez gizarte-inklusionan laguntzen duten erakundeak eta antolakundeak bilatzea eta aztertzea. - Helburu espezifikoak planteatzea gizarte-bazterkeriako arrisku-egoera mota bakoitzerako, erreferentziazko erakundeen esku-hartzearen orientabideekin bat etorritik. - Gizarte-bazterkeria jasateko egoeran dauden inguruneetan eta kolektiboetan harremanetarako trebetasunak indartzeko kirol-jarduera fisikoko atazak diseinatzea. - Esku hartzeko estrategiak ezartzea, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektibo eta pertsonetikiko komunikazioa (ahal dela, komunikazioaren xede diren pertsonen erabiltzen duten hizkuntza erabiltzaileak: euskara, ingelesa edo gaztelania, dagokiona) eta haien parte-hartzea errazteko errazteko, eta kultura- eta gizarte-balioak transmititzeko.
kontzeptuzkoak	- Marjinazioa eta bazterkeria: kausak eta ondorioak. Gizarte-bazterkeriako egoeran eta egoera ahulean dauden taldeak: desabantaila soziokulturaleko egoera, generoa, gabezia ekonomikoa, langabezia, gizarte-loturen haustura, etab.

	- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak. Ezaugarri psikosozial espezifikoak. - Gizarte-bazterkeria eta kirol-jarduera fisikoa. Jarduera fisikoa eta kirola, integrazio-tresna gisa. - Gizarte- eta kirol-arloko esku hartze ereduak, gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeretarako. Animazio-metodologia. - Programen eskaintzaren arloko erakunde esanguratsuak: ezaugarriak eta orientabideak. - Gizarte inklusiorako kirol-jarduera fisiko programen helburuak, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboentzat. Koherentzia-elementuak kolektiboen ezaugarrien eta antolakundearen/erakundearen jarraibideen artean. - Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen eta kolektiboekin esku hartzeko estrategiak. - Inklusiorako eta sozializatzeko baliabide metodologiko espezifikoak: jarduerak proposatzeko prozesuan benetako parte-hartzea izatea, txandakatzea komunikazio-harremanetan, berdinkideen arteko tutoretza eta rol-aldaketak, elkarreragin positiboa, aukera-berdintasuna, besteak beste.
jarrerazkoak	- Pertsonen gizarte-bazterkeria eragiten duten egoerekiko eta kausekiko errespetua izatea. - Baloratzea zer-nolako garrantzia duten kirol-jarduera fisikoko programek gizarte-bazterkeriako egoera jasateko arriskuan dauden pertsonen elkarreragin sozialean.

6. GIZARTE- ETA KIROL-ARLOKO ESKU-HARTZERAKO ESTRATEGIAK APLIKATZEA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KOLEKTIBOekin

prozedurazkoak	- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen kolektiboetan erabakiak hartzeko estrategiak garatzea. - Kirol-jarduera fisikoak gizarte-inklusioko prozesuetan erabiltzea justifikatzea. - Kirol-jarduera fisikoen alderdi sozializatzaileak garatzen dituzten esku hartze estiloak erabiltzea. - Material, espazio, jolas eta jardun-rol ugari erabiltzea, parte-hartzea ahalik eta gehien ahalbidetuz. - Gatazkak konpontzeko protokoloak diseinatzea.
kontzeptuzkoak	- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden taldeetan arauak onartzearekin eta erabiltzearekin lotutako estrategiak: kontratuak, eztabaidak eta hausnarketak, rol-jokoak, besteak beste. - Kirol-jarduera fisikoak eta kultura-balioak. Tokian tokiko kirolak eta kirol «unibertsalak», arauetako berdintasuna, idoloak eta gizarte-portaerako ereduak. - Sozializazioa eta kirol-jarduera fisikoak. Parte-hartzezko metodologia. Taldeen antolaketa. Gatazkak kudeatzea. - Parte-hartzea handitzeko erabil daitezkeen estrategiak. Segurtasun-baldintzak. - Nolako onurak izan ditzakeen jarduera fisikoak gizarte-bazterkeria jasateko egoeran dauden pertsonen kolektiboen gizarte-inklusiorako. - Kolektiboen inklusiorako eta sozializaziorako taldeak osatzeko teknikak.
jarrerazkoak	- Errespetuzko jarrera izatea gizarte-bazterkeria eragin dezakeen



	egoera ororekiko. - Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonekin talde-lana egitearen garrantziaz ohartzea.
--	--

7. ESKU HARTZEKO PROZESUAREN EBALUAZIOA DISEINATZEA, GIZARTE-BAZTERKERIA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ARRETAREN ESPARRUAN

prozedurazkoak	- Esku-hartze sozialeko prozesuen ebaluazio-ereduak gizarte- eta kirol-arlora egokitzea. - Ebaluazio-adierazleak eta -tresnak hautatzea, gizarte- eta kirol-arloko esku-hartzeetan planteatutako helburuen lorpen-mailaren kontrola eta jarraipena egiteko. - Ebaluazio-teknikak eta -jarduerak aplikatzea, ezarritako helburuak eta esku-hartze bakoitzeko irizpideak aintzat hartuta. - Ondorioak adieraztea, lortutako informazioaren interpretazioa abiapuntutzat hartuta. - Hobekuntzak proposatzea, esku-hartze ez-egoki baten kausak identifikatu ondoren.
kontzeptuzkoak	- Ebaluazioaren ezaugarriak eta ebaluazio-ereduak, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen arretaren esparruan. Gizarte-arloko esku-hartze prozesuetako ebaluazio-adierazleak. Gizarte- eta kirol-arloko esku-hartze proiektuen bereizgarriak. - Ebaluazio-prozesurako informazio garrantzitsua lortzeko aukera ematen duten erreferente pertsonalak eta testuingurukoak. - Ebaluazio-teknikak, -tresnak eta -adierazleak, esku hartzeko esparruak kontuan hartuta eta inplikaturako kolektiboen arabera. - Datuak aztertzea eta eztabaidatzea. Analisi kuantitatiboa, egiturazko analisia, interpretazio kualitatiboa eta erreferentziala. - Ebaluazioaren garrantzia esku-hartze prozesuak hobetzeko.
jarrerazkoak	- Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonekin talde-lana egitearen garrantziaz ohartzea. - Lankidetzan aritzea gizarte-bazterkeriako egoera jasateko arriskuan dauden pertsonen gizarte- eta hezkuntza-arloko ebaluazioan parte hartzen duten eragile eta profesionalekin. - Lankidetzarako jarrera izatea, ebaluazioaren ostean erabakiak hartzeko. - Esku-hartzea hobetzeko ebaluazio-prozedurak ezartzeko garrantzia baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziak

Ikuspegi sozializatzailetik eta jolas- eta hastapen-ikuspegitik garatuko dira modulu honetan irakasten den prestakuntzari lotutako lanbide-jarduerak kirol-jarduera fisikoen

testuinguruan, eta, nagusiki, hiru kolektibori emango zaie arreta: a) desgaitasuna duten pertsonen, b) adinekoei eta c) gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenei.

Gomendatzen da kurtsoa hiru alditan banatzea, eta, haietako bakoitzean, kolektibo bat lantzea. Aldi bakoitzean, eskema honi jarraituz lan egingo da: 1) kolektiboa eta ingurunea aztertzea, 2) jarduera programatzea, 3) aplikazioa, eta 4) ebaluazioa.

Modulu honen garapenean, badugu eduki-ezagutza nabarmena, lehenengo kurtsoan egindako beste heziketa-moduluetan eskuratutakoa, eta, beraz, lehendik barneratuta izango dugu programazio-, aplikazio- eta ebaluazio-prozedurak barne hartzen dituen prozesua.

2) Alderdi metodologikoak

Oro har, metodologia aktiboak aplikatuko dira, ikasteko testuinguru berriarekin bat datozenak, hau da: errendimendu handiko zikloak – ETHAZI. Ereduaren ardatz nagusia **ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZA** da. Erronketan, ebatzi beharreko egoera korapilatsuak planteatzen dira, laneko errealitatearen egoeretatik gertu daudenak, eta, egoera horiek konpontzeko, beharrezkoa da zikloko zenbait moduluren arteko elkarlana, eta, gainera, konpetentzia tekniko eta zeharkakoak aplikatu behar dira, hala nola ikasteko autonomia, talde-lana, emaitza apartak lortzeko orientazioa, etab.

Modulu honetan, irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuko jardun-ildoak, ikaskuntza-emaitzak erraztuko dituztenak, honako hauekin daude lotuta:

- Aztertuko dira zer ezaugarri espezifiko duten esku-hartzeen xede diren kolektibo eta pertsonen, zer testuingurutan aplikatuko diren esku-hartzeak eta zer ezaugarri duten inplikaturako erakundeak.
- Jarduera fisikoko programak, proiektuak eta jarduerak prestatzea, koherentzia erakusten dutenak xede dituzten kolektibo eta pertsonen premiekin eta esku-hartzea garatzen den erakundeekin.
- Esku-hartzeetarako estrategiak eta ebaluazio-prozesuak diseinatzea, esku-hartzeetan ahalik eta kalitate hoberena lortzeko.

Jardun-ildo horiek guztiek, ikaskuntza hobeto garatze aldera, estrategia hauek izango dituzte kontuan:

- Praktika-egoeren simulazioa.
- Erakundeetan bisitak egitea eta haiekin elkarlanean jardutea.
- Talde-lana, sormena eta garatutako lanaren autoebaluazioa.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Gizarte- eta kirol-inklusioko jardueren programazioaren atalean:

- Txosten bat prestatzea, kolektiboaren ezaugarri sentzorial, kognitibo eta motorrak bilduta.
- Kirol-jarduera praktikatzeko oztopo posibleak identifikatzea.
- Halako kolektiboekin lan egiten duten erakunde eta organismoak eta haien ezaugarri eta helburuak identifikatzea.
- Elkarriketak egitea halako kolektiboekin lan egiten duten inguruneke erakunde eta organismoen arduradunei.
- Aplikatu beharreko kirol-jarduera fisikoen katalogo bat prestatzea, jarduerok deskribatuta eta jardun-jarraibideak jasota.



- ✓ Gizarte- eta kirol-arloko esku-hartze estrategiak aplikatzeari buruzko atalean:
 - Talde-teknika espezifikoak erabiltzea gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboekin.
 - Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboekin komunikatzeko jarraibideak diseinatzea.
 - Komunikazio-egoeren simulazioa.
 - Gatazka-egoeretarako proposamenak eta konponbideak diseinatzea.
 - Jardun-jarraibideak diseinatzea taldera eta jarduerara egokitzeko aldirako.
 - Binaka, irakasteko moduaren simulazioak egitea.
- ✓ Esku-hartze prozesuaren ebaluazioa diseinatzeari buruzko atalean:
 - Ebaluatu beharreko jarduerak identifikatzea.
 - Kirol-jarduera zehatzak eta helburu zehatzak dituztenak ebaluatzeko ebaluatzeko irizpideak finkatzea.
 - Erakundeetan bisitak egitea eta kirol-jarduerak behatzea.
 - Behatze-jarraibideak prestatzea.
 - Egindako bisitei lotutako egoeren gaineko txostenak egitea.
 - Jardunbide-inei buruzko txosten-eskuliburu bat prestatzea, non jasoko baitira zenbait adierazle eta tresna, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboekin egindako kirol-jardueren kontrola eta segimendua egiteko egokiak direnak.

10. LANBIDE-MODULUA

KIROL-JARDUERA FISIKOAK IRAKASTEKO METODOLOGIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Kirol-jarduera fisikoak irakasteko metodologia
Kodea:	1143
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	99 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	8
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotua
Helburu orokorrak:	3 / 6 / 10 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ataza motorren zailtasuna ebaluatzen du, ataza horietan jokoan jartzen diren mekanismoak aztertuta, bai eta mekanismo horiek ikaskuntza-prozesuaren eboluzioaren zenbait unetan duten eragina aztertuta ere.

Ebaluazio-irizpideak:

- Irakaskuntza-eredu desberdinak aztertu ditu, haien oinarri diren teoria nagusiak kontuan hartuta, eta aintzat hartuta zer aukera ematen dituzten trebetasun motorren ikaskuntzarako.
- Ataza motorrean pertzepzio-mekanismoarekin lotura duten elementuak bereizi ditu.
- Ataza motorrean erabakitze mekanismoarekin lotura duten elementuak bereizi ditu.
- Ataza motorrean mekanismo efektorearekin lotura duten elementuak bereizi ditu.
- Bereizi ditu erabiltzaileen zer ezaugarriak duten eragina kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza prozesuetan.
- Ataza motorren ikaskuntzaren zailtasuna erabiltzaileen heldutasun-uneetara egokitzeko beharra baloratu du.

2. Kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programak egiten ditu, haiek osatzen dituzten elementuak lotuta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Irakaskuntza-programa testuinguruan kokatu du, programa sustatzen duten erakundeetan.
- b) Kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programa justifikatu du, testuinguruaren ezaugarrien eta beharren arabera.
- c) Helburuak ezarri ditu, kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programaren zehaztasun-mailen arabera.
- d) Sekuentziazio-irizpideak definitu ditu irakaskuntza-programan, kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza errazten duten aldagaien arabera.
- e) Estrategia metodologikoak hautatu ditu, erreferentzia-taldearen eta kirol-jarduera fisikoen tipologiaren arabera.
- f) Kirol-jarduera fisikoko programak egokitu ditu erabiltzaileen ezaugarrien dibertsitatera.

3. Kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-programetan inplikaturako baliabideak antolatzen ditu, efikazia- eta efizientzia-irizpideak definituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Material espezifikoak edo egokituak definitu ditu, kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programen ezaugarrien arabera.
- b) Materialak, espazioak eta denborak definitu ditu, kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programaren lan-unitateen arabera.
- c) Pertsonen, materialen, denboraren eta espazioaren antolaketa definitu du, irakaskuntza-baliabide gisa.
- d) Materialak, espazioak, antolaketa eta jardun-denborak zehaztu ditu, erabiltzaileen ezaugarriak kontuan hartuta.
- e) Irakaskuntza-ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratu du.

4. Kirol-jarduera fisikoen ikaskuntzarako progresioak diseinatzen ditu, jarduera motarekin eta erreferentziazko taldearekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atazak ordenatu ditu, zailtasun-profilen arabera.
- b) Atazetan progresioak ezarri ditu, eduki moten arabera.
- c) Atazen egokitzapenak aurreikusi ditu, erabiltzaile mota bakoitzaren garapen motorren, abstrakzio-ahalmenaren eta motibazioen arabera.
- d) Progresioen eta programazioko helburuen arteko koherentzia baloratu du.
- e) Teknikariek eta erabiltzaileek atazak gauzatzerakoan duten eginkizuna ezarri du.
- f) Irakaskuntzan progresioak ezartzeko beharra baloratu du, erabiltzaileen ikaskuntzak errazteko.

5. Kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programa ebaluatzen du, hura optimizatzeko aukera ematen duten adierazleak zehaztuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-prozesuaren ebaluazio-ereduak alderatu ditu.

- b) Kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza-mailaren ebaluazio-tresnak egiteko irizpideak ezarri ditu.
- c) Erabilitako espazioen eta baliabideen efikazia eta efizientzia (funtzionaltasuna eta egokitasuna) egiaztatzeak tresnak ezarri ditu.
- d) Ezarritako helburuen betetze-maila baloratzeko sistemak zehaztu ditu.
- e) Ebaluazioan hautemandako desdortzeak konpontzeko aldaketa-proposamenak egiteko formulak definitu ditu.
- f) Datuak eztabaidatzeko eta interpretatzeko egoerak eta elementuak zehaztu ditu.
- g) Zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko etengabeko jarrera izatearen garrantzia baloratu du.

c) Edukiak:

1. ATAZA MOTORREN ZAILTASUNEN EBALUAZIOA	
prozedurazkoak	- Irakaskuntza-ereduen analisia: ereduon oinarri diren teoriak. - Ataza motorren elementuetan, pertzepzio-mekanismoarekin, erabakitzeko mekanismoarekin eta exekuzio-mekanismoarekin lotura duten elementuak bereiztea, eta aztertzea elementu horiek nola zaildu dezaketen mekanismo horiek gauzatzea edo ikastea. - Irakaskuntza-atazak eta -estrategiak praktikan aztertzea. - Ataza motorren irakaskuntza-proposamena, honako hauen arabera: gauzatze-mekanismoen zailtasuna, eta erabiltzaileen heldutasun-uneak eta ezaugarriak.
kontzeptuzkoak	- Trebetasun motorren irakaskuntza-ikaskuntzako ereduak: teknikoak, praktikoa eta kritikoa. - Ekintza motorrak gauzatzearen faseak eta mekanismoak: • Hasierako informazioa. • Pertzepzio-mekanismoa. • Erabaki-mekanismoak. • Exekutatzeko mekanismoa. • Emtzen berri izatea (feedback). - Irakaskuntza-atazak eta -estrategiak praktikan. Ezaugarriak, egiteko baldintzak, zailtasun-mailak. Motak: • Diskretuak, seriatuak, jarraituak. • Irekia, itxia; - Eboluzioaren etapak. • Garapen motorra, kognitiboa eta afektibo-soziala. • Heltze-etaparen ezaugarriak. • Ikaskuntzarako inplikazio didaktikoak. • Edukiak etapaka sekuentziatzea.
jarrerazkoak	- Irakaskuntza-ereduekiko gaitasun kritikoa izatea. - Zorroztasuna irakaskuntza zailtzen duten aldagaien tratamenduan. - Ekintza motorrak ekintza horien zailtasunaren eta eboluzio-etapen arabera egokitu behar diren balorazioa.

2. KIROL-JARDUERA FISIKOKO IRAKASKUNTZA-PROGRAMAK EGITEA	
prozedurazkoak	- Irakaskuntza-programaren justifikazioa, programa sustatzen duten



	erakundeen eta testuinguruaren ezaugarrien arabera (hezkuntza-kirola, jolas-kirola, eta errendimendura bideratutako kirola). - Helburuak eta edukiak sekuentziatzea, kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programaren zehaztasun-mailen arabera. - Metodo, estilo eta estrategia metodologikoak hautatzea, aintzat hartuta kirol-jarduera fisikoen tipologia eta erreferentzia-taldea (dibertsitatea aintzat hartzea). - Kirol-jarduera fisikoko programak eta unitate didaktikoak diseinatzea, testuingurura eta erabiltzaileen dibertsitatera egokituta: haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak.
kontzeptuzkoak	- Kirol-jarduera fisikoaren irakaskuntzaren testuinguruak eta haien ezaugarriak Euskal Autonomia Erkidegoan: • Eskola-kirola. • Kirol federatua • Kirol-elkarteak • Kirol-arloko klubak eta elkarteak. • Udal-kiroldegiak eta -programak. • Gimnasioak eta jarduera fisikorako zentro pribatuak. • Naturan egiteko jardueren arloko enpresak. • Denbora libreko elkarteak eta klubak. • Kirol- eta jolas-ekitaldiak. • Animazio turistikoa eta herri-jaiak. • Erakunde publiko edo pribatuen kirol-animazioko beste programa batzuk. - Erabiltzaileen profilak (haurrak, gazteak, pertsona helduak, adinekoak) eta praktikarako motibazioak (hezkuntza, jolasa, errendimendua, osasuna, estetika, turismoa, denbora libre, etab.). - Kirol-jarduera fisikoak irakasteko programaziorako oinarriko elementuak: justifikazioa, helburuak, edukiak, orientabide didaktikoak, antolaketa eta tenporalizazioa, giza baliabideak eta baliabide materialak, eta ebaluazioa. - Unitate didaktiko baten atalak: helburuak, edukiak, orientabide didaktikoak, ebaluazio-irizpideak. - Kirol-jarduera fisikoaren helburuak eta konpetentziak. - Edukien tipologia: prozedurakoak, kontzeptualak eta afektibo-sozialak. - Irakaskuntza-metodoak eta -estiloak, eta haiek ematen dituzten aukerak: • Eredu gidatzaileak, eredu erreproduzitzearen bidezkoak eta errakuntzarik gabeko ikaskuntza. • Bilaketa eta aurkikuntza bidezko ikaskuntza, saiakuntza eta errakuntza bidezko ikaskuntza. - Esku hartzeko eredu didaktikoak. Aniztasunaren trataeran aplikatu beharreko irizpideak: - Irakaskuntza-estrategiak eta parte hartzen duten faktoreak: • Globalak. • Analitikoak. • Fenomeno-estrukturala. - Informazio motak irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan, honako hauen arabera: • Jatorria: barne-informazioa, kanpo-informazioa. • Informazio-kanala: ikusmenekoa, entzumenekoa, ukimenekoa, mistoa. • Eskuratzeko unea: lehenagokoa, berehalakoa, geroagokoa. • Esku-hartzearen izaera: deskriptiboa, ebaluatiboa, aginduzkoa, esplikatiboa.

	- Teknikariaren eginkizunak kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programetan: irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua programatzea, diseinatzea, koordinatzea, irakastea, animatzea, dinamizatzea, prozesuan parte hartzea, gidatzea, zuzentzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
jarrerazkoak	- Zorroztasuna kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-programak egitean. - Programazioaren eta irakaskuntzaren paradigmaren arteko koherentzia.

3. KIROL-JARDUERA FISIKOAK IRAKASTEKO BALIABIDEAK ANTOLATZEA

prozedurazkoak	- Irakaskuntza-programa garatzeko behar diren giza baliabideak aurreikustea. - Programatutako kirol-jarduera fisikoak egiteko behar diren materialak, instalazioa eta espazioak hautatzea. - Pertsonak, materialak, espazioak eta denbora antolatzea, honako irizpide hauek baliatuta: segurtasuna, motibazioa, gorabeheren kontrola eta parte-hartze handiena. - Antolaketako egokitzapen posibleak aurreikustea, erabiltzaileen eta kirol-praktika fisikoaren beharrak aintzat hartuta.
kontzeptuzkoak	- Giza baliabideak kirol-jarduera fisikoetan. Sektoreko lanbide-kualifikazioak eta titulazioak. - Kirol-jarduera fisikoak praktikatzeko espazioak eta ezartzeko aldaerak, eta jarduera haietan esku hartzeko aukerak. - Material espezifikoak eta egokituak. Kirol-jarduera fisikoak egiteko aldaerak eta haiek ematen dituzten aukerak. - Gorabeherak antolatzeke eta kontrolatzeko irizpideak, kirol-jarduera fisikoen ikaskuntzan. - Ikaskuntza-esparruak. Egin daitezkeen aldaketak, erabiltzaileen ezaugarrien arabera: haurrak, gazteak, pertsona helduak eta adinekoak.
jarrerazkoak	- Irakaskuntza-ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea. - Kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-programetan baliabideak efikaziaz eta efizientziaz antolatzea baloratzea.

4. KIROL-JARDUERA FISIKOEN IRAKASKUNTZA-PROGRESIOAK DISEINATZEA

prozedurazkoak	- Programazioko helburuekin, parte-hartzaileen eboluzio-etaparekin eta egin beharreko jarduerarekin koherenteak diren irakaskuntza-egoerak diseinatzea. - Ikaskuntza-transferentzia positiboa errazten duten irakaskuntza-progresioak proposatzea. - Atazak ordenatzea, saioaren unearen, zailtasun-profilen eta eduki moten arabera. - Aurreikustea zer aldaketa egin daitezkeen saioan ataza motorren ikaskuntza eta ahalik parte-hartze handiena errazteko. - kirol-jarduera fisikorako, erreferentziazko talderako eta haren dibertsitaterako irakaskuntza-progresio egokiak dituzten saioak
----------------	--



	diseinatzea eta garatzea.
kontzeptuzkoak	- Gizarte- eta kirol-jardueren zehaztasun-mailak eta programazio-sekuentziak: programazio orokorra, unitate didaktikoa, saioa, progresio didaktikoa. - Kirol-jarduera fisikoen berezko irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerak, talde edo pertsona parte-hartzaile bakoitzera egokituak (garapen motorra, motibazioak, abstrakzio-maila, besteak beste). - Kirol-jarduera fisikoen progresio didaktiko bat egiteko irizpideak: • Transferentzia positiboa. • Zailtasun-maila. • Ikaskuntza adierazgarria. • Antolaketa eraginkorra. • Printzipio metodologikoak. - Kirol-jarduera fisikoko irakaskuntza-atazak sekuentziatzeko, tenporalizatzeko eta ordenatzeko irizpideak. - Kirol-jarduera fisikoko saio baten faseak: • Informazio-fasea. • Berotzea. • Fase nagusia. • Lasaitasunera itzultzea. • Ebaluazio-fasea. - Saio baterako inprimakiaren atalak: • Jarduera, taldea, ordutegia, materiala. • Deskribapen idatzia eta grafikoa. • Helburuak eta edukiak • Tenporalizazioa. - Kirol-jarduera fisikoen terminologia eta sinbologia. - Teknikariaren eta erabiltzaileen rolak atazak egitean: animatzailea, hezitzailea, gidaria, bideratzailea, behatzailea, parte-hartzailea, laguntzailea, etab.
jarrerazkoak	- Irakaskuntzan erabiltzaileen ikaskuntza errazteko progresioak ezartzeko beharra baloratzea. - Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa, atazak sekuentziatzeko.

5. KIROL-JARDUERA FISIKOAK IRAKASTEKO PROZESUAREN EBALUAZIOA

prozedurazkoak	- Kirol-jarduera fisikoak irakasteko prozesuaren ebaluazio-ereduen analisia. - Kirol-jarduera fisikoen ikaskuntza-helburuen betetze-maila ebaluatzeko irizpideak ezartzea. - Erabilitako espazioen eta baliabideen efikazia eta efizientzia (funtzionaltasuna eta egokitasuna) egiaztatzeko tresnak zehaztea. - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuko elementuak ebaluatzeko tresnak erabiltzea. - Ebaluazioaren datuei buruzko eztabaida eta interpretazioa. - Kirol-jarduera fisikoak irakasteko jarduerari buruzko txostenak eta memoriak egitea. - Irakaskuntza-prozesurako aldaketa- eta hobekuntza-proposamenak egitea. - Datuak eztabaidatzeko eta interpretatzeko egoerak eta elementuak zehaztea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	- Kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-programak ebaluatzen diren ereduak, irizpideak eta tresnak. - Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuko elementuei buruzko ebaluazio-adierazleak: testak, galdetegiak, behaketa-orriak, elkarriketak, talde-teknikak, beste ebaluazio-teknika batzuen artean. - Ikaskuntzak ebaluatzen diren jarduerak, irakaskuntza-programan jasotako helburuei erreparatuta. - Ebaluazio-memoriak eta -txostenak, irakaskuntza-programaren erakunde sustatzailearentzat eta erabiltzaileentzat. - Kirol-jarduera fisikoen praktikaren programazioak eta ebaluazioak ikaskuntza-tresna gisa dituzten onurak.
jarrerazkoak	- Zerbitzuaren efikazia eta kalitatea hobetzeko etengabeko jarrera izatearen garrantzia baloratzea. - Ahalmen kritikoa eta autokritikoa, hobetzeko tresnak diren aldetik.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Lehenengo fasean, hautatutako lanbidearen inguruan kokatu behar da ikaslea, eta beharrezkoa den prestakuntza eman, kirol-animatzailearen profilari buruz eta jarduera fisikoa Euskal Autonomia Erkidegoan irakasteko testuinguruei buruz. Gainera, eboluzio-etapa bakoitzean landu beharreko motibazioak, metodologia eta edukiak zehaztuko dira.

Ondoren, komenigarria izan daiteke kirol-jarduera fisikoaren berezko nomenklatura eta terminologia ezagutzea, jardueren eta saioen inprimakiak diseinatzeko erabiltzeko. Funtsezko da, halaber, irakaskuntza-eredu desberdinak aipatzea, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren elementu guztien oinarria izango baitira.

Bigarren fasean, irakaskuntza-programak prestatzeko prozesua aztertuko da: ataza motorren analitika hasita, gero jarduerak, progresioak, saioak eta unitate didaktikoak diseinatu, eta, azkenik, programazio orokorrera iritsi.

Puntu honetan, kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzarako elementu metodologikoak sartzen hasi behar da: helburuak, edukiak, metodoak, estiloak, estrategiak, printzipio metodologikoak, orientabide didaktikoak, sekuentziazioa, giza baliabideak eta baliabide materialak, eta, azkenik, ebaluazioa egiteko irizpide, teknika eta tresnak.

Hirugarren fasean, honako hauek jorratuko dira: pertsonen eta materialaren antolaketa, zuzendaritza-metodoak eta saio praktikoak animatzeko eta gorabeherak kontrolatzeko dinamikak.

Modulu hau zeharkakoa eta beharrezkoa da, hain zuzen ere irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua programatzen, irakasten, zuzentzen, animatzen eta ebaluatzen ikasteko, aintzat hartuta beste modulu batzuetan (taldekoak, inplementazioak, banakakoak, inklusiokoak, jolas-arlokoak eta animazio turistikoak) garatzen diren jolasetako, kiroleko eta jardueretako parte-hartzaile mota guztiak.



2) Alderdi metodologikoak

Metodologia aktiboak aplikatzea, ikasteko testuinguru berriarekin bat datozenak: errendimendu handiko zikloak – ETHAZI. Ereduaren ardatz nagusia **ERRONKETAN OINARRITUTAKO ELKARLANEKO IKASKUNTZA** da. Erronketan, ebatzi beharreko egoera korapilatsuak planteatzen dira, laneko errealitatearen egoeretatik gertu daudenak, eta, egoera horiek konpontzeko, beharrezkoa da zikloko zenbait moduluren arteko elkarlana, eta, gainera, konpetentzia tekniko eta zeharkakoak aplikatu behar dira, hala nola ikasteko autonomia, talde-lana, emaitza apartak lortzeko orientazioa, etab.

Modulu honetako unitate didaktiko guztietan, ikaskuntza esanguratsua sustatu beharra dago. Hau da, ikasleen kirol-ezagutzatik eta -bizipenetatik abiatu, eta modu kolektiboan eraiki behar da ezagutza, haien ekarpen, motibazio eta premiak kontuan hartuz. Hartara, ikaskuntzaren bideratzaile bihurtzen da irakaslea. Esate baterako: “erlazioa edo sailka itzazu ezagutzen edo praktikatzen duzun kirol-jarduera fisiko batean garatu beharreko edukiak.”

Era berean, alde batera utzi behar da memorian oinarritutako irakaskuntzaren ikuspegia, eta asimilazio bidezko ikaskuntza baliatu, zenbait kasu praktiko gauzatuz. Esate baterako: “Diseina ezazu irakaskuntza-progresio bat, pertzepzio-mekanismoen, erabakitze mekanismoen eta exekuzio-mekanismoen zailtasunaren analisisan oinarritutako ataza motor baten gainean.”

Unitate didaktiko guztietan, azpimarratu beharra dago jarrerazko edukien zeharkakotasuna, hain zuzen ere ikasleek pausoz pauso garatu dezaten gizarte- eta kirol-jardueren hezitzailearen, irakaslearen, monitorearen, animatzailearen eta koordinatzailearen lanbide-profila. Horregatik, garrantzizkoa da jarduerak sustatzea, zeinen bidez ikaslea jabetuko baita eskola-kirolaren balio hezitzaileaz, egungo egoerarekin kritikoa izanik, eta talde-lanaren eta profesional desberdinen arteko koordinazioaren beharraz (besteak beste). Esate baterako: “Lagundu iezaiozu entrenatzen eskola-ikasleen talde bati, klasean diseinatutako jarduerak eta saioak praktikan jartzeko, eta atera itzazu ondorioak”.

Gainera, komeni da ikasleek ikerketak egitea etorkizunean izango duten lanbide-ingurunean, prestakuntzaren aplikazioaz eta bizitzan zehar ezagutza eguneratu beharraz jabetu daitezen. Esate baterako: “Joan gertuko kiroldegi edo gimnasio batera eta ikertu ezazu zertan diren eskaintzen dituzten kirol-jarduera fisikoak eta nolako diziplina anitzeko profila eskatzen zaien langileei”.

Etengabeko prestakuntza horren barruan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili beharra sartzen da. Esate baterako: “Diseina ezazu saio-inprimaki bat, programa informatiko bat erabiliz”.

Beharrezkotzat jotzen da, halaber, klase praktikoak eman ditzaten, aurretik programatu dituzten jarduerak eta progresioak gidatuz, hain zuzen ere behatzeko, ebaluatzeko eta hobetzeko ikasleek duten gaitasuna beren ikaskideei irakasteko, antolatzeko eta animatzeko egoera erreal edo fikziozko batean. Esate baterako: “Presta eta eman ezazu saio bat, estrategia global bat erabiliz”.

Gomendagarria da bilaketa bidezko irakaskuntza-metodoa eta arazoa aurkezteko baliabide erakargarriak erabiltzea. Esate baterako: Artikuluak irakurri eta interpretatzea, bideoak, mintzaldiak, web-orrietan begiratzea eta abar. Hala, zenbait egileren ekarpenak aztertu, eta jarrera kritikoa sustatuko da ikasleen artean, bai eta etengabe ikertu beharra ere.

Aberasgarria izango litzateke ikasleek, taldeka, ikerketa-proiektu baten garapena aztertzea eta, han, modulu honetan eskuratutako edukiak islatzeko gauza izatea. Esate baterako: "Sortu ezazue fikziozko enpresa bat, kirol-jarduera fisiko bat eskainiko duena ingurune eta talde jakin batentzat. Presta ezazu programazioa eta aurkez ezazue klasean, power-point bidez".

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko teknikarien irtenbide profesionalak testuinguruan jartzea:
 - Kirolak, jarduera fisikoak eta animazio turistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten testuinguru desberdinen helburuak eta ezaugarriak bereiztea.
 - Inguruneko kirol-instalazioetan eskaintzen diren jardueren sailkapena.
 - Zehaztea zein den egun eskatzen den kirol-monitorearen profila.
- ✓ Eboluzio-etapak, erabiltzaileen profilak eta haien ondorio metodologikoak aztertzea:
 - Adin bakoitzeko garapen motorraren, kognitiboaren eta afektibo-sozialaren datuak behatu eta biltzea.
 - Prestakuntza motorraren etapak, garatu beharreko edukiak eta kontsiderazio metodologikoak ezartzea etapa bakoitzean.
 - Jarduera fisikoa praktikatzeko gustuak eta motibazioak aztertzea.
- ✓ Kirol-jarduera fisikoko programazioak aurkeztea:
 - Terminologia, sinbologia, paradigma eta praxiologia motorrak definitzea.
 - Jarduera-fitxa bat diseinatzea.
 - Saio-txantilo bat diseinatzea.
- ✓ Kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-programa bat prestatzea, testuinguru eta kolektibo jakin batentzat:
 - Jarduera horretan nagusi den ataza motorraren pertzepzio-mekanismo, erabakitzeko mekanismo eta exekuzio-mekanismoen zailtasuna aztertzea.
 - Lortu beharreko helburuak formulatzea eta sekuentziatzea.
 - Garatutako edukiak sailkatzea eta hautatzea.
 - Testuinguru honetan irakasteko metodo, estilo eta estrategia egokiena aztertu eta aplikatzea.
 - Helburuekin transferentzia positiboa duten ariketak, jolasak eta/edo jolas-jarduerak diseinatzea.
 - Irakaskuntza-progresioak diseinatzea, ataza motorrak sekuentziatzeko printzipio metodologikoei jarraituz.
 - Saio bat diseinatzea eta inprimaki batean aurkeztea, puntu hauei jarraituz: helburu eta edukiak; deskripzio idatzia eta grafikoa; instalazioa eta materialak; temporalizazioa; antolaketa, eta egokitzapenak.
 - Unitate didaktiko bat diseinatzea, helburu eta ebaluazio-irizpide berak dituzten saioak bateratuz.
 - Proiektu bideragarri bat prestatzea, kudeatzea eta azaltzea: justifikazioa, programazioa, baliabideak antolatzea, sustatzea, garatzea eta gainbegiratzea.
- ✓ Jarduera fisikoko eta kirol- eta jolas-jarduerako saioak gidatzea, animatzea eta ebaluatzea.
 - Saio bat zuzentzerakoan kontuan hartu beharreko alderdien zerrenda prestatzea.
 - Saio praktikoa bat edo zati bat ematea ikaskideei.
 - Behatze-txantiloak sortzea.
 - Informazio hori zuzen ebaluatu eta interpretatzeko behar diren datuak biltzea.
 - Aldaketak eta hobekuntzak proposatzea.



11. LANBIDE-MODULUA

GIZARTE- ETA KIROL-IRAKASKUNTZAKO ETA -ANIMAZIOKO PROIEKTUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarte- eta kirol-irakaskuntzako eta -animazioko proiektua
Kodea:	1144
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	50 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu eta, horretarako, sail bakoitzaren eginkizunak eta antolamendu-egitura eman ditu aditzera.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu dira.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskariei arreta egiteko behar den proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzioko edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua prestatzeko jarraitu beharreko lan-gidoia prestatu du.

2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barne hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien irismena identifikatu du.
- e) Proiektua egiteko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Abian jartzeko finantzaketa-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- c) Jarduerak gauatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Proiektua inplementatzeari datxezkion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta tresneria definitu ditu.
- f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- g) Inplementatzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Proiektua inplementatzeko edo gauatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatze prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta egon litekeen konponbidea ebaluatze eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldetak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatze beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta dokumentu espezifikoak prestatu ditu.
- g) Hala badagokio, proiekturako baldintzen orria beteko dela ziurtatzeko sistema bat ezarri du.



5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du, eta, horretarako, proiektua prestatzean eta heziketa-zikloko ikaskuntza-prozesua garatzean eskuratutako konpetentzia tekniko eta pertsonalak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.
- b) Aurkezpen bat prestatu du informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabilia.
- c) Proiektuaren azalpena egin du, eta, horretarako, proiektuaren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta bertan jasotzen diren ekintza-proposamenak aukeratu izana justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- e) Proiektua defendatu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak proiektuari buruz planteatutako galderei.

c) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua heziketa-ziklo osoan landu diren konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea da. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeneoak eta konpetentzia osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen zeregina garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Lantokiko prestakuntzaren garaian irakasten da modulu hau; beraz, proiektua egiteko ideiak har ditzakete praktikak egiten dituzten enpresatik. Nolanahi ere, komenigarria da tutoreak eskuragarri izatea zenbait proiektu teknikoki bideragarri, garatu ahal izango direnak.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Diseinua.
- Plangintza.
- Gauzatzea eta jarraipena egitea.

Ixtea eta ebaluazioa egitea.

Azkenik, bere proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatuko eta gauzatuko ditu talde bakoitzak. Lan horiek egiteko, aurkezpen-teknika bat baino gehiago erabili behar dituzte, informazioaren eta komunikazioaren teknologiez lagunduta.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (*Problem Based Learning*, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren konpetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berariaz oinarritutako PBL metodologia erabil daiteke. Metodologia horiek problemak identifikatzera behartzen dute ikaslea, horiek

konpontzeko hautabideak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, metodologia horiek bakarlaneko uneak sustatzen dituzte, eta bakarlan horiek garrantzi handikoak dira taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektua defendatzean erakutsi beharko dituen ezagutzak eta konpetentziak eskuratzeko.

Bestalde, ikasleek, talde-lana egitean, harremanetarako konpetentziak lantzen dituzte eta, lan egiteko tresna diren aldetik, taldeen jarduteko moduarekin eta jardun-molde horrek dakarren guztiarekin ohitzen dira: taldea antolatu beharra, lanak eta egitekoak banatzea, pertsonen arteko komunikazioa bideratzea, sortzen diren gatazkak konpontzea, etab.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu-talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Komeni da, era berean, jardunean zer beharizan sortzen diren behatzea eta laguntzeko azalpen bat edo mintegiren bat programatzea, proiektuak egiteko jakin behar diren eduki espezifikoen edo erabili behar diren metodoen gaineko hutsuneak estaltzeko.

Azkenik, talde bakoitzak egindako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauek lortzeko:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako konpetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Ikasleek komunikazioaren alorrean dituzten konpetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie, hau da, hainbat informatika-aplikazio erabiltzea diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak, eta abar lantzeko. Horretarako, bideo-proiektagailuak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte, eta, hala, etorkizunean lanerako baliagarri izango dituzten tresnekin trebatzen hasteko aukera izango dute.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzerakoan, proiektua azken produktu gisa eta egindako lanketa-prozesuaren amaiera gisa ebaluatzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Horretarako, lantaldearen funtzionamenduari buruzko informazioa jaso behar da, kide bakoitzak zereginetan eta proiektuan izan duen inplikazioari buruzkoa, oro har, taldean sortutako zailtasunei buruzkoa, ikasle bakoitzak bereganatutako konpetentzia pertsonal eta sozialei buruzkoa, etab.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- o Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- o Aurkezpena egiteko baliabide lagungarrien erabilera: baliabide informatikoak, ereduak edo maketak eta abar.
- o Azalpenaren argitasuna.
- o Azalpenaren antolamendua.
- o Azalpenaren bizitasuna.
- o Azalpenaren eraginkortasuna.
- o Erakutsitako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa eta abar.
- o Irakasle ebaluatzaileen taldeak egindako galderei erantzuteko gaitasuna.



Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektuaren defentsan. Horrela, bakarkako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

- ✓ Azkenik, proiektuan parte hartzen duen talde bakoitzari erantzun xehatua ematea gomendatzen da. Erantzun horretan, produktuari buruzko ebaluazioaren, eta haren prozesuaren eta azalpenaren indarguneak eta ahulguneak azpimarratuko dira. Horrela, ikasleei lagundu egingo zaie aurrerantzean euren lan-ibilbidean garatu eta azaldu beharreko proiektuetan egin litezkeen hobekuntzak identifikatzen.

12. LANBIDE-MODULUA

INGELES TEKNIKOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E200
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko konpetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Egoera jakin batzuk ebazteko ahozko mezu zehatzak igorri ditu: hitzordua, produktu bat bidaltzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/aparatu baten oinarritzko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu, eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean, diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.
- Laneko elkarrikeria baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.



2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentu idatziak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo bidaltze-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezua interpretatu du: *posta elektronikoa eta faxa, besteak beste*.
- d) Sektoreko webgune bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- j) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.
- l) Curriculum vitae egiteko, norberaren prestakuntza eta konpetentzia profesionalak aurkezteko Europako herrialdeetan erabiltzen diren jarraibideak bete ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarteko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

c) Edukiak:

1.- PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA

prozedurazkoak	- Sektoreko mezu profesionalak eta eguneroko jarduneko mezuak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak. - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.
----------------	---

	- Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea eta bestelakoak - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea. - Laneko elkarrizketa bat prestatzea, ikasleek nork bere prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.
kontzeptuzkoak	- Sektoreko terminologia espezifikoa. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboaren erabilera, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarketak. - Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.
jarrerazkoak	- Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea. - Errespetuz jokatzeko eta interesa izatea ulertzeko zein ulertarazteko. - Informazio-trukean bete-betean parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATZEA ETA ADIERAZTEA

prozedurazkoak	- Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarriko artikulak profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektorearen berezko testu profesional errazak eta egunerokoak egitea. - Puntuazio-markak erabiltzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea. - Testu koherenteak egitea. - Bere lan-ingurunearekin lotura duen lan-eskaintza baten iragarkiaren atalak ulertzea. - Bere profilarekin lotutako lan-eskaera prestatzea: curriculum eta motibazio-gutuna.
kontzeptuzkoak	- Euskarri telematikoak: faxa, posta elektronikoa, burofaxa, webguneak. - Hizkuntzaren erregistroak. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Europako Curriculum Vitaearen eredua. - Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	- Errespetuz jokatzeko eta interesa izatea ulertzeko zein ulertarazteko. - Beste kultura batzuetako alderdi profesionalekiko interesa agertzea.



	- Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.
--	---

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA

prozedurazkoak	- Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozial eta profesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen gizarte- eta lan-elementu esanguratsuenak.
jarrerazkoak	- Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokolokoak balioestea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eduki multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da ibilbide didaktiko bat antolatzea, lehentasuna emateko laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoerei konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari.

Modulu honen programazioa antolatzeko, proposatzen da prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza, eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoek eta sintaktikoek ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena, garatzea da lortu beharreko helburua. Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan, beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, oso baliagarria izango da lanbidearen berezko egoera sinple bat aukeratzea, horrela ikaslea beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko baita. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egoerak (aditz-denbora, hiztegia eta abar), hizkuntza-erregistroarekin batera eta arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ikusteko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irmotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarritzko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-kompetentzia batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarritzko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako, behar diren unitate didaktikoak zehaztuko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lan-munduan komunikatzeko tresna gisa ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Garrantzi handia eman behar zaio hitzaren erabilerari, egungo lanbide-egoerek eta globalizazioak horren premia baitakarte.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, ikasleek beren burua behatuz eta beren akatsak aztertuz alderdi neketsuena hobe dezaten; hots, ahozko mezuen sorkuntza. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberastu daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak, liburuxkak...), eta web orri ingelesak kontsultatuko dira.



Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, ikasleen beharretara egokitutako zenbait motatako materialak eskaini behar dira (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak eta abar).

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, posta elektronikoa, burofaxa eta abar.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute, ikasgelan ingelesez hitz egin dezaten, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezen. Horretarako, ikasleak ahalik eta gehien inplikatu dituzte ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Ingurune profesionalarekin lotutako materialak lehentasunez erabiltzea (erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak), eta zenbakiekin, datekin, orduekin eta eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileekin praktikatzea.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoa eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezero baten galderak, ezbehar txikiak, noizbehinkako azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburra ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae-a aurkeztea, motibazio-gutunarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, etab.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan laneko egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarriketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeko.

13. LANBIDE-MODULUA

LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	1145
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	18 / 19 / 20 / 21 / 22 / 23 / 24 / 27

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Laneratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzarako aukerak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Hizkuntza ofizialak jakitearen garrantzia baloratu du, enplegurako aukera den aldetik.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Tituluaren profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduan txertatzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak azaldu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako aukerak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lantaldeak identifikatu ditu.
- c) Lantalde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrek zer ezaugarri dituen zehaztu du.
- d) Ontzat baloratu du talde batean eginkizun eta iritzi desberdinak egon beharra, taldekideek onartuta.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta gaitasuna dauka horiek lan-kontratuetan aurkitzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarritzko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Pertsonen lan-harremanetan dituzten hizkuntza-eskubideak identifikatu ditu.
- d) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- e) Kontratazio-modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- f) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak xedatutako neurriak baloratu ditu.
- g) Laneko harremanak aldatu, eten eta azkentzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- h) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- i) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- j) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- k) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du, eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak zerrendatu ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langileari eta enpresaburuari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak azaldu ditu.
- h) Oinarritzko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere lanak dakartzan arriskuak ebaluatzen ditu, lan-ingurune lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauetan xedatutako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneeko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihetsezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babesteko teknikak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.



c) Edukiak:

1.- Laneratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzarako prozesua

prozedurazkoak	- Lan-ibilbiderako interes, konpetentzia eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: • Beharrekin eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. • Helburu egingarriak ezartzen ditu, egun duen prestakuntzarekin eta izan asmo duenarekin koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norbera egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea. - Laneratzeko beharrezkoak diren dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrietzeta simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	- Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatze aukerak. – Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	- Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-mundura sartzeko aukeratzat baloratzea. - Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntzaren balioa azpimarratzea.

2. GATAZKA ETA LAN TALDEAK KUDEATZEA

prozedurazkoak	- Antolakunde bat pertsona-talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lantaldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lantaldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarritzko elementu gisa. - Lantalde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazka definitzea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazkak ebazteko edo ekiditeko metodoak: bitartekaritza, adiskidetzea eta arbitrajea.

jarrerazkoak	- Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea. - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. - Lantaldeetan sortu daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. - Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.
--------------	--

3. Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak

prozedurazkoak	- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aztertzea, 6/2003 Legearen 14. artikuluan zehaztutako moduan. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: – Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, hitzarmen kolektiboak. - Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak. - Soldata kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZa. - Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea. - Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...
jarrerazkoak	- Lana arautzeko beharra baloratzea. - Bere jarduera profesionalari dagokion sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea. - Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboek dagokienez. - Gizartea hobetzeko eragile gisa, sindikatuaren eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.



4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

prozedurazkoak	- Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsalak zer garrantzi duen aztertzea. - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
kontzeptuzkoak	- Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-eremua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileei beren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	- Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	- Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	- "Arrisku profesionala" kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	- Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa agertzea. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	- Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarritzko prebentzio-tresna gisa. - Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarritzko arauak aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPea eta osasunean esku hartzen duten eragileak eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdietako eta ebakuazioko planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	- LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPea eta Laneko Osasuneko (LO) eragile gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Bere ezagutza baloratzea eta dagokion kolektiboaren larrialdi-planei zabaltzea.

7. ENPRESAN PREBENTZIO- ETA BABES-NEURRIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresek eta banakoek dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	- Banakoen eta taldeen prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikua / lehen sorospenak. Oinarritzko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	- Larrialdien aurreikuspena balioestea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:



1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzea eta egokitze aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoiak. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatzeko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europar lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitze aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio-modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitze aldiaren hasierako aldia gaitasunak, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta lan-atsedenaldia.
- Soldata-agiria edo nomina eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileei eskubideen eta betebeharren inguruan aholku ematea.
- Langileen ordezkaritza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.

- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko kompetentziak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasieran, egokia dirudi irakasleak modulua edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen parte-hartze eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, taldeka nahiz banaka: ikasleen esperientzia pertsonalen berri ematea, prentsako albisteak erabiltzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagunen arteko gatazkak... erabil daitezke aldean portaerak eta arazoen konponbideak aztertzeko.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatuetakordez kariak, lan-arloko abokatuak eta abar), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen sorospenetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da modulua edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, esaterako: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komenigarria litzateke kasu praktiko bat aurrera eramatea, ikasleek benetako enplegu-bilaketako egoera bat simulatuta: horretarako normalean erabiltzen diren dokumentuak egingo dituzte (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan agertzen diren lan-eskaintzak aukeratuko dituzte.



3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektorean enplegatzeak aukerak identifikatzea.
 - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lantaldeak eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lantaldeen tipologia identifikatzea.
 - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneako arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizialdi osoko ikaskuntzaren garrantzia baloratzea.

14. LANBIDE-MODULUA

ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	1146
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakasleak)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	19 / 20 / 21 / 22 / 24 / 25 / 26

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako trebetasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Arriskuaren kontzeptua aztertu du jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezina den aldetik.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.
- Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.
- Negozio-ideia jakin bat definitu du, gizarte- eta kirol- animazioaren eta animazio turistikoaren eremuan, enpresa-plan bat prestatzeko abiapuntua izango dena.



2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du, eta, horretarako, tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatu du.
- b) Negozio-ideiari buruzko merkatu-azterketa bat egin du, eta garatu beharreko eredua ezarri du.
- c) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- d) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- e) Inguruko eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-errealitatea eta euskaraz behar den dokumentazioa identifikatu ditu.
- f) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- g) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- h) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- i) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarritzko funtzioak deskribatu ditu, eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila azaldu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziatzko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa Planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate-eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak azaldu ditu.
- Zerga-egutegian, zerga motak bereizi ditu.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekuek eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- Dokumentazio hori Enpresa Planean txertatu du.

c) Edukiak:

1. EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	- Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua eta abar). - Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzaileko arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	- Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - "Enpresaburua" kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	- Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. - Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2. Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena	
prozedurazkoak	- Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea. - Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.



	- Erabakitako ideiarene gainean berrikuntza-ariketak egitea.
kontzeptuzkoak	- Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen jasagarria). - Ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aztertzea, 6/2003 Legearen 14. artikuluan zehaztutako moduan. - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. - Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	- Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.

3. ENPRESA BAT SORTZEA ETA ABIAN JARTZEA

prozedurazkoak	- Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	- Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zergen arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzekeo administrazio-izapideak (Ogasuna eta Gizarte Segurantzak, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotasunez ebaluatzea. - Administrazio- eta lege-izapideak betetzea.

4. ADMINISTRAZIO-FUNTZIOA

prozedurazkoak	- Kontabilitate-informazioa aztertzea: altxortegia, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lan-agiriak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekuek eta letrak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarriko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.

	- Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	- Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek proposatzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo dute; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko dugu: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu, eta ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenekotik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa Plana egingo dugu. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk aztertuko ditugu: marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa eta abar.

Azkenik, kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruko oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio ikasleari.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailatza-trebetasunak bereganatzearen.

Ikasleek proiektuan aurrera egiten duten heinean, irakasleak beharrezkoak diren ezaguerak helaraziko dizkie azalpenen edo gelan garatutako jardueren bitartez, edo, baita ere, liburu edo artikulua jakin batzuk irakurtzera bultzatuz eta gero haien edukia ikasturteko proiektura egokitze lan bat eginaraziz.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbila eta banan banakoa egin behar du, eta, horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.



3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sektoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
 - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lantaldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.
 - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea
 - ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.

15. LANBIDE-MODULUA

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	1147
Heziketa-zikloa:	Gizarte eta Kirol Irakaskuntza eta Animazioa
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak
Iraupena:	360 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Gorputz Hezkuntza Gizarte esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakasleak) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, enpresak ematen duen zerbitzu motarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura sektorean dauden ereduzko enpresa-antolamenduekin alderatu du.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
- Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
 - Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia, besteak beste) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
 - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lantaldearekin eta enpresan ezarritako hierarkiekin lotutako jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro lan-munduratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Lanbide-jardueran betetzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarrizko alderdiak identifikatu ditu.
- c) Abian jarri du norbera babesteko ekipamendua, lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera.
- d) Ingurumena errespetatzeko jarrera izan du egindako jardueretan.
- e) Ondo antolatuta, garbi eta oztoporik gabe erabili du lanpostua edo jarduera egiteko eremua.
- f) Eman zaion lanaren erantzukizuna hartu du, eta interpretatu eta bete egin ditu eman zaizkion aginduak.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
- h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta sortutako gertakari adierazgarriak komunikatu ditu.
- i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.
- j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Denbora librerako gizarte- eta kirol-animazioko jarduerak programatzen ditu era guztietako erabiltzaileentzat eta zenbait testuingurutan, enpresaren irizpideei jarraituta eta programen talde arduradunekin lankidetzan arituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lantokiaren eta garatzen diren programen berezko ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Dagokion informazioa eskatu die programa bakoitzaren hartzaileei.
- c) Esku hartzeko proposamen bat definitu du, balia daitezkeen baliabideen eta denboraren arabera.
- d) Parte-hartzaileen ezaugarrietara eta esku hartzeko testuingurura egokitutako jarduerak proposatu ditu.
- e) Helburuentzat eta hartzaileentzat egokiak diren esku hartzeko estrategiak hautatu ditu.
- f) Pertsonekin, baliabide materialekin, espazioekin eta ingurunearekin lotuta gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikusi ditu.

4. Jolasen eta banakako, taldeko eta tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-saioak diseinatzen ditu, erabiltzaile eta bezero mota guztientzat, programazio orokorrean ezarritako irizpideei jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lantokiaren eta han garatzen diren programen berezko ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Beharrezkoa den informazioa eskatu die programen hartzaileei.
- c) Esku hartzeko proposamen bat definitu du, balia daitezkeen baliabideen eta denboraren arabera.
- d) Irakaskuntza-ikaskuntzako atazetan, bidezko egokitzapenak egin ditu, parte-hartzaileen eta esku hartzeko testuinguruaren ezaugarrien arabera.
- e) Kirol-jarduera fisikoak irakasteko estrategia metodologikoak hautatu ditu, helburuetara eta jardueren hartzaileetara egokituta.
- f) Atazetan, sekuentzia egokia bete du, irizpide fisiologikoei, motibaziokoei eta ikaskuntzen eraikuntzakoei jarraituta.
- g) Pertonekin, baliabide materialekin, espazioekin eta ingurunearekin lotuta gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko jarduera alternatiboak aurreikusi ditu.

5. Denbora librerako animazioko jarduerak gidatzen eta dinamizatzen ditu, parte-hartzaileen gozamena eta segurtasuna bermatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Naturaltasunezko harremanak izan ditu parte-hartzaileekin, bere portaera soziala haien ezaugarrietara egokituta.
- b) Denbora eta espazioa ahalik parte-hartze handiena lortzeko asmoz eta segurtasun handieneko baldintzak bermatuz konbinatu ditu.
- c) Materialen erabilera errentagarri egin du, parte-hartzaileak behar bezala antolatuz.
- d) Parte-hartzaileak motibatu ditu, jardueran ahalik gehien inplika daitezen.
- e) Praktikan, pertsonarteko harremanak sustatzeko metodologia erabili du, adeitasunezko eta konfiantzazko giroan.
- f) Gertatu direnean, portaera disruptiboak bukarazi ditu, asertibitate-estrategia egokiak erabiliz.
- g) Jardueraren kontrola eta jarraipena egin ditu, eta jarduera egitean gertatu diren gorabeherei erantzun die eta haiek konpondu ditu.

6. Jolasen zein banakako, taldeko eta tresna bidezko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntza-saioak gidatu eta dinamizatzen ditu, parte-hartzaileen gozamena, ikaskuntza eta segurtasuna bermatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dagokion informazioa eman du saioaren hasieran eta amaieran, kirol-jarduera fisikoetan parte-hartzera motibatze aldera.
- b) Denbora eta espazioa ahalik parte-hartze handiena lortzeko asmoz eta segurtasun handieneko baldintzak bermatuz konbinatu ditu.
- c) Materialen erabilera errentagarri egin du, parte-hartzaileak behar bezala antolatuz.
- d) Ataza motorrak nola egin behar diren azaldu du, kasuan-kasuan dagozkion informazio-kanalak erabiliz.
- e) Atazen intentsitatea eta zailtasun-maila, espazioak eta materialak parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitu ditu.
- f) Detektatutako exekuzio-akatsak zuzendu ditu, eta akatsak eragin ditzaketen kausetan esku hartu du.
- g) Praktikan, pertsonarteko harremanak sustatzeko metodologia erabili du, adeitasunezko eta konfiantzazko giroan.
- h) Gertatu direnean, portaera disruptiboak bukarazi ditu, asertibitate-estrategia egokiak erabiliz.



- i) Jarduera kontrolatu du, eta jarduera egitean gertatu diren gorabeherei egoki erantzun die.

7. Irakaskuntza- eta animazio-jardueretako programak ebaluatzen ditu, kalitate-irizpideak sartuta, zerbitzuaren eskaintzan bikaintasuna lortzeko asmoz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ezarritako ebaluazio-tresnak aplikatu ditu, irakaskuntza- eta animazio-programen eta -jardueren egokitasuna ebaluatzeko.
- b) Jarduera osatzen duten elementuak ebaluatu ditu:
 - Erabilitako espazioak.
 - Instalazioak.
 - Tresneria eta materiala.
 - Erakundeko pertsonal inplikaturak.
 - Jardueraren garapena.
 - Elementu osagarriak eta laguntzaileak.
 - Parte-hartze maila.
 - Parte-hartzaileen gogobetetasun-maila.
- c) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- d) Prozesu osoan sortutako informazioa baliatuta, beharrezko diren txostenak egin ditu eta koherentziaz aurkeztu ditu, etorkizuneko programazioetan kontsultatu eta erabili ahal izateko moduan.
- e) Norberaren esku-hartzeari buruzko hausnarketa egin du, baliatutako ezagutzen, trebetasunen eta jarrearen aplikazioa baloratuta.
- f) Hobekuntza-proposamenak prestatu ditu, prozesu osoaren ebaluazioan bildutako informazioaren analisia eta ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, zenbait lan-egoera adieraziko dira, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituztenak.

- ✓ Enpresan ematen diren kirol-jarduera fisikoko eta jolas-arloko zerbitzuetan, titulartasun publikoak edo pribatukoak bereiztea.
- ✓ Lantokiko prestakuntza gauzatzen den instalazioen titulartasun publikoa eta pribatua bereiztea.
- ✓ Erabilitako kudeaketa-eredua eta eredu horretan langileek duten egoera irudikatzea, jardueraren titulartasuna publikoa denean.
- ✓ Dagokion kirol-federazioak jardueran duen esku-hartzea edo eskumena deskribatzea, halakorik izanez gero.
- ✓ Enpresak zer-nolako harremana duen inguruneko elkarte-mugimenduekin eta denbora libreko mugimenduekin.
- ✓ Kirol-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa publiko edo pribatuaren antolamendu-egituraren azterketa:
 - Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
 - Langileak eta enpresarekin dituzten harremanak identifikatzea.
 - Lanbide-profilak.
 - Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etiko eta lanekoak aplikatzea.
- ✓ Kirol-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa publiko edo pribatuan zer-nolako kirol-zerbitzuak eta jarduera fisikoko zerbitzuak diseinatu eta merkaturatzen diren aztertzea.

- ✓ Egonaldia egiten den kirol-zerbitzuko enpresan aplikatu beharreko lan-hitzarmena identifikatzea.
- ✓ Dokumentu-ereduak betetzea eta komunikazio eragilekozenbait jarduketa egitea.
- ✓ Esleitutako irakaskuntzako edo jolas-arloko kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzan esku hartzea, eta, horretarako, parte-hartzaileekin harreman egokiak ezartzea eta aurreikusitako teknikak behar bezala aplikatzea.
- ✓ Kirol-jarduera fisikoen irakaskuntzako eta jolas-arloko jarduerak parte-hartzaile talde desberdinentzat planifikatzeko lanean parte hartzea.
- ✓ Esleitutako kirol-jarduera fisikoak irakasteko jardueren programazioaren prestaketa-lanetan parte hartzea, espazioak egokituz, beharrezkoa den materiala hautatuz eta beharrezkoak diren denbora-baliabideak erabiliz.
- ✓ Kirol- eta jolas-jardueren programa bat prestatzeko lanean parte hartzea.
- ✓ Kirol-jarduera fisikoen zerbitzuak saltzeko eta merkaturatzeko ekintzetan parte hartzea.
- ✓ Ezarritako ebaluazio-tresnak prestatu eta aplikatzea.
- ✓ Enpresan aplikatzen den Laneko Arriskuen Prebentzio Plana identifikatzea.
- ✓ Kirol-zerbitzuen enpresaren kudeaketa-sistema aztertzea edo sistema horren kalitatea eta emaitzak bermatzea, halakorik badago.



4 GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1 ESPAZIOAK:

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	AZALERA (M ²) / 30 IKASLE	AZALERA (M ²) / 20 IKASLE
Erabilera anitzeko gela	60	40
480 m ² -ko gimnasia-aretoa (aldagelak, dutxak eta biltegia izan beharko ditu).	480	480
Kirol-jarduera fisikoko ikasgela teknikoa, biltegia duena	180	120
Kirol anitzeko pista	968	608
(*) Teniseko pistak	3 pista	2 pista
(*) Padeleko pistak	3 pista	2 pista
(*) Igerileku klimatizatu (25 metro luze eta 2 metro sakon).	5 kale	3 kale
(*) Auzoko kirol anitzeko aretoa.	1.215	1.215
(*) Instalazio ez-konbentzionalak hirietan eta natura-ingurunean.		
(*) Atletismo-instalazioak		

* Espazio honek ez du zertan prestakuntza-zentroaren barruan egon


4.2 Ekipamenduak:

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Erabilera anitzeko gela	- Sarean instalatutako ordenagailuak, proiektzio-sistema eta Internet. - Ikus-entzunezko bitartekoak. - Aplikatu beharreko informatika-programak. - Eskola-altzariak: mahaia, aulkiak, armairuak eta arbela.
480 m ² -ko gimnasia-aretoa (aldagelak, dutxak eta biltegia izan beharko ditu).	- Koltxonetak eta tatamiak edo antzekoak. - Horma-barrak.
Kirol-jarduera fisikoko ikasgela teknikoa, biltegia duena	- Argazki digitalak erregistratzeko materiala: grabazio-kamera eta tripodea. - Ikus-entzunezko ekipamenduak: DVDa, proiektzio-kanoia, monitorea eta audio-erreproduzigailu eramangarria.

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
	- Sarean instalatutako PCak eta honako hauetarako software espezifikoak: • Egoera fisikoaren eta biologikoaren balorazioa egiteko softwarea. • Entrenamendu-programak prestatzekoa: entrenamenduaren periodizazioa, programazioa, agenda eta kronogramak. • Irudien tratamendua egitekoa. - Honako hauek baloratzeko materialak: • Egoera fisikoa: zinta metrikoa, kronometroa, pultsometroa, metronomoa, indar-plataformak, erresistentzia-makinak eta dinamometroak. • Egoera biologikoa: azal-tolesturetarako pintza, bioinpedantzia-aparatua, baskula, antropometroa, plomua eta podoskopioa. • Alderdi psikosozialak: galdetegi sortak. - Lehen laguntzako materialak. • Botikina, honako hauek dituen: berehalako hotz-poltsak, antiseptikoak (xaboia, serum fisiologikoa, alkohola, klorhexidina eta iodopobidona, besteak beste), sendaketak egiteko materiala (gazak, aposituak, bendak eta esparatrapua, besteak beste), farmakoak (analgesiko-antitermikoak, antiinflamatorio topikoak, erreduretarako krema eta ahotik hartzeko serumeko zorroak, besteak beste), behin erabiltzeko eskularruak eta xiringak, termometroa, guraizeak eta pintzak. • Immobilizatzeko ferula puzgarrien joko osoa, lepoko doigarriak, lepoko zurrinak (helduentzat, pediatrikoa eta neurri anitzekoa), bizkarrezurrerako ohola, hutseko koltxoia, ohatila finkoak (behin erabiltzeko azalekoak), ohatila eramangarri tolesgarria, guraize-ohatila, immobilizatu eta lekualdatzeak egiteko ohatila zurrina eta tolestutako manta termikoak. • BBBrako manikia, oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladore automatikoa, gelditzeetarako orgak (helduentzat eta pediatrikoa), xurgagailua eta kateterrak, BBBrako maskara eta aurpegi-babesa. • Istripu-parteak eta memoria-liburuak. Xaboi-banagailua eta paperaren euskarria. • Oinak garbitzekoa. • Hozkailua. • Erabili eta botatzeko materialen hondakin arriskutsuentzako edukiontzia. - Aulkiak.
Kirol anitzeko pista	- Saskibaloirako, boleibolerako, futbolerako eta eskubaloirako material finkoa. - Ateen, sareen eta zutoin eramangarri lagungarrien jokoak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako material mugikorak, espazioak mugarriztatze konoak, petoak, uztaiak eta pikak. - Baloiak eramateko orgak.

PRESTAKUNTZA-ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
(*) Teniseko pistak	- Sareen eta zutoin lagungarrien jokoak. - Hastapeneko palak eta erraketak (sobredimentsionatuak), pisu eta tamaina desberdinetakoak. - Espazioak mugarritzatzeko konoak eta uztaiak, besteak beste. - Teniseko pilotetarako orgak.
(*) Padeleko pistak	- Padeleko erraketak. - Pilotak jasotzeko inbutuak padelerako. - Padeleko pilotetarako orgak.
(*) Igerileku klimatizatua (25 metro luze eta 2 metro sakon).	- Uretako ingurunean jolasteko eta igeriketa-estiloak ikasteko materialak: - Elementu flotagarriak (zenbait tamainatako tapizak, puzgarriak eta figurak, besteak beste) eta flotatzen laguntzeko elementuak (oholak eta <i>pull buoy</i>ak, flotagailuak, burbuilak, mahukak eta gerrikoak, besteak beste). - Elementu urperagarriak: eraztunak, erringoak, makilak eta perlak, besteak beste. - Propulsatzen laguntzeko elementuak: hegalak, eskuzorroak eta eskularruak, besteak beste. - Uretako salbamendurako materialak: herrestan eramateko manikia, salbamendu-uztairako estatxa, erreskate- eta salbamendu-hodiak.
(*) Auzoko kirol anitzeko aretoa.	- Saskibaloirako, boleibolerako, futbolerako eta eskubaloirako material finkoa. - Ateen, sareen eta zutoin eramangarri lagungarrien jokoak. - Taldeko kirol-jarduera fisikoetarako material mugikorak, espazioak mugarritzatzeko konoak, petoak, uztaiak eta pikak. - Baloiak eramateko orgak.
(*) Instalazio ez-konbentzionalak hirietan eta natura-ingurunean.	-
(*) Atletismo-instalazioak	- Jauzietarako: beldurra kentzeko koltxoiak, saltometroak, aluminiozko eta aparrezko listoiak, jauslekua, pertiga-jauziko hastapenentarako elementuak eta zinta metrikoak. - Jaurtiketarako: xabalina konbentzionalak eta aparrezkoak, kautxuzko pisuak, jaurtitzeko pilotak, mailu eta disko bigunak. - Lasterketarako: hastapeneko eta erabilera anitzeko hesiak, irteerako takoak eta lekukoak.

* Espazio honek ez du zertan prestakuntza-zentroaren barruan egon



5. IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikariaren heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

LANBIDE-MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
1124. Talde-dinamizazioa	Gorputz Hezkuntza Gizarte esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1136. Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea.	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1137. Gizarte- eta kirol-animazioa planifikatzea	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1138. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduera fisikoak	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1139. Banakako kirol-jarduera fisikoak	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1140. Taldeko kirol-jarduera fisikoak	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1141. Tresna bidezko kirol-jarduerak fisikoak	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1142. Gizarte-inklusioko kirol-jarduera fisikoak	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1143. Kirol-jarduera fisikoak irakasteko metodologia	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1144. Gizarte- eta kirol-irakaskuntzako eta -animazioko proiektua	Gorputz Hezkuntza	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
E-200. Ingeles teknika	Ingelesa	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1145. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko Prestakuntza eta Orientabidea	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1146. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko Prestakuntza eta Orientabidea	Bigarren Hezkuntzako irakasleak

1147. Lantokiko prestakuntza	Gorputz Hezkuntza Gizarte esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE-MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

6.1 Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) xedapenez ezarritako tituluetak lanbide-moduluak eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren xedapenez ezarritako Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikariaren tituluko lanbide-moduluak arteko baliozkotzea.

ANIMAZIO SOZIOKULTURALEKO HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	GIZARTE- ETA KIROL-IRAKASKUNTZA ETA -ANIMAZIOA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006)
Aisiako eta astialdiko animazioa	1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak
Talde-dinamika eta -animazioa	1124. Talde-dinamizazioa
Denbora libreko eta gizarte-heziketako jardueretako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa.	1146. Enpresa eta ekimen sortzailea

KIROL-JARDUERA FISIKOEN ANIMAZIOA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	GIZARTE- ETA KIROL-IRAKASKUNTZA ETA -ANIMAZIOA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006)
Talde-dinamika eta -animazioa	1124. Talde-dinamizazioa
Egokitzen fisikoaren oinarri biologikoak eta oinarriak Lehen laguntzak eta uretako sorospena	1136. Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea
Animaziorako jolasak eta jolas-jarduerak fisikoak	1138. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduerak fisikoak
Banakako kirol-jarduerak fisikoak Lehen laguntzak eta uretako sorospena.	1139. Banakako kirol-jarduerak fisikoak
Taldeko kirol-jarduerak fisikoak	1140. Taldeko kirol-jarduerak fisikoak
Tresna bidezko kirol-jarduerak fisikoak	1141. Tresna bidezko kirol-jarduerak fisikoak
Kirol-jarduerak fisikoak metodologia didaktikoa	1143. Kirol-jarduerak fisikoak irakasteko metodologia



Denbora libreko eta gizarte-heziketako jardueretako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa	1146. Enpresa eta ekimen sortzailea
Lantokiko prestakuntza	1147. Lantokiko prestakuntza

HAUR-HEZKUNTZA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE 1/1990)	GIZARTE- ETA KIROL-IRAKASKUNTZA ETA -ANIMAZIOA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006)
Talde-dinamika eta -animazioa	1124. Talde-dinamizazioa

ANIMAZIO TURISTIKOKO HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	GIZARTE- ETA KIROL-IRAKASKUNTZA ETA -ANIMAZIOA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006)
Animaziorako jolasak eta jolas-jarduera fisikoak	1138. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduera fisikoak
Denbora libreko eta gizarte-heziketako jardueretako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa	1146. Enpresa eta ekimen sortzailea

6.2 Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko goi-mailako teknikariaren tituluko lanbide-moduluen eta 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) xedapenez ezarritako beste titulu batzuetako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak

GIZARTE- ETA KIROL-IRAKASKUNTZA ETA -ANIMAZIOA HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006)	BESTE TITULU BATZUETAKO LANBIDE-MODULUAK (LOE 2/2006):
1124. Talde-dinamizazioa	1328. Taldeei arreta ematea 0211. Gizarte-trebetasunak 0017. Trebetasun sozialak
1136. Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea.	0020. Lehen laguntzak.

7. TITULUKO LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE- ETA EGOKITASUN-LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA-ATALA	LANBIDE-MODULUA
UC1868_2: Aisialdian animaziorako hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea UC1869_3: Hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea	1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak
UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurren eta gazteen jokabidea eta ezaugarri ebolutiboak aintzat hartuta UC1870_3: Monitore-taldeak sortzea, eta denbora libreko hezkuntza-proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea.	1124. Talde-dinamizazioa
UC1093_3: Aisialdiko taldeak sortu eta dinamizatu	1124. Talde-dinamizazioa
UC0273_3: Erabiltzailearen egoera fisikoa, biologikoa eta motibazionala zehaztea. UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa laguntzea.	1136. Egoera fisikoa baloratzeko eta istripuetan esku-hartzea.
UC1658_3: Kirol- eta jolas-jarduera fisikoko animazio-proiektuak egitea, kudeatzea, sustatzea eta ebaluatzea	1137. Gizarte- eta kirol-animazioa planifikatzea
UC1659_3: Mota guztietako erabiltzaileentzako kirol-jarduera fisikoen animazioko eta jolas-animazioko ekitaldi, jardura eta jokoak antolatu eta dinamizatzea UC1095_3: Animazio turistikorako eta jolas-animaziorako kultura-jarduerak antolatu eta garatzea UC1096_3: Gau-jaialdiak eta ikuskizunak antolatu eta garatu, animazioa helburu hartuta	1138. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jardura fisikoak



UC1094_3: Animazio turistikoko jarduera ludikoak eta jolas-jarduera fisikoak antolatu eta garatzea	1138. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduera fisikoak
UC1095_3: Animazio turistikorako eta jolas-animaziorako kultura-jarduerak antolatu eta garatzea	
UC1096_3: Gau-jaialdiak eta ikuskizunak antolatu eta garatu, animazioa helburu hartuta	

Oharra: heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonen titularen barnean hartzen diren konpetentzia-atal guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatu badituzte –1224/2009 Errege Dekretua, lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzeari buruzkoa–, honako lanbide-modulu hau izango dute baliozkotuta: «1143. Kirol-jarduera fisikoak irakasteko metodologia».

7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE-MODULUA	KONPETENTZIA-ATALA
1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	UC1868_2: Aisialdian animaziorako hezkuntza-teknika eta -baliabideak erabiltzea UC1869_3: Hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea
1124. Talde-dinamizazioa	UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurren eta gazteen jokabidea eta ezaugarri ebolutiboak aintzat hartuta UC1870_3: Monitore-taldeak sortzea, eta denbora libreko hezkuntza-proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea. UC1093_3: Aisialdiko taldeak sortu eta dinamizatu
1136. Egoera fisikoa baloratzea eta istripuetan esku-hartzea.	UC0273_3: Erabiltzailearen egoera fisikoa, biologikoa eta motibazionala zehaztea. UC0272_2: Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa laguntzea.
1137. Gizarte- eta kirol-animazioa planifikatzea	UC1658_3: Kirol- eta jolas-jarduera fisikoko animazio-proiektuak egitea, kudeatzea, sustatzea eta ebaluatzea

1138. Animazio-turistikoko jolasak eta jolas-jarduera fisikoak	UC1659_3: Mota guztietako erabiltzaileentzako kirol-jarduera fisikoen animazioko eta jolas-animazioko ekitaldi, jarduera eta jokoak antolatu eta dinamizatzea UC1094_3: Animazio turistikoko jarduera ludikoak eta jolas-jarduera fisikoak antolatu eta garatzea UC1095_3: Animazio turistikorako eta jolas-animaziorako kultura-jarduerak antolatu eta garatzea UC1096_3: Gau-jaialdiak eta ikuskizunak antolatu eta garatu, animazioa helburu hartuta
1139. Banakako kirol-jarduera fisikoak	UC1084_3: Igeriketa-jardueri buruzko irakaskuntzari eta oinarritzko egokitze fisikoari dagozkion jarduerak programatu UC1085_3: Igeriketa-jardueren irakaskuntza eta oinarritzko egokitzapen fisikoa zuzentzea.



*Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional*

*Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua*

Galindo bidea, 14
48910 – Sestao (Bizkaia)

Tel.: 944 47 40 37
Faxa: 944 47 38 62

www.ivac-eei.eus
web@ivac-eei.eus



EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
Viceconsejería de Formación Profesional